

Jakin^{•eus} 223

herria kultura hizkuntza azaroa-abendua
2017

Euskal kultura 2017

Amaia da hasiera
OLATZ BEOBIDE

Dantzan jarraitzeko
MIREN RUBIO

Zuloa da luizia
ITZIAR UGARTE

KATTALIN MINER
JON ESKISABEL
IRATXE RETOLAZA
HAIZEA BARCENILLA
GALDER PEREZ
MAIALEN GOÑI
XABIER LANDABIDEA

AXPI
ARITZ IRIGOIEN
ADUR
EXPRAI
DIEGO PALLÉS
PATXI GALLEGO

GAIAK

Euskal hedabideak, etorkizun bila
ALBERTO BARANDIARAN

Jakin^{•eus}**223**
herria kultura hizkuntza azaroa-abendua
2017



JAKINEko idazlanez inon baliatzerakoan
aipa bedi, mesedez, iturria



aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez
idazleen iritziekin bat

LEHENDAKARIA

Joan Mari Torreal dai

OHOREZKO KIDEAK

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

ZUZENDARIA

Lorea Agirre

ERREDAKZIO BURUA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Lorea Agirre, Haizea Barcenilla, Harkaitz Cano, Xabier Eizagirre,
Idurre Eskisabel, Patxi Juaristi, Joanmari Larrarte, Maialen Lujanbio,
Imanol Murua, Andoni Olariaga, Olatz Osa, Gexan Sors,
Joan Mari Torreal dai, Eguzki Urteaga

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Martin Ugalde Kultur Parkea / Gudarien etorbidea, 29 / 20140 Andoain

Tel. 943 21 80 92

jakin@jakin.eus

www.jakin.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia

*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza
Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiaren laguntza jaso du*



*Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua*

Jabegoa: Jakin Fundazioa. Donostia. Lege gordailua: S.S. 25/1977. ISSN: O211/495X
Inprimaketa: Leitzaran Grafikak, S.L., Gudarien Etorbidea, 8. Andoain (Gipuzkoa)

SUMMARY

5

ZUZENDARIAREN HITZAK

7

GAI NAGUSIA Euskal kultura 2017

11 Amaia da hasiera

Olatz Beobide

Olatz Beobidek antzerkiaren eta ikus-entzunekoen esparruaren errealitateaz egiten du gogoeta, sektoreari eta lanbideari lotutako hainbat auziren inguruan: langileen lan baldintzak, euskarazko ekoizpenen zailtasunak, euskal antzerkiaren dokumentazio zentroaren eta artistaren estatutuaren egitasmoak, euskal zinemaren egoera, telebistako euskarazko ekoizpena eta formatu berrien erronka...

35 Dantzan jarraitzeko

2017ko iruditeriaren arrastoan zenbait adibide

Miren Rubio

Miren Rubiok 2017ko zenbait urtemuga eta gertakari aukeratu ditu gure burua irudikatzeko ditugun ikur eta lekuez jarduteko: Guernica koadroa, Guggenheim museoa, Arriaga antzokiaren Obabakoak ekoizpena, Kukai dantza taldea... Adibide horien bidez identitatea eraikitzeko ditugun zailtasun eta moduak uzten ditu agerian. Konplexuak eta aukerak.

45 Zuloaren luizia

Itziar Ugarte

Itziar Ugartek gogoeta egiten du euskal kulturgintzari buruz, urtean zehar izandako hainbat gertakarik akuilatuta: kultura-ren transmisioaz, memoriaren eta errelatuaren auziaz, euskal kulturak jasaten dituen mespretxuaz eta euskarak eta kulturgintzak nazioa biltzeko izan dezaketan garrantziaz.

51 Kattalin Miner • Axi • Aritz Irigoien
Jon Eskisabel • Iratxe Retolaza • Adur
Exprai • Haizea Barcenilla • Galder Perez
Diego Pallés • Maialen Goñi • Patxi Gallego
Xabier Landabidea

Urtean zehar kulturaren alorrean gertatutakoaren balantzea idazten dute zazpi egilek. Kattalin Miner, Jon Eskisabel, Iratxe Retolaza, Haizea Barcenilla, Galder Perez, Maialen Goñi eta Xabier Landabideak, hurrenez hurren, bertsolaritza, musika, literatura, arte, antzerki, zinema eta komunikazioaren teknologiaren eremuak jorratzen dituzte. Adur, Aritz Irigoien, Axi, Exprai, Diego Pallés eta Patxi Gallego marrazkilarien begirada satirikoak biribiltzen du urtearen balantzea.

GAIAK

105 Euskal hedabideak, etorkizun bila
Alberto Barandiaran

Euskal hedabideak urterokotasunaren urduritasuna gainditzeko lagunduko dien itun bila ari dira administrazio publikoekin, eta mahai iraunkorra finkatuta dago GFArekin eta HPSrekin. Hainbat adostasun ere lortu dituzte hedabideek. Hurrengo hilabeteak giltzarri izango dira 2019tik aurrera beste lankidetzak esparru berri bat eraikitzeko. Artikulu honetan azaltzen dira lortutako adostasunak eta konbentzimenduak.

KONTRAZALA Unai Iturriaga

BASQUE CULTURE 2017

The end is just the start

The actress and director Olatz Beobide reflects on the real situation facing theatre and audiovisual environments in terms of several issues related to the sector and profession: the working conditions of professionals, the difficulties attached to productions in the Basque language, projects emanating from the Basque theatre documentation centre and the artist's statute, the situation regarding the Basque film industry, TV production in the Basque language and the challenges involved with new formats. **Olatz Beobide**

A dancing people. Some examples of the imagination in 2017

The journalist Miren Rubio has selected several anniversaries and events from 2017 in order to reflect on the symbols and places we have in which to represent ourselves: the Guernica painting, the Guggenheim Museum, the Obabakoak production at the Arriaga Theatre and the Kukai dance troupe. She highlights our ways of doing things and difficulties, complexes and opportunities for building identity. **Miren Rubio**

The landslide of the hole

The journalist Itziar Ugarte draws on some of the events that have taken place within the sphere of Basque culture this year in order to reflect on different issues: the transfer of culture, memory and recounting the Basque conflict, manifestations of contempt towards Basque culture and the importance of Basque culture and language in training the nation. **Itziar Ugarte**

Basque culture 2017

Seven authors, professionals and analysts from the world of Basque culture provide us with a critique of the cultural events that have taken place during 2017. Kattalin Miner, Jon Eskisabel, Iratxe Retolaza, Haizea Barcenilla, Galder Perez, Maialen Goñi and Xabier Landabidea take a look back over the activity pursued in areas of verse improvisation, music, literature, art, theatre, film and communications technologies respectively. A satirical view from the cartoonists Adur, Aritz Irigoien, Axi, Exprai, Diego Pallés and Patxi Gallego helps to illustrate this overview of Basque culture. **Various authors**

The future of Basque language media

Alberto Barandiaran, director of Hekimen (the Basque media association), analyses the negotiation process it pursues with public administrative bodies in search of an agreement that may help to overcome the unstable situation being experienced by the media. A permanent platform has already been established with the Regional Government of Gipuzkoa and with the Deputy Ministry of Language Policy of the Basque Government. The coming months will be crucial with a view to creating a new collaborative framework as of 2019. **Alberto Barandiaran**

Joxe Azurmendiren hitzak gogora dakartza 2017an kulturak zer eman duen jasotzen duen zenbaki honetako artikulugile gazteenak bere kronikan. Itziar Ugartek jokoan zer dugun eta joko zelaiak zein izan behar duen azpimarratzeko erreferentziatzen du Azurmendiren aipu hau: «Euskal nazioa atomizaturik dago. Bildu egin behar da, kulturgintzak esan lezake bakarrik non bildu. Horixe da gure kulturgintza: herrigintza, naziogintza, komunitate baten berregintza». Aldarri edo bideorri edo *desideratum* hori lerroartea josiz doan hari bat dela –esplizituago batzuetan eta inplizituago bestetan– suma daiteke Ugarterenarekin batera datozen beste berderatzi artikulu idatzitan eta sei artikulu grafikotan.

Denak ari dira kultura herria hizkuntza hiruko *klasiko* horren baitatik, aldez edo moldez, aipatu edo ez. Baina ez hortik bakarrik. Ageri da, gero eta presenteago gainera, osagai *berriago* bat, ertzetik datorrena baina erdigunean bere lekua hartzera datorrena etorri ere: generoa, emakumea, berdintasuna, edo deitu beldurrik gabe feminismoa; edota ‘herria’ kontzeptuaren muinean kokatu eta herria bere osotasun eta betetasunean hartu behingoz. Eta horri guztiari gehitu tresna ezinbesteko bat: benetan eroalea izango den transmisioa –Ugarteren hitzetan, «azkura erre» eragiten duena, transmisio ezak, jakina–, eta, osatzeko, nolakotasun *berri* bat, hori ere funtsera datorrena eta dagoeneko bertan kokatua dena: digitalitatea.

Herria kultura hizkuntza generoa berdintasuna transmisioa digitalitatea. Esan liteke zazpi oin horien bueltan gabiltzala etengabe sormenari habia bat eraikitzeke ahalegina egiten, ekosistema ahul baina erresistente horri bideak irekitzen. Baita joan berri den 2017an ere. Ez alferrik, artikulu hauetako gehienak Maialen Lujanbio bertsolariak bere bigarren txapela jantzi izanaren eraginpean osatu dituzte. Bereziki bai Axi marrazkilariak eta bai Kattalin Minnerrek ere, txapelketaz jardun baitute. Minerrek, txapelketan genero ikuspegia txertatzeari dagokionez, «gaietan sekulako eraldaketa egin dela» iritzi dio. Eta horrekin galdera berriak etorri direla: «Norentzako dira gaiak? Nola heltzea lortu dute? Nola bizi dute feminismoa bertsolariek? Entzuleek?». Bide batez esanda, galdera berri horiek kulturgintzaren esparru guztietara iritsi dira. Eta alarma bat ere bai: berdintasuna lortu delako ilusioaren atzean egon daitekeen desberdinkeria iraurarazteko estrategiari adi egon beharra dagoela.

Olatz Beobide antzerkilariak oholtza gaineko edota pantailen atzeko lanaren disezio bat egin du, eta kultur politikarako hainbat neurriren beharra azpimarratu. Kasik lau hamarkada daramatza taularen bueltan. Eta taula, muinean, transmisioa dela dio.

Picassoren *Guernica* afera baliatzen du Miren Rubiok geure buuruaren iruditeriaren nolakotasunaz eta eraikitzeke moduez hausnar egiteko. Jon Eskisabelek euskal musika berriaren hirugarren baga aipatzen digu –feminismoaren hirugarren baga bizi dugun hone-tan, kasualitatea ote?–, eta «garai bateko diskurtso eta formulek agortze sintomak erakusten dituztela». Adur marrazkilariak eta Ira-txe Retolazak begiratu diote literaturari. Retolazak euskal narrati-baren erronka bestelako estetika literarioak jorratzean ikusten du, fantasiaren, absurdoaren, abangoardiaren edo errealismo soziala-ren bideak berrartzean.

Expraik umorez erreparatu dio arteari. Haizea Barcenillak ez hain-beste. 2016ko Donostiako kultur hiriburutzak utzi duen ajearen gogorra begien aurrean jarri digu. Galder Perezek euskarazko an-tzerkia txikira hordagoa jotzera kondenatua dagoela dirudiela dio, eta Diego Pallésekin dantzaren tradizioa eta berrikuntza hartu ditu iruditan. Maialen Goñik, berriz, zineman, handirako hordagoak ira-bazi duela gogorarazten digu *Handia* filmarekin –Patxi Gallegok bere artikulu grafikoan Altzoko Handia eta *Errementari*-a bat egi-ten ditu–, azken 30 urteetako euskarazko film ikusia izan baita. Bide eginez doa euskal zinema, bide eginez doan bezala heda-bideak digitalki kontsumitu eta sare sozialetan barrena *bizitzeko* geure egin dugun ohitura, Xabier Landabideak dioen moduan, «agian, (euskal) komunikazioaren ekosistema garaikidearen ezau-garri nabarmen eta harrigarrienetakoa da giza komunikazioaren baitan gertatzen ari diren aldaketa sakoneko eta azeleratuetara moldatzeko eta ohitzeko gaitasuna». Horren adibide, Bertsolari Txapelketa Nagusia nola *kontsumitu* dugun, ze bat-batekotasunez eta ze gailuren bitartez, non eta nola. Aldaketa hemen da, jakina, aspalditik gainera, hori ilustratzen du Aritz Irigoienek marrazkiak.

Unai Iturriagak azken puntua bota du, ohi bezala, bere kontraza-letik: ados, esango balu legez, ados, herria kultura hizkuntza gene-roa berdintasuna transmisioa digitalitatea ados, baina galdera bat, bada nork gorpuztuko duen? Bada urik igerilekuan?

2017ak eman duena horraino. Zenbakia bukatzeko, Alberto Ba-randiaran Hekimeneko zuzendariak komunikabideen eremuari ar-gazki doitua egin dio. Eta etorkizunera begira jarri gaitu, euskarazko herri ekimeneko hedabideak eta erakunde publikoak lantzen ari di-ren itunaren beharrezkotasuna jomugan.

EUSKAL KULTURA 2017

- 11** Amaia da hasiera
Olatz Beobide
- 35** Dantzan jarraitzeko
2017ko iruditeriaren arrastoan
zenbait adibide
Miren Rubio
- 45** Zuloaren luizia
Itziar Ugarte
- 51** Kattalin Miner
Axi
Aritz Irigoien
Jon Eskisabel
Iratxe Retolaza
Adur
Exprai
Haizea Barcenilla
Galder Perez
Diego Pallés
Maialen Goñi
Patxi Gallego
Xabier Landabidea

Olatz Beobide

Amaia da hasiera

Ni gaur egun saltsa honetara dedikatzearen errua partekatua da. Hasteko nirea, nirea baita hau-tu-erabakia. Baina... Zenbat aldiz damutzen ote da artista egindako hautuaz? Urtean behin? Hilabetean lau aldiz? Egunean hamabost? Tira! 2017-2018 amaiera-hasiera honetan kultura lanbide izatearen gazi-gozoak bigarren orritik aurrera.

Lehenengo orrialdeari suertatu zaio ukitu erromantikoa asetzeari. Badira nahita edota nahigabe nire afizio-ofizioa esnatu zutenak: horiei esker naiz ni aktore eta zuzendari, sortzaile edo kultur edukien tuppermix eragile.

Udalekuetan... Goñi, Abaigar, Beire, Antzin... Herri *horiek* guretzat *haiek* ziren... Egungo *Game of Thrones* bezalako leku urrun bezain bereziak gure ume-gazte aroan.

Han egindako txabolak benetan ziren gotorleku. Erreketa-ko ur izoztuek benetan asetzen zuten gure freskatze beharra, nahiz eta atera orduko berriz genituen hormonak bero-bero dantzan... Guztiaren gainetik, suaren inguruko gaubeletan entzun eta irudikatuak eman zien bereziki, niretzat bederen, bere izaera propioa Euskal Udalekuei: Euskaldunak bezain Uda-lekuak ziren horiei, bai horixe!

Gaubelak, gauero atal bat... Ai ama! Ba ote daki Jexux Mari Arrietak zenbateraino kateatu ninduen atalka-atalka, ameska-ameska bizitzera; fikzioaren kolore guztietako armiarma sarean sentitzen nintzen/naiz ni orduz gero babestuen.

Eta garai haietan, ni eta ni bezalako hainbat eta hainbat nerabe. Goiko zelaian suaren inguruan... Suaren garrak berotzen zigun gorputza; abenturek, aldiz, buru-bihotza.

Kontaketen hoge minututan, gaua denbora-espazio gabeko zulo beltza zen: Goñiko Teodosio, Antso Gartzes III.a, Eneko Aritza, Amaia... Horiek ziren horiek nire heroiak. Ama-lurra, ilargi amandrea, jentilak, herensugeak... hilketak, mendekuak, botereak... Pertsona(ia) historiko famatu horiek ziren protagonistak, hezur eta fantasiakoak; Euskal Herriko agintariak: traizioak, tronuak, politika, ekologia, natura, iraultza; horiek gure jainko-jainkosak...

Netflix-HBO edo atari digital ororen logikatik at zegoen kontakizun hura. Han ez zegoen hurrengora salto egiterik, atal bakarra zen gau bateko dosia.

140 hasperen eta 'zurrungaren bat' gaubela amaieran, hurrengo eguneko istorioaren zain lokartzen gintuen dotore kontalari abilak.

Hortxe entzun nuen lehenengoz «Amaia da hasiera», eraztun baliotsu hartan idatzitakoa. Esaldi bakanak Oraina eta Geroa lotzen zituen. Lotzen ditu.

Goazen, bada, urte aldaketa honetan, antzerkia eta ikus-entzunezkoak, arte bezain lan eta ofizio dugun errealitatea aztertu eta astintzera; ahal den heinean, kultur ontzian errekatik errenkan datorrenari ur gehiago baliatuz eta izkinetara bideratzen dituen zabor eta sasiak kenduz, bereziki, indartsuago itsasoratu daitezten. Eta, nola hala, saiatuko naiz ozeanoak duen poderio handia saihestu eta ur handitan ez galtzen.

Antzerki baten amaiera ez da inoiz hasiera

Nahiz eta, sinetsiezadazue, halakorik egon badagoen: duela gutxi izan nuen halako antzerkia ikusteko aukera: Booktegi egitasmoaren aurkezpen ekitaldian Patxo Telleriak idatzitakoa hala hasi zen, amaieratik. Patxo eta Mikel Martinez ziren aktoreak; eta, esan, esan daiteke oso testu dibertigarri eta jostalaria zela.

Baina garrantzitsuena da antzerkia entzun eta ikusteko formulak eta formatuak ugaltzen ari direla: mikroteatroak, teatro arinak, antzerki laburrak, mikro-ikuskizunak, dramatizazioak, irakurketak...

Nire DNAn antzerkia kutsatu zidaten nire aita-ama halaxe ibili ziren 60ko hamarkadako kultur eztanda urteetan. Jarrai antzerki taldearen bueltan antolatzen zituzten euskara sustatzeko dramatizazioak, irrati saioak, antzerki feriak... (70etako Festival 0 antzerki jaialdikoak bezain bizipen transgresorerik ez da bizi izan Donostialdean, nik dakidala). Garai hartan euskaragatik modu amateurrean egiten ziren lan asko eta asko; euskara helburu izanda, arte forma ugari izan ziren suspertuak orduan. Orain, geure ogibide bihurtu dira –ziren esateko esango lidakete lankide askok– telebista, bikoizketa, zinema edota antzerkia.

Hala nola, sortzen ari da ugari antzerkia, tamaina, neurri eta kolore anitzetan: kultur etxeetako izkinetan, antzoki handi eta txikietako txokoetan, arrain merkatu zaharretan, ganbara berrerabilietan, gaztetxe eta gazte gunetan, kafe antzokietan, auto baten barruan (ikusleak atzealdean), pisu eta sotoetan egindako antzerkia. Ikusle bakarrarentzako *solo*-ak –esperiencia ahaztezina Donostiako

Ferian, eta zoragarria Arriagan gauzatutako Itxaro Bordaren %100 *basque*-ren irakurketa preziatua-. Horrek eskaera eta eskaintza areagotzen du. Bai ikuslegoarentzat, bai eduki ororen antolatzaile eta, jakina, antzezleentzat; bai idazle, aktore, zuzendari, teknikarientzat.

Ugaritu dira, beraz, merkatuan, antzezlanak modu arinagoan gauzatu eta plazaratzeko aukerak. Baina, ugaritu edota ugalduta izanak ez du dena biderkatzen ahal.

Antzerkia entzun eta ikusteko formulak eta formatuak ugaltzen ari dira: mikroteatroak, teatro arinak, antzerki laburrak, mikro-ikuskizunak, dramatizazioak, irakurketak...

Kasu! Euskarazko ekoizpenak. Kasu! Diru sarrerak. Nire lan-kideren batek esango lukeen bezala, horrek, guretzat, erabateko modu traketsean (prekarioan esanda argiagoa ote mezua?) freskatu du gure egunerokoa. Hona hemen egunerokoa hartu eta baldintza minimoak eta soldatak aipatzeko arrazoa: *lau aktoretik hiru dago gaur egun langabezian. Lan egiten dutenen %55ek ez du soldata minimoa eskuratzen.* Ez dut esango txikiak kalte egingo duenik; alderantziz, lana suspertu behar den garaian, txiki asko kabitzen da handi bakarraren tokian.

Konpainia batek antzezlan bakarra ekoiztuko du urtean (diru laguntza adostuak ala merkatuan salmenta-formula lortuak dituzten gutxi horiek urtean bi ala hiru gehienez); eta lehenago aipaturiko formatu txiki berri horiek, aldiz, mordoxka galanta ekoiztu daitezke, banaka-binaka-launaka... Eta zorionez ari dira topatzen eurentzat merkatua.

Baina, harira itzuliz, kontuz baldintza ekonomikoekin. Kasu euskararen rolari.

Kontuz egitasmo kultural berri horiek sustatzeko beharrezkoak diren minimoekin.

Kontuz hainbat kausaren izenean artisten lana musu-truk baliatzearekin. Kultur langileak –profesionalak– gara, eta gure lanbidea jorratuz nahi dugu ogibidea irabazi; hala beharko, artistok ere tripa zuloak bete eta fakturak ordaintzen ditugu.

Jakingo duzueenez, Iparraldeko artistek *Intermittences* izeneko laguntza dute. Hots, 50 lan-egun deklaratura, urte bateko diru-laguntza eskubidea dute. Horrela babesten dituzte artistak Frantziako legediaren baitan. Laguntzak berak ulertzen baitu artista batek, lan bat partekatzeko, atzetik, azpitik eta gainetik lan ordu asko inbertitu behar dituela; horretan jardun ahal izateko, estatuak hartzen du bere gain horren ardura. Guretzat ametsa dena, haientzat egunerokoa –seguru naiz lege horiek ere hobetu daitezkeela, baina ezin ahaztu Europako baldintza egokienak direla.

Hegoaldean, aldiz, edozein langileren lan ordu pilaketa bera eskatzen zaigu: 365 lan-egun deklaratu behar hiru hilaletako ‘langabezi-saria’ eskuratu ahal izateko.

Euskal Herriko zein hiri edo herritan izan dezake artista batek halako lan eskaera eta eskaintza? Herri gehienetara emanaldi bakarra egitera goaz. Hiriburuetan, goitik jota, lau egun eman ditzake aktore batek eszena gainean. Eta, kasu gehienetan, obra bakoitzarekin bisitaldi bakarra eta kito!... hurrengo antzezlanaren prest izan arte.

Horretxegatik, sortu eta probokatzen diren egitasmo artistikoak oro dira ongi etorriak. Bai ikuslegoa asetzeko, bai artistak berak duen lana eta berrikuntza beharra garatzeko.

Baina, lehen esan bezala, baldintzekin eta joerekin tentuz behar dugu ibili.

Kultura doan ala ordaindua den luze eztabaida daiteke lehen eta orain. Hori bai izan daitekeela, zinez eta arrazoi osoz, amaigabeko eztabaida.

Hala eta guztiz ere, nire iritziz, kultura ongizate publikoa den heinean eta diru publikoak sustatu behar badu ere, ikusleak bere gain hartuko du sarrera ordaintzeko erabakia eta konpromisoa (badira beti salbuespenak, horiek ere, egon, egon behar dutelako).

Ezin dira ahaztu gurean ere beharrezkoak diren marketin formulak. Eta lehenetsi behar da, zalantzarik gabe, kultur ekitaldien sarreretan abian dauden laguntzak mantendu eta promozionatzea. Adibidez: zenbat gaztek dakite antzezlan eta kontzertu batera ordu erdi lehenago iritsita, sarreraren prezioa zein den ahaztuz, hiru euro bakarrik ordaindu behar dituela?

Ondotxo dakit ikuskizun gehienak nekez ordainduko direla leihatilan bildutakoarekin. Ekoizpen pribatua soilik dutenak, normalean, ikuskizun erraldoiak dira: bai artistikoki bai kudeaketan erraldoiak. Kultur ontzi handietako produktu gehienek nazioarteko marka handiak dituzte. Halakoetan, sarrera, garestiago izanda ere, gustuz ordaintzen dugu. Nahiz eta futbola ala bazkari berezia ordaintzen askoz ohituago gauden. Alegia, kirola eta gastronomiako marketin ardura-dunek primeran jakin digute beraien produktuekiko nahia eta ordaina modu naturalean saltzen.

Ekoizpen handiez ari garela, azken urteetan laguntza publiko jasotakoa dugu 2016ko kultur hiriburutza. Donostiako Kristina Enea parkea oraindik ere ederragoa bihurtu zuen *Uda bateko gau ametsa* Tanttakaren ekoizpen arrakastatsuak. Bide batez, hiriburutzaren legatuaren inguruko ika-mikak alde batera utzita, noizko horren jarraipena? Hori bai, aipatu beharra dago 2016ko beste egitasmo bati bai eman zaiola segida, Victoria Eugenia, Arriaga eta Gasteizko Principal Antzokia lotu dituen egitasmoa bera. Antzokiak elkarlanean ikustea bada ekoizpen kate-logika honetan zoriondu beharrekoa.

Bigarren oharraren alertak piztuko ditut orain: kasu euskarazko ekoizpenak!

Korrikan, Kilometroetan, Azokan, BECen «Euskara maite zaitugu!» aldarrikatu eta gero, antzerkian euskal hitzuneak gaztelania hautatzeak dakartzan ondorioak ez ditugu gutxietsi behar. Bietara ekoiztea normalizat dugu orain, baina gaztelaniazko hautu bakarra gauzatzea ez da zientzia-fikzioa.

Kasu umeei euskarazko produktuetara eraman eta gu ondoan barra-barra gaztelaniaz aritzearekin. Eta gure kontsumo aukerak gaztelaniaz soilik badira, nora garamatza hizkuntza komunikazio arlo mugatu bezain baldintzatueta erabiltzeak?

Hizkuntza bat baino gehiago menderatzea altxorra dela ezin uka. Baina, gauza jakina da egunero egiten dugunetik datorrela geroa.

Gazteen gain jarri nahi dugu orain ardura eta arreta, baina ez ahaztu giza ekosistema bat garela. Denok islatzen dugu gure errealitatea. Euskarazko antzerkiaren geroa gurea bezain zuena ere bada.

Adibidez –onartu behar dut abiadura handian jartzen dida la odola–, zer pasatu da kultura bonoekin? Irratian entzunda dakit, *kultura bonoek aurten ez dute balioko zuzeneko ikus-kizunentzat*. Arrazoimenaren logikak erabat nahastu dizkit neuronak. «Aurreko urteetako eskaera txikia dela eta erabaki dute aurtengo bonoen deskontuetatik arte eszenikoak kanpoan uztea». Orain euskal diskoak, liburuak eta DVDak

erostean dugu deskontua, baina ez dute antzerki, musika ala dantza ikuskizun baterako balioko. Ez da posible!... Ezin liteke!... Kultur produktu bat ahul badago, ez ote genuke, zirt edo zart, hura babestu, indartu eta suspertu behar?

Jaun-andreok! Erabaki duzuenaren justu kontrakoa egin behar da: eskaintza askotarikoa bezain kalitatezkoa dugun garaietan, antzerkia promozionatu eta deskontu handiagoa aplikatu behar zaio, eskaera areagotzeko! Indartsuak baka-rik bultzatzen baditugu, ba al dakigu zer nolako etorkizuna ari garen prestatzen? Beti hala egingo bagenu biziraungo al lukete museoek? Zertan ari ote gara pentsatzen!

Ardura dutenei zuzentzen hasita, hona hemen urte hasiera-ekin bat datozen etxeko-lanak: arduradun publikoei –izenak berak hala dio– dagokie, profesionalekin batera, antzerkiak hasiberri dituen eginkizunak abiatzea. Guk haiengan jartzen dugu botoa, konfiantza eta dirua (hauteskundeetan ezkontza eta dibortzioak badaudela ahaztuko dugu, ez zait mezua nahastea komeni), eta beraiek arduratu behar dute eginkizunak ahal den hoberen bideratzen.

Bada, hementxe lehena: antzerkiaren inguruan etapa bati eman zaio amaiera, presta dezagun ahalik eta azkarren hurrengo etaparen hasiera.

Euskal Antzerkiaren Dokumentazio Zentroaren egitasmoa

Euskaraz sortutako antzerkiaren garapenari nabarmenki lagunduko dion dokumentazio egitasmoa definitu da, Euskal Herri osoan dabilzan antzerki munduko eragile ezberdinen iritziak kontuan hartuta.

2017an lortu dute Mintzolak eta EHAZEK lan mardul horren abiapuntua den proiektu bikaina gauzatzea. Egindako bilera-tailer, elkarrizketa eta idatzizko ekarpenen bidez jasotako eduki guztiak bildu, bateratu eta laburtu dira dokumentu batean. Dagoena eta behar dena ere aztertu eta bildu da egitasmo fin bezain zehatza den horretan:

1. Euskal antzerkia lagunduko duen dokumentazio zerbitzua, lehenetasunak bateratuta.
 2. Dokumentazio alorrekoak ez diren eta prozesuan zehar bildu diren egitasmo/beharren zerrenda.
 3. Euskal antzerkiaren dokumentazioa non dagoen egun.
 4. Dokumentazio egitasmo hori sortu beharko luketen erakundeak.
- Euskal antzerkiaren dokumentazioa Euskal Herri osoko antzerki eragileek, Euskal Herriko Antzerkizale Elkar-tearen bidez, bultzatu beharreko egitasmoa dela ikusten da Mintzola Ahozko Lantegian. Dokumentazio zentro horrek lurralde guztietan zehar euskarazko antzerkiaren aktibazio soziala sustatzeko lagungarri izan behar du. Antzerkiaren berezko ekosistemaren erdigunean kokatuta egon behar du, eragile mota guztien eta euskararen lurralde guztien zerbitzura, eta antzerkiaren eraldaketa laguntzeko prest.
 - Euskarazko antzerkiak duen egoeran ezinbestekoak dira erakunde publikoek eta antzerki profesionalaren erakundeek euskarazko antzerkia sustatzeko egiten dituzten ahaleginak. Eta, horrez gain, Euskal Herri osoko aktibazio sozialean lagunduko duen herritarren parte hartzea behar da, mota guztietako antzerki sortzaileen mesedetan, eta lurralde guztietan zehar lan egingo duena.

Eta orain? Hori lanaren amaiera izanda, non da hasiera? Gure esku dago! Zuen erabakia da! Denak baliogarri bezain beharrezkoak zarete mahai buelta horretan: EAEko, Nafarroako eta Iparraldeko arduradunak. Batean eta bestean daude, bai artxibatutakoak, bai euskal antzerkian egindako esperientzia eta proiektu ugariak. Denak biltzea eta denon eskura jartzea da helmuga.

Gure antzerkigintzaren iragana eta oraina dugu eskutan. Etekina ateratzen jakinez gero... gure ondarea... Argi eta garbi esango dizuet: euskal antzerkiak sobera ez dituen baliabide, lan-tresna eta jakinduriaz gain, altxor ugari dago sakabanatuta antzerki talde amateur zein profesionalen lokal eta txokoetan,

pribatuek jasota dituzten argazki eta eskuizkribuetan, Koldo Mitxelena Kulturuneko edota Euskaltzaindiko kaxa eta funtsetan, Nafarroako antzerki eskolan, Euskal Kultur Erakundearen esku, sarean zintzilik dagoen Armiarma atarian...

Bada garaia euskal antzerkiari zor zaion garrantzia aitortzeko; jasandako erdi utzikeriari (material eta datu bilketari dagokionez, erabatekoa, esango nuke) amaiera eman eta, Euskal Antzerkiaren Dokumentazio Zentroa gauzatzuz, antzerki-garai berri bati eman diezaiozun hasiera!

Imajinatzen duzue: ikusle orok, egungo digitalizazio mundu honetan, klik egin eta,

adibidez, Piarres Lartzabalen *Portu xoko* topatzea (eta ez bakarrik testua; bideoan, adibidez, Ravel Lizeoko gazteek egindako emanaldi arrakastatsua; gazteei zuzendutako jaialdi hartako barre-algarak ikaragarriak izan ziren, Sokoako apai-zaren irribarre ederra berpizteko modukoak).

Eta, klik batean, *Ama begira zazu* antzezlanaren argazkiak, eszenografia bozetoak, arropa probak, *Arrastalo* margolari eta diseinatzaile apartak egindako dekoratu eta kartelaren bozetoak, eta, jakina, testua, eta, nola ez, Euskal Herriko plazetan hainbeste emanaldi izan zituen antzezlaneko aktoreen grabazioa ere eskura... (apustu egiten dizuet antzezlan hori, gustuko birmoldaketekin, eskoletako antzoki eta herrietako plazak betetzeko gai dela).

Eta klik-klak-kluk batean galdera hauei guztiei erantzuteko adina informazio bagenu:

- Zenbat euskal antzerki talde amateur zegoen 60ko bueltan, 70eko bueltan? Nolakoak ziren haiek egiten zituzten zirkuituak? Nola osatzen ziren antzerkizale elkarteak?

Bada garaia euskal antzerkiari zor zaion garrantzia aitortzeko; jasandako utzikeriari amaiera eman eta, Euskal Antzerkiaren Dokumentazio Zentroa gauzatzuz, antzerki-garai berri bati eman diezaiozun hasiera

- Zer gertatu da 80ko hamarkadatik aurrera, antzerkia profesionalizatu denetik? Zenbat talde profesional-amateur zeuden/daude azken hamarkadetan? Eta orain? Zein izan da probintziaka, herriz herri, gertatutako gorakada eta beherakada?
- Zenbat eskolatan ematen da antzerkia? Noiz erregulatuko ote da dantza, antzerkia gure eskoletan? Benetan ez al dute gure seme-alabek horrek ekartzen dien hezkuntza integrala merezi?
- Zein da eskolatan antzerkia jorratzeko duten materiala? Behin zer dagoen jakinda, partekatzeko aukera izanda, sortu eta berregokituko dira antzezlanak dauden beharretara, bai klasikoak, bai egungoak.

Eta ttak-ttak egin eta...

- Zenbat antzezlan egin dira 2000tik hona euskaraz, zenbat gaztelaniaz, zenbat bietara? Galdera horixe da, neurri batean, erantzuten errazena: antzerkia Hegoaldean profesionalizatu zenetik, gehienetan bitara egiten da (baita oraintxe Arriagak ekoiztu eta estreinatu berri duen *Obabakoak* ere). Nik gutxitan egin dut antzezlan bat euskara hutsean: *In fraganti* (sorkuntza zelako, eta euskaraz bakarrik oso ondo saldu zelako), *Oleanna* (David Mamet-en agenteak berak baliatu zigun euskaraz egiteko eskubidea; ordurako gaztelaniazko eskubideak agente potente batek erosita zituen) eta Bertolt Brecht-en *Kaukasiar kreazko borobila* (euskara hutsez egin genuen; hori bai, hemen eta kanpoan antzezteko asmoz: azpтитuluak generamatzan frantsesez edota gaztelaniaz). Brechten antzezlanekoa duzue zinez gaurkotasun handiko hausnarketa:

Nor da lur baten, herri baten jabe? Nor ume baten ama ala aita?
Ontasunez eskuratzen duena ala ontzen eta edertzen duena?

Bistan da, Dokumentazio Zentroarekin amaitu ez, eta hasi naizela errepasso ederra egiten; hori ekarriko du barra-barra artxibo horrek: Euskal Herriko antzerkigintzak eta antzerkiak, amateur eta profesionalak, ikuslego eta entzuleak,

merezi duen ondarea denona izatea... Ondarea izan badugulako... Asma dezagun biltzen eta hedatzen!

Kultura pisura ala litroka? Guinness errekorren laginak

Edozein herrik, eta nola ez gureak, bere hizkuntza eta kulturarekin duen zilbor-hestea berezitat du. Hala delako. Propioa. Intimoa eta, era berean, denona. Mundu osoarekin partekatzeko modukoa.

Nola ez zenbatu Bertsozale Elkarteak BECen izan duen ikusle kopurua, nola ez adierazi Durangoko Azokak jasotako bisitari eta salmentak. Horrek guztiak euskaldun izateari ematen dion balio eta harrotasunak urrea balio duenean...

Baina zenbaki handiek ez dezatela ezkutatu banakakoa, handia ikusaraziz txikia ezkutatuz. Ondotxo dakigu zer den handiaren ondoan txikia izatea, eta txikitasun horri handitasuna ematea.

Beraz, zer gertatuko litzateke kultura zifratan neurtu eta pisatzeko garaiari amaiera emango bagenio? Kantitateak galduko balu eta hasiko bagina norbanakoarena kontatzen? Kalitatea izango al da hasiera... ala orduan ere beharrezkoa izango zaigu edukiaren *kalitatea neurtzea*?

Egia esan, hobe kiloka ala metroka kontatzea. Kultura litroka kontatzen hasten banaiz, ziztu bizian doa nire pentsamendua hiruhilabetero, eskualdeka, euskara eta kultura batzen dituen ekitaldi zoragarrietara. Halabeharrez, batzuentzat ikastolen alde diren jaialdi horiek altxorrarekin baino atxurrekin lotuta daudelako, bederen.

Zaila oso gaia! Latza! Beraz, ur jauzi efektua egin eta buelta ederra emango diot proposamen zehatz bezain ezagun batekin: gure gazteek kulturaz gozatzea nahi badugu, kiroldegiekin egiten zen bezala (ez nago ziur ekintza horiei eusten zaien ala ez), zabaldu ateak. Ireki gazteentzako, iluntze eta jaiegunetan, kultur etxeetako gela pareta, musika jo, antzerkia egin, margotu, dantzatu eta nahi bestelako proposamenak

baliatuz. Hori bai, ez dena bideratu, ateak zabaltzea eta arau minimoak ezartzea da kontua...

Behin jauzia aprobeztatuz, hona hemen beste parada: azken urteetan, partaidetza sustatzeak eta hori nahi bezala manipulatzeak ekar ditzakeen arriskuak:

Kultura denok egiten dugu. Egia!

Kultura denona da. Jakina!

Hori izatez kontzeptu zoragarria eta betea da, baina 'denona' horrek amateurra, edota semiprofesionala, edota profesionala baina ordaindu gabea, bakarrik esan nahi badu... Horrek beste izen bat dauka... Berriz ere prekarizazioa!

Soldata kobratzen ari diren kultur arduradunak dira –kulturan edukiak sortzeko eta ezker-eskuin zabaltzeko– dirurik ez dagoela behin eta berriz errepikatzen dutenak. Oraintxe bertan dirua kulturan non, nola eta zertan inbertitzen den goitik-beherako analisisa egitea ezinezkoa zaidanez, istant batez, enpatia eta bestearen lekuan jartzen ikasi izana baliatuko dut, eta ez dut zalantzan jarriko arduradun horiek errepikatutakoa.

Baina, hori bai, «Houston! Arazo bat daukagu!».

Zertarako ditugu orduan kultur etxe, antzertoki eta auditoriumak? Zertarako gure kaleetako plaza, parke eta bazterrak,

bertan denok, baita profesionalek ere, egindako kulturaz gozatu eta elikatzeko ez bada?

Ezin ukatu hala egiten denean bizikidetzarako tresna baliotsuak direla. Gabriel Celaya zoragarriak zioen bezala: «Etorkizunez kargatutako arma da poesia». Bederen 1-ek ekoiztutako *Erreleboa* antzezlan zoragarriarekin halako hamaika ezagutu eta ezagutarazteko aukera izan genuen.

Zertarako ditugu kultur etxe, antzertoki eta auditoriumak? Zertarako gure kaleetako plaza, parke eta bazterrak, bertan denok, baita profesionalek ere, egindako kulturaz gozatu eta elikatzeko ez bada

Bizikidetzaren bidean

Bizikidetzarako hain sano bezain beharrezkoak diren lanak aipatuko ditut orain: *Adiorik gabe* izenpean (Donostia 2016ko *Bakearen itsasargia*-ren itzalpean) Mireia Gabilondo, Iñaki Salvador, Teresa Calo eta Joxean Goikoetxeak plazaratutako antzezlanak. Denok bizi izan ditugu biolentziak inposatutako egoerak, barren-barrenean daramatzagu, bakoitzak bereak, beldur, negar, hutsune, inpotentzia eta amorruez estaliak edo josiak...

Antzezlan horiek oxigenotik bi eta hidrogenotik lau ere ekarri ziguten. Eszenatokian gertatzen dena eta publikoak bizi duena bat egitea da, besteak beste, antzerkiaren funtsa. Hor gauzatzen zen halakoxea, bete-betean.

Esango nuke aurrez ikusitako Tanttakaren *Errudun jaiok* antzezlanak izan zuela lur horiek ere eta belar txarrak kentzen hasteko ahalmena.

Hainbat filmek ere lortu dute haziak sustraitu eta landatzea: Basterretxea eta Larrukerten *Ama Lur*, Medemen *La pelota vasca*, Gabilondo, Martinez, Olasagasti, Goikoetxea eta Larreategiren *Barrura begiratzeko leihoak*, Arandia eta Richardsen *Agur esatea*, Maloren *Lasa eta Zabala*, Iban Gonzalezen *Ama, nora goaz?* eta berriki estreinatutako Agirre, Otamendi eta Aznalen *Pasaiako badia*.

Antzerkia, zinema, transmisioa dira bere muinean. Ikuslea ez da kontaktara ala ondorengo hausnarketara eraman nahi soilik; artearen funtsa ekarrita, ikusi eta entzutera doan bizi-biziko du bertan antzeztua.

Egia ororen gainetik, jolasa, ametsa, fikzioa eta errealitatea era berean. Denok dakigu hori joko dela, horregatik dira aktoreak jokolariak; baina ikusleagoak hori egon nahi du, amets onenetan eta batzuetan txarretan ere bezala, bertan saretuta. Une batez bada, bederen.

Eta umorea, airea bezala, bizitzeko beharrezkoa denez, ba al dakizue zein diren gure lan egun finkoak? Euskararen eguna, Emakumeen eguna eta Antzerkiaren eguna.

Iritsi gara, bada, Antzerkiaren egunean, Victoria Eugeniara. 2017ko Donostia Saria eman diote *Francoren bilobaren gutuna* antzezlanari. Sariak, hurrengo antzezlan bat ahalbidetzez gain, egunean bertan antzezlan eszenan taularatzea ekarri du. Horrelakoetan gonbidapen ugari zabaltzen dira. Horrek berez ez luke txarra izan behar. Baina bai oraingoan: gonbidatuak ez dira agertzen, eta sarrera erosita dutenek antzokian gora eta gora egin behar dute beraien eserleku bila. Eta, aldi berean, beheko eserleketan zulo asko eta asko. Egoera hori izanda, antzezlan hasi aurretik, saria jaso berri duen Ximun Fuchs zuzendariak ondoan duen Donostiako alkateari keinu batez klik egin, eta halaxe esan du: «Gaur, bederen, hau da gure etxea. Beraz, eta denok, bai antzezleok bai ikusleok, gusturago egongo garelako, jaitsi hor goitik eta bete, behetik hasita, eserlekuak». Hor sortu da giro ona, barreak, txaloak... Hortxe dago antzerkia, goian eta behean. Hori ere hasiera delakoan nago: hemendik aurrera, gonbidatuak garaiz ez badatoz, beraien eserleku hutsak goi-goian geratuko direlakoan nago.

Azken jirabirako galdera-erantzunak:

Zergatik dugu Euskadiko Orkestra, eta ez antzerki nazionala? Edo, behin xaxatzen hasita, Euskal Herrian dantzari eta dantza maite duen hainbeste jende izanda, zergatik ez dantza klasiko eta garaikidearen konpainia nazionala? Izena ote da beldurtzen gaituena? Hala balitz, erraza soluzioa, lehiaketa antolatu eta, zirt eta zart, izen aproposa topatu.

Horretan Dantzertik bete-betean asmatu duela esan nahi dut, Antzerti zenari dantza gehituz. Horixe da, orain, arte dramatiko eta dantza goi mailako ikasketa zentroa.

Hori bai, faborez, ez jarri horri ere *basque* izena (benetan ez dugu euskara hitza plazaratzeko gaitasunik?). Hori diot, horixe delako halako konpainien eginbidea: euskarazko antzerkia hemen nahiz nazioartean ezagutaraztea.

Behin jolasten hasita –batzuetan jolasak badu partida bat bukatu orduko bestea hasteko inpultsoa: zergatik ez *Euskal Komedia*, Arestik bere garaian proposatutakoa –nahiz eta, berak ere esan bezala, izena den horrelakoetan gutxienekoa–?

Non geratu ziren Arteszena garaian antzerki konpainia iraunkorra egiteko asmo dotore haiek? Zein da arazoa, hiru probintzietako non kokatzea? Horrek ere konponbide erraza dauka: ibiltaria izan dadila, urtero hiru antzoki publikoetako batek har dezala bere etxean egitasmoa. Are gehiago esango dizuet, ziur naiz bai Gaiarrek berak eta bai Baionako Eszena Nazionalak ere babestuko luketela ongi asko elkarlaneko egitasmo artistikoa.

Kultura erduetan Frantziak eman ditu hobeak euskal komunitatearentzat: hiri ertain eta handi orok du bere Eszena Nazionala edota Zentro Dramatikoa. Politika planetan hezkuntza eta kultura bat eginda ikusteak laguntzen die hala-koetan. Gurean, ordea, errazago lotu ditugu kirola eta hezkuntza, eta ezin da ukatu kirolaren garrantzia gure hezkuntzara zabaldu dela. Sanoak izateko heziketa abian da, baina ez ahaztu sanoak izan behar dugula buru eta bihotzean, ez bakarrik gorputzean.

Non geratu ziren
Arteszena garaian
antzerki konpainia
iraunkorra egiteko
asmo dotore haiek?
Zein da arazoa, hiru
probintzietako non
kokatzea?

Artistaren Estatutua

Kultura Zuzenean Bizirik plataformak bere webgunean dioen bezala:

Kultura gizartea da: kulturak gizarteko bititza ahalbideratzen du. Lotura, ongizatea eta sormena eskaintzen du.

Egun, Artistaren Estatutua egitasmo aldarrikatua bezain beharrezkoa da. Estatutua errealitate bihurtzea da helburua. Laburbilduz:

- Gizartean kulturak duen garrantzia ikusaraztea.
- Lanbide artistikoari duintasuna ematea.
- Arte bizien kultura jarduera babestea.

Nork esango lioke horri ezetz? Zergatik da orain inoiz baino garrantzitsuagoa Artistaren Estatutua onartzea? Krisiak, azken hamarkadan, kulturak zituen diru laguntzak %50 murriztera eramán du. Ondorioz, sektorearen lan baldintzen esparrua erabat aldatu da. Horrek gogoeta sakon batera eramán behar gaitu, bai hiritarrak, bai arduradunak.

Gaian interesa baduzue, irakur ezazue Soledad Becerril Espainiako Estatuko arartekoak Kultura eta Hezkuntza ministroei prestatutako txosten bikaina.

Eta begiratu batean bada ere, ba al dakizue artistaren estatutu horrek zer lortu nahi duen?

- Jaramonik egiten ez zaien kultura-lanbide askoren legezko aitortpena.
- Gizarte Segurantzako sistema kontratuen aldi bateko eta tartekako izaerara eta gai hauetara egokitu:
 - Gaixotasunagatiko eta amatasun/aitatasun bajak.
 - Langabeziako diru-laguntza.
 - Erretiro duina izateko eskubidea.
- Jarduera artistikoaren zerga-araupetzea hobetu, ekonomiako beste subjektuekiko diskriminazioak saihesteko.
- Egile eta irudi eskubideak babestu ekosistema digitalean.
- Irakaskuntza artistikoen garrantzia aitortu.

Iaz hasitakoak aurten amaiera fina izan dezan esperantzan. Goazen pantaila handira!

Zinema. Zer babestu eta bultzatzen da?

Duela gutxi jakin dugu *Handia* filmak hamahiru izendapen bildu dituela Goya sarietan. Arrakasta itzela gure zinemagintzan. Handia haiek egindako lana eta zorionez handia biltzen hasi diren uzta. Daturik esanguratsuen, gainera, hauxe da: euskarazko filma ikustera joan den ikusleko kopurua oso altua da eta, begi bistan da, euskaraz ekoizteak ez du inondik inora oztopatu arrakasta. Jakina badirela azpigituluez gain bikoiztutako bertsiok. Baina, beraien hautua garbia da:

euskaraz entzun eta beste hizkuntzetan azpituduz jasotzeko filma egin nahi izan dute.

Aipatuko dut, dagoeneko, kultura metroka ala izendapeneka neurtzeak bere arriskuak dituela, baina ezin uka daiteke lorpen horiek euskaldun guztiei eragin diguten poza eta asebetetzea. Eta hauxe da gako garrantzitsua: geureaz harro egoteak emango dio biziraupena gure hizkuntzari, gure eduki artistiko eta artistei, oro har, euskal kulturari. Agian euskal zinemagintzak hain emaitza oparoak izateak animatu behar gaitu halakoak eta bi egitera.

Badakigu, bai, arrakasta ez da helmugan beti zain egoten; oso faktore aldakor eta kapritxosoek baldintzatzen dute helmugara saridun iristea. Baina gauza bat adierazi nahi dizuet: Europako nazio gehienetan bezala, euskal zinemagintza ere diru laguntza publikoak sustatzen du; eta kualitatiboki hazten jarraitzeko, behar-beharrezkoa du planak epe ertain eta luzeetara aurreikustea. Helmuga ezin da oinarritu urteroko sorta edo aleen ekoizpenetan bakarrik, baizik eta garapean, nazioarteratzean eta, nola ez, etengabeko sorkuntza propioaren kate osoan.

Sorkuntzak askotarikoa behar du izan, proposamen oso ezberdinez osatua. Kolore, jakinduria, esperientzia eta estilo askoren gurutzaketak ekarriko du, orain eta gerora begira, gure zinemagintzan fruitu onak izatea.

Egiten den orori balioa emanaz. Emaileak ezberdinak izanda, ugariagoak hartzaileak. Horrelakoetan, batek gustuko duena besteak du gorrotatuko, eta baten bat kasik shock emozional bat bizitzera eraman duenak bestea hotz utziko du. Arteak hori du bere baitan, hala suertatzen zaie –fikzio-koak izan ala ez– film dokumental, labur eta luzei.

Hori da, beraz, eskaera nagusia: gehiago izan behar dira prozesu osoan babestu eta bultzatutako produktuak.

Sektorea, bai, bai... Ikus-entzunezkoa sektore-sektorea da, eta ez hitzez bakarrik, emankorra eta profesional bikainez osatua baizik; eta bereak eta bi egiten ari da azken hamarkada honetan krisian ez itotzeko.

Berori osatzen duten langile trebatu eta espermentatu askorentzat lanbidea topatzea izugarri da zaila, hemen eta han. Betidanik izan dira Bartzelona eta Madril askoren helmuga. Baina han ere, krisia dela-eta, zaildu egin dira azken urteak (nahiz eta serie berrien ekoizpen sistemek lan aukera berriak ekarri).

Bestalde, adituek emigratu beharrak hutsuneak sortzen dizkigula ohartuta behar genuke dagoeneko: egingo al da euskaraz film dokumental, labur ala luzerik, edota marraz-

ki bizidunetako filmik, Euskal Herrian egiten ez bada? Nork kontatuko ditu gure istorioak?

Bai, bai, nik ere sinesten dut dena unibertsa dela. Baina gehiago ezagutzen dugu, egungo fikzio iturrietatik edanda, Thanksgiving eguna gure Santa Ageda eguna baino. Hori berez ez da ez txarra ez ona. Baina zer gertatuko da gure iruditeriarekin hain azkar irensten gaituen mundu globalizatu honetan? Ikusiko al dugu inoiz

Gure kulturak sor ditzakeen ikus-entzunezkoak nahi baditugu, uzta ziurtatu behar da; gero etorriko dira onak eta hobeak, halako eta bestelako, lehengo eta oraingo edukiez osatuak

Nafarroako erregina baten istorioa gure pantailetan, handi zein sakelakoetan? *Game of Thrones*-ekoek etorri behar al dute horretara ere Zumaiako Itzurunera errodatzera?

Gure kulturak sor ditzakeen ikus-entzunezkoak nahi baditugu, uzta ziurtatu behar da; gero etorriko dira onak eta hobeak, halako edo bestelako, lehengo eta oraingo edukiez osatuak.

Uzta ona egoteko, lurra emankorra izateaz gain, besteak beste, eta salmentarako prestatzean, fruituak ez dezala kolperik hartu. Bestela, lurrian bukatuko du, zorterik handienez hurrengo hazi eta landareen bazka izanez.

Kimu txikiak ere handi izateko ahalbideak bideratu behar dira. Kimuak bezalako egitasmo egoki bezain beharrezkoek begirada zabaldu behar dute; horretarako, jakina, beste adaxkak

dira jomuga. Daudenak elikatzen jarraitu behar da, baina ikusten ez direnei eta datozeinei lur eremua eman behar zaie, sustraitu daitezen, behar bezalako hazi eta fruituak lor ditzaten.

Begirada zabaltze horretan, balekoa da 'Emakumeen presentzia ikusizko arteetan eta ikus-entzunezkoetan' (2016-2017) txostena, Kulturaren Euskal Behatokiak bideratutakoa. Txosten horrek, analisi kuantitatibo eta kualitatiboez gain, erabakitze ahalmen berriak ekar ditzake. Miren Maniasen hitzetan:

Genero parekidetasun faltak ikus-entzunezkoan benetako hausnarketa behar zuen eta azterketa honekin sektorearen garapenerako lehen pausoa eman da.

Txostena irakurtzea aholkatzen dizuet, interesgarria izateaz gain, benetan lagungarria delako begirada hori aldatze aldera. Hona hemen datu azkar batzuk:

- Ekoizpen etxeetan: EAEko ikus-entzunezko ekoiztetxeetako hamar enplegutik lau emakumeei dagozkie, EITB barne (%40,5).
- Gidoian: bost eskatzailetik bat da emakumea Eusko Jaurlaritzak gidoigintzarako egiten duen laguntza-deialdian.
- Zuzendaritzari lotutako lanpostuei dagokienez, emakumeen presentzia %30 ingurukoa da; produkzioarekin berarekin lotutakoetan, %40 baino zertxobait handiagoa.
- Txikiagoa da emakumeen presentzia gidoietan, musikan eta muntaketan (%20tik behera).
- Emakumeen presentzia handiena makillajeetan, ile-apaintzetan eta joskintzan aurkitu da (%100 eta %75 bitartekoa). Haatik, izaera teknikoagoa duten beste jardueratan –elektrikari eta makinistak, soinua, argazkilaritza...– emakumeak ez dira %15era iristen aztertutako azken urtean.
- Arreta ardua handieneko lanpostuei jartzen bazaie, behala hautematen da proiektu gehien-gehienetan emakumeen presentzia gizonena baino askoz urriagoa dela. Berretsi da eskala hierarkikoan gora egin ahala emakumeen presentzia urritu egiten dela, eta alderantziz.

- Lantalde artistikoari dagokionez, %36,1ekoa da emakumeen presentzia. Paper-mota guztietan da txikia emakumeen proportzioa: %40 protagonisten eta zerrendakoen kasuan, eta %25 ingurukoa nagusi eta bigarren mailakoetan.

Datu horiek eta askoz gehiago ezagutzea oso garrantzitsua izan da; baina, orain, txosten horri hasiera-jarraipen egokia eman behar zaio. Denok dugu oraingoan ere zeregina.

Gertu egoteak ez dit gaitzetsiko eredugarria den elkarte bat aipatzea: (H)emen. Helburua: arte eszeniko eta ikus-entzunezkoetan emakumeen presentzia areagotzea. Datu basea egitea izan da oinarria. Nola ez ba? Ikusten ez baditugu nola jakingo dugu daudenik ere? Zorionez, asko dira bazkide egin direnak eta beste hainbat ere kontratatzaileak; modu horretan, ekintza positiboa egiteaz gain, lan merkatura zuzenean zabaltzen dira leiho eta atak.

Berriz ere, sektoreak bere kabuz egin dezakeena asko bada ere, ez da nahikoa.

Kuotak bai ala ez? Auzi horretan ere asko dira aldekoak, eta gutxi baina gogorak kontra daudenak. Niri dagokidanez: egoera ez badago oreka naturalean, modu batean ala bestean bere onera ekarri beharko da, ala? Horretxegatik nago kuoten alde.

Gauzak mugitzeko batzuetan ongi pentsatu behar da, ondo dagoenari eutsiz eta hobetu nahi dena ahalbidetzeko aukerak eskainiz. Eta bai, ez daukat zalantzarik, datuek hobetze aldera egingo dute diru laguntzetan emakumeen presentzia kuota bidez ere babestu eta ziurtatzen bada.

Telebista. Formatu berriak, belaunaldi berriak

Ai! Zuzenean telebistara jauzi egitera noan honetan, hasteko, ohar garrantzitsua: berdintasunaren ikuspuntutik, gure telebistak ardura ezinbestekoa du; bestela ongi bideratutako lanak ohartzeko xahutzeko arriskua dago (hedabide publikoan zabaldu zen iragarki ezagun bat dut gogoan, non ohiko rol tipifikatuei berriz ere hauspoa ematen zitzaien).

Digitalizazioak, sareak, edukiak hodei artean ibiltzeak aukera mugagabeak ekarri ditu, eskura guztiz gure etxeko pantaila eta mugikorretan.

Lehenbailehen eutsiko diot ikus-entzunezkoei eta hizkuntzari lotuak ditugun kezka eta beharrak esaldi bakar batera mugatzeko arriskuari: ikus-entzunezkoak gazteentzat! Gazteak dira orain preziatuak, euskara indartu nahi dugulako, etorkizunari arnasa eta gorputza ziurtatu nahi diogulako. Hausnarketa eta desio horiek hain dira zentzudunak eta koherenteak, baina...

Mundu erreal batean bizi gara, nahiz eta digitalak presentzia nabarmena hartzen duen. Eta gazteak –umeak, helduak, agureak bezala– elkarrekin bizi dira; benetan euskara gehiago balia dezaten nahi badugu, inguruak behar du euskaldunagoa.

Hizkuntzak komunikatzeko balio du, bai lanean bai aisialdian, bai lagunartean bai familian.

Besteekin partekatze behar eta nahiek eramango gaituzte hizkuntza bat ala bestea aukeratzera; hor dago gure jomuga. Euskararen ezagutza hain zabala den garaiotan –estatistikak eta txostenak behintzat ez dira hain ezkorrak!–, lanean eta aisialdian euskarazko aukerak eduki behar dira eskura.

Gazteei erakargarriak zaizkien ikus-entzunezkoak prestatzea bezain beharrezkoa da beraiei zuzenean nahi eta sor ditzaketen edukiak egiteko ahalbide eta aukerak zabaltzea. Hori ere bada etorkizuna garatzea!

Lehen... Bai! Oso lehen... gure ikastoletako lehen edukiak sortu ziren garaian, matematikako txosten bat euskaraz zabaltzeagatik –eta zentsurako paperak ez betetzeagatik– (aitzakia bai galanta!) isun potoloa ordaindu behar izan zuen gure aitak. Jakin aldizkariaren *Historia bizia* sailean egin

Gazteei erakargarriak
zaizkien
ikus-entzunezkoak
prestatzea bezain
beharrezkoa da beraiei
zuzenean nahi eta sor
ditzaketen edukiak
egiteko ahalbide eta
aukerak zabaltzea

zioten elkarrizketa irakurtzean (Jakin 143, 2004) jakin berri dut egun hauetan.

Esango nuke atzetik datozen belaunaldiek euskarak gaur egun duen zabaltze mailara iristeko bizi izandakoaren arrastorik ez dutela. Konbentzituta nago hor badela istorio asko kontatzeko, komedia ala drama lagun, gure inguruko bazterrak nahasteko baliagarriak.

Berriz ere amaiera da hasiera. Laster izango dugu ikusteko, muntaketa prozesuan baitago, Mainer Oleagaren *IRA 26-2* filma, Elbira Zipitria politikari, andereño eta euskaltzaleari buruzko dokumentala. Muntaketako musek lagun zaitzate!

Bi eta bat dira hiru... ala hamalau

Ai, gure telebista... Sortu zen egunetik eman digu euskaldunei lana eta zama; besteak beste, bigarren kate hori gaztelaniaz sortzeko erabakia hartu zenetik.

Demagun erabaki hori ona zela. Haatik, politikariek bazutela arrazoi estrategiko bat, hemen bizi garen guztion telebista izan nahi zutela, alegia, euskarazko katearen eta gaztelaniazkoaren artean –urrutiko agintean behintzat– zenbaki bakarra izatea estrategia hutsa zela. Tak eta tak, atzera aurrera. Bata zein bestea.

Zergatik ez dute, orduan, elkar elikatzen? Zergatik dirudi batak eta besteak bi mundu ezberdin islatzen dituztela? Bizikidetzaz –ahoz bizi eta belarria prest– euskararekiko biziko dugun hain urte berezi honetan, behar-beharrezkoa da ETB1 eta ETB2ren arteko joan-etorriko zubia. Lana izango da hori burutu eta gauzatzea. Primeran, horixe da behar duguna, zer ikusteko grina eta premia ikusle gisa, eta lana profesional gisa.

Horretan ere izanen da kontrakoa pentsatzen duenik, baina, zalantzarik gabe, ETBk fikzioa eskaintzen zuen garaian ikusle goak katea aukeratzen zuen. Eta berriz ere hala beharko luke.

Nola ez ba? Serieak, bai luze, bai labur, egunetik egunera gehiago kontsumitzen diren garaian gaude. Eta nork egingo

ditu gureak, guk ez bada? Oportunitateak, aukerak eta plataformak baditugu. Ekin ba aurrera!

Zein kate ingeles ala espainolek, zein plataformak, eskainiko dizkigu *Bi eta bat*, *Goenkale*, *Brinkola*, *Jaun ta jabe*, *Aitareen etxea* ala *DBH* bera?

Gure kultura, gure hizkuntza, gure umorea... Jakina globalizatua bezain borobila dela. Baina, gurea den heinean, eman diezaiegun ikusle orori, bai gazte bai zahar, ume edo heldu, genero eta pentsamendu guztietakoei, gure fikzioarekin gozatzeko aukera!

Eta lanbidea hautatu izana damutzeko zorian dagoen sektoreari begira, ez al dugu profesional bilakatu ditugun horiekiko erantzukizunik? Dagoeneko ederki ulertu duzue: ikasi, trebatu eta esperientzia lortutako aktore, ekoizle, gidoilari, zuzendari eta teknikari asko eta asko langabezia daude. Edota, kasurik onenean, B plana A plan bilakatu dute.

Ai ene! Freskatzeko bada ere, uretara egingo dut salto!

Duela gutxi, *El arte del agua* dokumental aparta ikusita izan dut nire aitonak Ternuan bizi izandakoa ikusteko aukera. Zinemaren magia! Halakoak ikusita ulertzen duzu zoritxarrez gure kaletan arrainontzi gutxi izatea (nahiz eta seguru nagoen arrantzaren gaiak beste hamaika azalpen dituela).

Baina gure lanbidea pil-pilean dago. Guk egiten dakiguna da ikusleak eskatzen duena. Beraz, arduradunei dagokizue aukera astintzea. Hausnar ezazue zenbat, non eta nola... baina emaguzue profesionalei *zer* hori egiteko parada, eta emaguzue ikusle bezala berriz ere ETB1en fikzioaz gozatzeko aukera. ETB2n. ETB3n. ETB Sat-en (hori da hori kate pila!).

Esandakoa, bada: espazio gehiago, aukera gehiago!

Behin erronkak jartzen hasita, hain arrakastatsu diren lehiaketetan bezala, hemen hurrengoa:

Webean, serie digitalak. Edukiek ere sare eta hodeiak betetzen dituztelako. Arin ibili behar dugu, berria den guztia zaharra bihurtzen baita. Librea dena manipulazio sotilez bereganatzeko abilezia du botere handiak. Baina oraindik doakoa da hodei artean sareratzea!

Amaia da hasiera

Eta kito! Ozeanoko kolore urdinek naramate, hantxe betidanik bazegoen ere, Elkanok hala erakutsita 500 urte beteko dituen Amerika euskal begiekin begiratzera, eta amaitzera.

Askotxo doa hemen idatzita, gehitxo, mikro idatzia gus-tuko duenarentzat.

Neure aldetik, buru-bidaia hau partekatu duenari eskerrak emango dizkiot, eta jarraituko dugu, beste nonbait, orduan bai, *ekinean*. 🐞

Miren Rubio

Dantzan jarraitzeko

2017ko iruditeriaren arrastoan zenbait adibide

Sinboloak eta lekuak: *Guernica* Gernika izateko

Picassoren *Guernica* erakutsiko zuen aretoari 'kaperak' izena eman zion Frank Gehryk. Ezin izen aproposagorik. Eta hala jakinarazi zion arkitektoak Juan Carlos I.a Espainiako errege zenari Bilboko Guggenheim museoaren eraikitze lanak bisitatzera etorri zenean: hirugarren solairuko areto horixe izango zela *Guernica* erakusteko kaperak egokia (Van Hensbergen 2004: 379).

Erdi burdin-sasi, erdi titanioz estalitako eraikuntza zen oraindik museoak. Urtebeteren buruan izango zenaren traza hartzen hasia, halere. Argazkia ateratzeko nahikoa. Erregea buru, Espainiako erakundeetako ordezkariak etorri ziren lan horiek bertatik bertara ikustera. Argazkia ateratzera. Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernua negoziazio betean baitziren babes politikoaren bila, eta truke horren balantzan zen Picassoren lana. Bilboko Guggenheim museoak atek zabaltzerako, *Guernica* bertan nahi zuen Jaurlaritzak, inaurazio erakusketan.

Juan Ignazio Vidarterentzat [Bilboko Guggenheim museoan zuzendariarentzat], museoak izango zuen esanahia irudikatzen funtsezkoa zen *Guernica*; izan ere, bere hitzetan: «Euskadik etorkizunean izan nahi zuenaren sinboloa izateko helburua zuen museoak» (*Ibid.*).

Guernica-k lagunduko zuen etorkizun hori irudikatzen, hortaz. José María Aznar orduko Espainiako presidentea ere prest azaldu zen behin-behinean margolana Bilbon erakusteko. Ez zitzaion etorkizun hori hain deserosoa egiten, nonbait. Eta horrela izango zen, baldin eta Madrilgo Reina Sofia museoak, Picassoren artelanaren arduradunak, kontrako botoa eman ez balu 1997ko maiatzaren 13ko patronatuaren batzarrean.

80 urte pasa dira Picassok koadro *sakratu* hori 33 egun eskasetan margotu zuenetik (beste hainbeste Gernikako bonbardaketaren egun beltzetik, noski). Urtemugak balio izan du, apal bada ere, artelanaren inguruko hainbat erakusketa, kontzertu, antzerki, koreografia eta bestelako ekimen antolatzeko: Donostiako San Telmo museoan, Jose Ramon Amondarainek zabaldu duen *Espazioari barrea* erakusketa izan da urteko azkenetakoa, esaterako. Eta balio izan du bereziki artelana Euskal Herrira ekartzeko eskari-sokari segida emateko. *Guernica* Gernikan egon behar duela esan dute hirurogei udalerrik baino gehiagok. Baita Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko Batzar Nagusiek ere. Eta Eusko Legebiltzarrak bat egin du eskaerarekin. Ñabardura batekin, baina, EH Bilduren ekimenari jeltzaleek proposatuta: *Guernica* Gernikan behin betiko izaterik ez bada, Bilboko museoaren batean behin-behinean behintzat erakusgai izan dadila. Eta hala onartu du Legebiltzarrak. Bada aldea 2006an, Gernikako bonbardaketaren 70. urteurrenaren atarian, Jaurlaritzak egindako eskariarekin. Zehaztapena garbia baitzen orduan: Picassoren koadroak Bilboko Guggenheimen egon behar zuela zioen Jaurlaritzak; ez Gernikan, ezta Bilboko «museoaren batean» ere. Euskadik etorkizunean izan nahi zuenaren sinboloa behar zuen horretan baizik.

Dagoeneko etorkizunekoa da Guggenheim museoa. Hogei urte bete ditu 2017an. Bisitari zifra festa betean, gainera. Zifrek betetako festan. Eta berak ere ezin eskariari muzin egin hain urte borobilean. Museoaren ospakizunen harira, hala erantzun zien Vidartek kazetariei urte hauetan lortu gabekoez galdetuta:

Hogei urteotan bete ez den ametsetako bat, eta datozenetan ere beteko ote den ez dakidana, baina niretzat ametsa izaten jarraitzen duena, zera da: uneren batean museoak Picassoren *Guernica* erakutsiko duela (Pazos 2016).

Guernica nahi du Vidartek Guggenheimen, ametsa du oraindik. Baina, bestelakoa dirudi orain ametsak, bai behintzat kazetariei ondoren emandako azalpenen arabera: Picassoren inguruko behin-behineko erakusketa handi baten baitan ikusi nahi du mihisea, «XX. mendeko artista erreferentziala denari eskainitakoan», non eta «Europako erreferente» bihurtu den museoan. Picasso, Europa. Horra *Guernica*-ri eskaini dion urrezko markoa.

Baliteke artelana gurera ekartzeko argumentazio joko hutsa izatea Vidarterena, zergatik ez. Seguru aski errazagoa delako Reina Sofíakoak xamurtzea Picassoren erakusketa *unibertsalaren* argumentuarekin, Euskal Herriaren etorkizunaren irudikapenaren arrazoiketarekin baino. Baina, trikimailua dela onartuta ere, badirudi argumentu horiek ere xamurtu dutela Vidarte bera. Bere dituela. *Guernica* Picasso delako eta Guggenheim Europa, horregatik merezi baitu artelanak Guggenheimen egoteak. Besteen begietan handi aitortutakoak direlako arrazoi; homologagarri, alegia. Ez, ordea, Vidartek hasieran esan bezala, etorkizuna irudikatzeko duen gaitasunagatik.

Eta baliteke horregatik ere *Guernica* Gernikara ekartzen eskatzen jarraitzea, edo «Bilboko museoren batera», behintzat. Gernikako sarraskiaren irudiarentzat ez baita aski *sakratuegi*, ez da kapera Guggenheimeko hirugarren solairuko aretoa. Europako erreferente bihurtu den museoak ez duelako irudikatzen gure gaurkoa, gure etorkizuna. Ez gure begietatik. Nola ba. Hogei urte hauetan euskal artisten obra apur batzuk besterik ez baitira erakutsi Bilboko Guggenheim museoan: Eduardo Txillida eta Jorge Oteizaren ondotik, 2017an Pello Irazuri eskaini dizkie bakarkako erakusketak; lan bakarreko erakusketatxoetan aritu dira Koldobika Jauregi, Aitor Ortiz eta Jesus Mari Lazkano; eta kolektiboki Cristina

Hogei urteotan euskal
artisten obra apur batzuk
besterik ez dira erakutsi
Guggenheim museoan.
Bestelako helburuak
dituelako orain museoak,
irudiz. Gure etorkizuna
gure begietatik
irudikatzea baino

Iglesias, Iñaki Garmendia, Erlea Maneros eta Xabier Salaberria. Oihartzun eskaseko *Egin berri* ekimena ere tartean (Manterola 2017: 33). Hogei urteotan. Gureaz, beraz, apenas. Bestelako helburuak dituelako orain museoak, irudiz. Gure etorkizuna gure begietatik irudikatzea baino. Baina, *Guernica* gutaz hitz egiten duelako nahi dugu gurean. Koadroaren balio artistikoaz haratago, Euskal Herriko gertaera mingarriaren sinbolo delako. Ez Picassoz, ez Europaz jarduten duelako. Eta gutaz hitz egiten duen lekuan egon

behar du horregatik *Guernica*-k, kapera xumea izanagatik ere. Lekuak osatuko duelako ikurra. *Guernica* orduan izango delako guretzat Gernika.

Errepresentazioa: sasiak zapaltzeko

Guggenheimen itzala ia atariraino iristen zaio Bilboko *beste* museo horri. Arte Ederren museoari. Metro gutxi batzuk besterik ez daude bi eraikinen artean. Nahikoak amildegiko oso bat irudikatzen. «Museoak gizartearekin eta gertuko komunitatearekin harreman estua izan behar du». Marraztu du muga Miguel Zugazak, Bilboko Arte Ederren museoaren zuzendaritza hartu berriaren. Madrilgo El Pradoren joateko orain hamabost urte utzi zuen bulegora itzuli da. Ez polemikatik salbu, hori ere. Arte Zentroen Praktika Onen Kodeak lehiaketa publikoz zuzendaritza izendatzea hobetsi arren, zuzenean aukeratu zutelako Zugazak museoaren arduradunak. Eta itzuli bezain pronto zehaztu du Zugazak etxeartea. «Ez diot uko egingo harreman hori estutzeari», gaineratu du. Museoaren etorkizuneko norabidea «denon artean» egin

beharrekoa dela uste baitu, kultur eragile eta artistekin batera, dio. Bisitari zifrak baino, bestelako helburu kualitati-boat dituela (Astiz 2017). Hitzak hitz dira, bistan da; bere izendapenaren haserreak itzaltzeko egokiak, baliteke. Edo albokoarengandik bereiztu beharrez esandakoak. Baina, hitz horiei soilik erreparatuz, balio dute bi museoen arteko alde zirriborratzeko: Guggenheimek etorkizuna zein izango den irudikatzen balio behar bazuen, irudikatutako etorkizunak gidatu behar du Arte Ederretakoa. Bata etorkizuna bideratzeko irudi, bestea irudikatzen den etorkizunaren isla. Norbere itzalaz. Norbere begiradaz.

Begirada hori ere baduela, harreman hori ere nahi duela adierazteko kolpe ikusgarria ematen ahalegindu da Calixto Bieito, Bilboko Arriaga antzokiko zuzendari artistikoa. Bernardo Atxagaren *Obabakoak* aukeratu du Arriagarekin egin duen aurreneko ekoizpenerako. Euskal literaturako obra sakratuetan sakratu. Gure iruditerian –zati batean, behintzat– oinarritutako eleberria. Kanpoan nahiz etxean aitortua. Onespena jasotzeko apustu ziurra, beraz, baina ez horregatik erraza. Bieitok berak egokitu du testua (gaztelerazkotik, euskaraz ez baitaki). Berak ere zuzendu du antzezlan. Euskaraz eta gazteleraz. Eta hedabideen aurrean Atxagaren lana loretan apaindu ostean, eskaini dio Arriagako plaza. Kaperatxo hori. Handi eskaini ere, Bieitoren moldean: 11 euskal aktore taula gainean; oihalaren gibelaldean Europatik propio ekarritako bost laguneko talde artistikoa; pantaila mugikorrez osatutako eszenografia; bi orduko etenik gabeko ahozko kontakizuna; ekoizpen lirikoaren adinako aurrekontua; inoiz gutxitan lorzen den aurre harrabotsa. Ikusmina.

Besaulkietatik begiratuta, baina, eskertzekoa bezain deitoragarria izan da ahalegina. Bieitoren kolpeak inor gutxi ase-bete baitu. Eskertzekoa izan da, esaterako, euskarari eman dion lehentasuna. Estreinaldiaz gaindi, beste hiru egunetan programatu zelako euskaraz *Obabakoak*. Asteburua barne. Helduentzako euskarazko antzerki eskaintzan ezohikoa dena Arriagan. Eta euskaraz ere entzun eta ikusi zen, non

eta Bartzelonako Teatre Lliure antzokian. Gaztelerazko estreinaldia baino arinago. Ezohikoa izanagatik ere, aitzitik, Bilboko antzokiko arduradunek *naturaltasunez* hartu zuten Bieitoren erabakia. Bieito baita. «Iaz [2016an] Arriaga antzokiko zuzendari artistiko izendatu genuenean, argi esan nizuen gizon argia, ausarta eta lorratz sakona uzten duten horietakoa dela», zioen aurkezpenean Juan Mari Aburto Bilboko alkateak. «Eta proiektu berezi eta handi honekin, Atxagaren antzerkirako egokitzapenarekin, Bieitoren gan ezarriak genituen aurreikuspen guztiak gainditu direla aitortu behar dizuet» (*Bilbao.eus* 2017). Estreinaldiaren aurretik esandakoak dira. Domina paparrean paratu nahi duenaren gogoz. Eta aurretiazko harrotasun hori deigarria da, zinez. Besaulkian esertzen dena asaldatzeko adina. Agerian uzten duelako Arriagako arduradunen begirada, posizioa: Calixto Bieito Europa baita Aburtorentzat. Hango antzoki ezagunetan txalotutako zuzendaria denez, Bilbora ekarri nahi izan duten Guggenheima, eta erreferente delako goraiatu du, itsuan. Estreinaldiaren aurretik. Gure literatur obra ezagunenetako bat *berak* aukeratu duelako pozik. Naturaltasunez onartuz euskarararen lehentasuna, nabaritu ez dadin. Banago. Han erreferente denak badio, txalotu behar delako.

Estreinaldiaren ondoren, ordea, txalo gutxi patioan. Ez bada aktore batzuen lana goraiatzeko. Bieitok, beste lan laudagarri asko egin baditu ere, oraingoan ez duelako asmatu. Ez zuzentzen, eta are gutxiago egokitzapena egiten. Astun, hotz, urrun eta errepikakor aritu da. Testu txatalak trakets josiz. Aktoreek testua ahozkotasunera eramateko zailtasunak izateraino. Atxagaren trebeziatik urrun. Eta a ze traba besaulkietan zeudenentzat. «Atxagaren maisulanaren aurrean Bieitok hartu duen bidea ezin izan da zapalagoa izan. [...] Kontua da proposamena kontakizunaren literaltasunean geratu dela». Agus Perezen *Berria*-ko kritikak jasotzen du giroa (Perez 2017). Inork gutxik ikusi baitzuen *Obaba* taula gainean. Ezta beste *Obaba* bat ere, bederen. Eta hori da damugarria. Obra gai izan delako aurreneko aldiz-edo

euskarazko ekoizpenetara gutxitan joaten diren ikusleak erakartzeko. Datuek hori diote: Bilboko bost emanaldietan 3.879 ikusle izan ziren. 750 ikusle inguru saioko, batez beste. Euskarazko antzezlan batek Arriagan jaso ohi dituen kopuruetatik oso gora, antzokiko arduradunen hitzetan. Erakartzeko elementu guztiak baitzituen Bieitoren egokitzapenak. Erakargarri izateko elementu guztiak eman zizkieten: *Obabakoak* antzezlanaren zen errepresentatu beharrekoa, gure ikurretako bat. Noren eta Bieitoren eskuetan, alde aurretik aurreikuspenak betetzeko gai izan denaren eskuetan. Non eta Arriaga antzokian. Noiz eta ostegunetik igandera. Obra 'onen', *ergo*, erdarazkoen pare. Hedabideen demasako oihartzunarekin, gainera. Baina, urrutiko intxaurrak hamalau, gerturatu eta lau. Paper politez apaindutako *opari* kaskarra jaso du ikusleak oholtzatik. Beretik ezer ez duena. *Obabatik* deus ez. Antzerkirako eman gabe. Eta hori izango du eredutzat euskarazko antzerkita gutxitan gerturatzen den horrek. Lan hori izango baita askorentzat halako moldez ikusiko duten euskarazko antzezlan bakana.

Hemengoek bezala, kanpo-koek ere hori jaso dute, gainera. Hori eman diegu. Bieito-Arriaga-Atxaga homologazioaren zigilua duelako izan da antzezlanaren euskaraz Bartzelonan, bitan da. Batez ere Bieitorenagatik. Eta 2018an euskaraz ere ikusiko da Alemaniako antzokiren batean, Arriagak ziurtatu duenez. Hori ere bada tristea. Euskarazko antzerkiaren enbaxadore bihurtu delako orain *Obabakoak*. Gure iruditeriaren zati baten, behintzat erakusle. Alegia, Bieitoren *Obabakoak* da orain euskal antzerkiaren ordezkari. Eta ez dira gutxi ordezkatu beharrekoak. Hogeia obra baino gehiago ekoizten

Inork gutxik ikusi zuen
Obaba taula gainean.
Ezta beste *Obaba* bat
ere, bederen. Eta hori
da damugarria. Obra gai
izan delako aurreneko
aldiz-edo euskarazko
ekoizpenetara gutxitan
joaten diren ikusleak
erakartzeko

baitira euskaraz urtero, Agus Perez eta Lali Marimoren artxi-bategiko azken urteotako datuen arabera. Formatu oso anitzekoak. Eta horietatik inork gutxik du Kataluniatik Alemaniara jauzika ibiltzeko aukerarik, are gutxiago baliabiderik. Babesik gabe, zigilurik gabe, nekez. Euskal Herrian bertan ez baitute halako aterperik jasotzen. Itzul gaitezen Arriagara. Asteburuak besteentzako dira, esaterako. Hona adibidea: 2017an antzokietatik periploa bukatu eta 14.000 ikusle izan dituen *Francoren bilobari gutuna* antzezlan ostegunez estreinatu zen Arriagan, emanaldi bakarrarekin. Bieitoren ekoizpenak bideko sasiak garbitzeko balio izan du, plaza horretan behinik behin. Baina, ez da aski. Laharrak bazterreratzeko bidea zapaltzen jarraitu behar baita. Arriagan bezala, gainerako museo, antzoki, paper, areto eta agertokietan. Bide berriak zabaltzeko. Gure burua irudikatzen eta errepresentatzen. Izan elkarlanean, izan gure kabuz. Arazoa ez baita Bieito bera, hau da, elkarlanean aritzea. Bestearekin dugun harremantzeko modua baizik. Gure burua bestearengan ikusteko eta agertzeko era.

Nazioarteko koreografoekin lan egiten dugunean, bateratze horretan, hainbat agertokitan jarri dugu euskara, eta gure nortasunaren parte bat, oso forma eta estetika ezberdinean.

Kukai dantza taldeko Jon Maya koreografo eta dantzariaren hitzak dira (Tubia 2017). Marc Morau edo Cesc Gelabert koreografoekin egin du lan Kukaik, euren kasa besteetan. Iruditeria dantzatzen, sortzen. Euskaraz, dio Mayak. *Oskara* ikuskizun saritua da horren adibidea. «Norberaren izaera alboratu gabe, uste dut elkarrekin [Marc Moraurekin] lortu dugula unibertso berri bat sortzea». Bide berri bat zabaltzea, alegia. Alboratu gabe, guretik ere. Gustuko edo ez, baina etorkizun bat irudikatzen. «Ikuskizunaren momentu batean galdera hori egiten baita: nor naiz ni» (*Uztarria* 2017). Berpentsatzea baita errepresentatzea. Gure burua irudikatzeak dakarrelako gure buruaz pentsatzea. Eta nor garen galde-tuz, nor izango garen erabakitzea. Nolakotasunez mintzatzeari da. Gutasunetik, gutasunez. Besteekin hartu-emanen.

Errepresentatzea identitatea eraikitzea baita, azken batean (Hall 2003). Eta iruditeria da horretarako gaia. Izan nahi duguna pentsatzeko jokalekua. Kapera. «Dantzatzen duen herria ez da inoiz hilko», oihukatu zuen Mayak *Oskara*-gatik jasotako hiru Max sarietako bat eskuratzean. Besoa tente, saria gora zuela. Eta bada argigarria. Deigarria, nahi bada. Orain 80 urteko Gernikatik urratsak eman ahal izan zituztenak izan zituelako gogoan aldarrian. Etorkizunean izan nahi genuen hori izatea duelako orain amets. 🍷

Bibliografia

- Astiz, I. (2017): 'Zugaza: «Eragileekin erabakiko dugu Arte Ederren Museorako estrategia»', *Berria*, 2017-03-21, 28. or.
- Bilbao.eus* (2017): 'Calixto Bieitok Bernardo Atxagaren Obabakoak zuzenduko du, eleberriko unibertsoa eszenara eramango duen konposizio poetiko, bisual eta fisikoa', *Bilbao.eus*, 2017-10-10 (http://bilbao.net/cs/Satellite?c=BIO_Noticia_FA&cid=1279171797953&language=eu&pageid=3000075248&pagename=Bilbaonet%2FBIO_Noticia_FA%2FBIO_Noticia).
- Hall, S. (2003): *Cuestiones de identidad cultural*, Buenos Aires: Amorrortu.
- Manterola, I. (2017): 'Hogei urte pasatu ondoren', *Berria*, 2017-05-02, 33. or.
- Pazos, P. (2016): 'El director del Guggenheim Bilbao: «Exponer el Guernica es un sueño, una asignatura pendiente»', *ABC*, 2016-05-06 (www.abc.es/cultura/arte/abci-director-guggenheim-bilbao-exponer-guernica-sueno-asignatura-pendiente-201605061151_noticia.html).
- Perez, A. (2017): 'Hamaika hitz eta bat gehiago', *Berria*, 2017-10-21, 28. or.
- Tubia, I. (2017): 'Zokotik ari dira dantzan', *Berria*, 2017-09-10, 4. or.
- Uztarria* (2017-12-13): 'Jon Maya: «Gaur egungo gizartean kulturak duen paperaz gogoeta egiten du 'Oskara' ikuskizunak»', *Uztarria*, 2017-12-13 (<http://uztarria.eus/komunitatea/Sanagustinkulturgunea/1513098559>).
- Van Hensbergen, G. (2004): *Guernica. La historia de un icono del siglo XX*, Bartzelona: Debate, 2017.

Zuloaren luizia

Transmisioaren azkura errea

Eten barik berez errez eta ernez doan basoa da denbora. Hala erori dira 2017aren hamabi orriak, bere albiste, argazki, agur eta memoria puskekin. Azken orria ertz batetik zintzilik, horixe urteari betiko agortzeko geratzen zaiona. Eta sasoiak behartuta, atzera begirako egunotan otu zait: non utzi digu hazteko tarterik aurten bizi izandakoak, urte berriaren abiapuntura heltzen garenerako?

Birbobinatzen hasita, Euskal Kulturgintzaren Transmisioaren (EKT) graduondokoan aritu naiz aurten. Eta apunteetan eskuak sorbaldetaraino sartu ditut urteko kultur kronika honi ekiteko. Irakasleena itxuratu zuten bertan, besteak beste, Joseba Zulaikak, Iban Ayestak, Gema Lasartek, Ainhoa Agirreazaldegik, Michel Ducauk, Ibai Iztuetak, Gorka Urbizuk, Edu Apodakak, Mursegok, Benito Lertxundik, Ana Gandarak, Oier Araolazak, Joseba Tapiak, Castillo Suarezek, Eneko Bidegainek, Izaro Arroidak, Itxaro Bordak, Ane Albi-suk, Xabier Alkortak, Itziar Nogerasek, Lorea Agirrek, Joxe Angel Irigaraik.

Eta nik belaki bat itxuratu nuen. Jakin-minak duena. Batzuetan luizia nola datorkit gainera ez dakidan hori dena, hortik idazten ditut lerrook orain: transmisioaren zuloaz jabetuta, zuloaz ohartu ahala handituz doanaren nolabaiteko

gorputzaldian. Hala sentiarazi nau graduondokoak behintzat: zulo horrek zaugarri egin nau herri eta hiztun komunitate baten barruan, manipulagarri komunitate horretako batailatxoan aurrean, eta, batez ere, hiztun komunitatearen gainean esertzen diren letra larriko botereen aurrean.

Esan nahi nuen.

Urteko argazki simple bat. 2017 honen erdia Leioako fakultatean eman dut. Kurtso bukaera aldera, *Isturitzetik Tolosan barru* eskutan, Ez Dok Amairu aipatu zuen irakasle batek, eta, nire zaplaztekorako, arrastorik batere ez klaseki-deek –kazetaritza, laugarren maila, euskarazko adarra–. Esan barik doa, ez diet errurik botatzen haiei –erantzukizuna dutenek izango dute izen eta abizen, halere–. Niri ere gertatzen zait, eta azkura gogaikarri bat eragiten du: *Ez duzu inoiz entzun? Ez dakizu nor den? Ez duzu ezagutzen?* Eta ezezkoa eman behar, gehienetan lasai, gehienetan azala erre arteko azkuraz. Horrela, hilberrien albistetan ezagutu ditut as-

ko aurten ere. Gertatzen zait, oraindik maiz samar. Marijane Minaberi da bat. Piarres Xarriton beste bat.

Esan digute, eta performatu dugu, gure garaia likidoa dela –bidenabar, aurten zendu den Zygmunt Bauman ekarrita–, lur hartzeko egiak diluitu direla eta hor gabiltzala, norabide batean igerian baino, hor, ur gainean gorputzei eusten. Gure belaunaldiarentzat zerbaiten kontra eta beste baten alde paratzea nekezagoa dela

sinatzen hasita nengoen, baina, ziur asko, gero eta gutxiago hori ere. Akordatzen naiz kultur belaunaldi bakoitza eztabaidatzen hutsetik hastearen desgrazia aipatu zuela Lorea Agirrek.

Transmisioaren
zuloak zaugarri egin
nau herri eta hiztun
komunitate baten
barruan, manipulagarri
komunitate horretako
batailatxoan eta hiztun
komunitatearen gainean
esertzen diren letra
larriko botereen aurrean

Eta akordatzen naiz «gu jaio baino askoz lehenago-koak gara» idatzi zuela Paul Beitiak abuztuan, *Berria*-ko *Gaurgero* udatarrean. Transmisioaren gure katebegiaren bila nabilenetan, oihartzun erre bat egiten didate kaskezurrean hitzok.

Memoria orbanak

Gernikaren erre usaina sartu zitzaigun etxean apirilean. 80 urte bete ziren hilaren 26an herria kiskali zutenetik. Beste hainbeste ekainaren 25ean Lauaxeta fusilatu zutenetik, Gasteizko Santa Isabel hilerriko paretaren kontra. Bizi gabeko efemerideen memoria orbanak.

Hona aurtengo beste bi urtemuga. Bata: Guggenheim museoari 20 kandela isiotu dizkiote –urte pare bat lehenago baino ez ninduten ni mundura ekarri, ez du inporta, ezpada nire memoriaren neurrira gerturatzeko–. Eta bestea: Bernardo Atxagak, Manu Ertzillak, Joxemari Iturraldek, Jon Juaristik, Ruper Ordorikak eta Joseba Sarrionandiak Pott banda sortu zutela 40 urte bete dira; Guggenheimek halako bi.

Bilbo mapan kokatzeko manerak biak. Euskal literatura munduko literaturan kokatu zuen Pottek. Euskal artea ez dirudi munduko artean kokatu duenik Guggenheimek. Are, Xabier Gantzarainek ‘Artea da gutxienekoa’ artikuluan esan zuena ikusita: «Euskal Herriko artistak munduko bihurtu beharrean hemengo bihurtzen ditu, hemengoak direlako erakusten baititu».

Sakoneko ertzak ertz, agerikoa da bietako zer ereduren aldeko apustua egiten duten agintariak. Begiratu bestela titularra: «BECek hartuko du Europako MTV sarien 25. urteurren jaialdia». Datorren urtean izango da, eta mundu osoko 500 milioi ikusleren aurrean hiria eta Euskal Herria munduan ezagutarazteko aukera izango da Bilboko alkatearen ustetan. «Zer-nolako herria garen eta zer-nolako pertsonak garen jakiten dutenean, benetan liluratuta geratzen dira, eta errepikatu eta errepikatu egiten dute», adierazi zien kazetariei.

Literaturara eta memoriara hurbildu naizenez, zer esana eman badu aurten literatur lan batek, hori Fernando Arambururen *Patria* izan da. Euskal gatazka lez ezagutzen duguna hartu eta *Great American Novel* bat idazten saiatu da. Idatzi du, zenbaiten ustez.

Sarrionandiak memoriaz testu zorrotz eder bat igorri zuen Karibetik Aretxabaletara, EKTra. Ideia argigarriak zetozen; memoria ez dela iragana, ezpada oraina, ezpada izatea, ezpada identitatea. *Patria*-ra etorrita, eleberriaren egilea «*ABC, El País* eta *El Diario Vasco*-n berritzen den memoria kolektiboko bozeramailetzat» kokatzen zuen idazleak; hor kokatu ere Euskal Herriko ehunka etxetara iritsi den haren kontakizuna. Memoria kolektiboaren marko sozialtzat hartuta literatura, eta Arambururena ez den beste marko batekoa sentiturik bera, haren errelatua gezur hutsa iruditzen zaiola zioen. Baina benetakoa izan edo ez, batzuentzat sinesgarria da, eta hori onartu behar dela ere bazioen. Bada, egiaz, ni arduratu nau ikustek gertuko zenbaitek zein erraz irentsi duten, fikzioaren inbututik, irabazle eta galtzaileen argazkia, bere apaingarri denekin.

Garai bertsuan, Siri Hustvedt idazlea izan zen Bilboko Azkuna Zentroan. Fikzioa idaztea inoiz gertatu ez zena gogoratzea dela aipatu zuen hark; eta, hala, gogoratzen dena emozio batzuk direla, autobiografikoak ez, memoria kolektibo batean dauden emozioak baizik.

Kulturizidioa

Maialen Berasategiren *Berria*-ko *Hirudia*-n aurkitu nuen estreinako izendapena. *Sautrela*-ren lepamozteaz mintzo zen bera. Baina berdin balio zezakeen adierazteko lepamozte horrek adierazten dituen lepamozte guztiak. Alegia, har daitekeela Euskal Telebistako kultur saio umezurtzaren agurra kulturak bizi duen mehetze kronikoaren sintomatzat.

Ez ei da ezer berria. Dominique Burukoa Baionako Antzoki Nazionaleko zuzendariak egin zuen adierazpena urrian: «Ez dago aski kalitaterik euskarazko ikuskizunetan». Aski

ezagutzen ez duela leporatu dakioke, ziur aski, euskalgintzatik nahiko aparte mugituko denari, baina gordinagoa hala uste duen euskaldun jendearena iruditzen zait. Ez baitira gutxi, oraindik gaur, euskarazko kultur ekoizpena bigarren mailakotzat jotzen duten euskaldunak. Hori da gure tragedia, iruditzen zait. Aitor Arregi eta Jon Garañok zuzendutako *Handia* aipatuta galdetu zidatenean bezala: «Benetan gustatu zaizu ala euskaraz delako diozu?». Burukoaren eta, demagun, nire goiko bizilaguna izan daitekeen horren artean bada lotzen dituen hari bat, eta, nire uste herrenean, zera da: estatu propiodun kultura baten tradizio falta. Edo ahotan handiegi sentitzen ditudan hitzen atzeko hori.

Ez dira gutxi, oraindik gaur, euskarazko kultur ekoizpena bigarren mailakotzat jotzen duten euskaldunak. Hori da gure tragedia

Aurrekoan herriko batek esandakoa etorri zait gogorra. Arkitekturaz ari zen, baina balio lezake: «Agian *kursi* geratuko zait, baina funtsezkoa zer da ba; zerbait maitatzeko ezagutu egin behar da». Herriko iturri zaharrak eta ondare balio altuko etxeak eraistez ari zen, tokian tokiko harriak eta zuhaitzak ezagutu eta jakintza hori zabaltzearen premiaz. Hain justu, arkitekturak bienala estreinatu du aurten Donostian, eta mesfidati idatzi zuen ekimenaren inguruan Ismael Manterolak, ondarearen zaintza falta aipatuz berak ere. Bat nator, Donostian euskal idazleak erdarazko aulkietan esertzeak ez duela asko laguntzen. Goibelagoa Manterolaren errematea: «Euskoguary honetan bizitzea gero eta zailago egiten ari zait niri».

Katalanen arriskualdia

Kataluniak bete dizkigu azalak eta bazkalondoak urtearen azken herrenean, ez da gutxiagorako izaten ari. Anjel Lertxundiren hitz hauek moztu nituen egunkaritik:

«Epe jakin batean etorkizun beltza eta segurtasunik gabea izango dutela jakinagatik ere, aurrera egin nahi dute gizarte lasaia, hedonista, aberatsa, segurua atzean uzteko arrisku guztiarekin». Iruditzen zait ez dela debaldekoa *arrisku* hitza. Hori baita kontua, esango nuke. Hori eta herri gisa etxeko lan asko eginak izatea.

Eskandaluaren neurriaz sumindurik, Donostiako Tabakalera aurreko plazatxoa hartu zuten hainbat kulturgilek, gaudetik goizera hartu ere, ekitaldi xumean xumerik bada. Agerian jarri zuten «demokraziaren aldeko iraultza» katalanez egiten ari direla, eta ez da pasatzen uztekoa. EKTko apunteen hasieran daukadan Joxe Azurmendiren aipu bati lotu diot, zeinak dioen Euskal Herri atomizatuaren aurrean kulturgintzak esan lezakeela soilik nazioa non bildu. Komunitate horren egintza dela kulturgintza. Eta hor sartzan dela hizkuntza. Esan nahi baita, hor sartzeko giltza dela hizkuntza. Bide horretatik, nire apunteen hondarretan, Irigaraik dio transmisioaz ari garenean ez dagoela euskara jokoan, ez dagoela herria jokoan, gure bizitza bera baizik. Uste dut ari naizela horren dimentsiora hurbiltzen luiziaren azpitik, bere itolarri, edertasun eta urgentzian.

Hala, Jose Luis Otamendik Tabakalera aurreko ekimenera ekarritako poema-lerroekin itxiko dut urteko erreposoa, ilunegi aritu banaiz, bihotzok hauspotzeko.

Iritsi da orain hau / hau da gure aldia / hauxe da gaur daukagun
orain bakarra / egin dezagun gure gogoeta zintzoenaren promesa /
egin dezagun gure ahalegin kezkatuenaren promesa / ez daukagu
hondarrekoz galtzeko beldurrik / ez dugu irabazteko beldurrik /
hemen norbaitek noizbait zerbait irabaz dezan / premia gorria
baizik / gaur da gaur guztietan gaurkoena / orain da orain guztie-
tan orainena / iritsi da gure gaurko eguna / iritsi da gure gaurko
aldia / eta hala ere adiskideok / hala ere / iritsiko da eguna! 🍷

Dena ez omen da txapelketa

Baina 2017an apenas entzun dugun beste konturik. Batzuek esango dute hori irailean hasi zela, baina urte osoko matraka izan da. Urte honetan plazan ibili denak, eta batez ere udaran, usaindu ahal izan du 2017a txapelketa urtea izan dela. Gaietan behin eta berriz errepikatu da txapelketarena; aurreko finalistek egungo ia-finalistek bezala aritu behar izan dute sarri plazan; beste batzuek, txapelketarako grina azaldu, eta, beste batzuek, txapelketa utzi izana defendatu.

Beste mila kontuz hitz egin nahiko nuke, beraz, dena, noski, ez baita txapelketa (edo hori diote bertsolariek horren inguruan galdetzen diegun bakoitzean); baina denok sumatzen dugu txapelketak lau urtetik behin duen garrantzia, denok atzeman pisua, eta denok jardun txapelketaz. Eta neu ez naiz gutxiago izango.

Kronikagilearen kronika

Udara amaiera. Estitxu Eizagirrenen deia. Ea *Argia*-rako Bertsolari Txapelketa Nagusiko kronikak egitera animatuko ote nintzen Kepa Matxainekin batera. Nola ez, bada? Bestela ere, bertsozalea izaki, eta 2017a txapelketaren zain igarotakoa izanda, luxu handi bat izango litzatekeela.

Eta jakin izan banu.

Beti pentsatu izan dut euskal kritikagintzaren hezur gorrena literatura zena. Ez dago apenas kritika txarrik, eta daudenak, esandakoa ulertu nahi izanez gero, lerro artean edo omisioz irakurtzen ikasi behar da.

Eta hara non bertso mundua. Bat-batean ari direla. Inor ez dela perfektua. Txapelketako presioa. Pertsona dagoela bertsolariaren atzean. Eta abar. Hirugarren kronikan jausi nintzen isilean. Ez zait gustatzen egurra ematen ari naizen sententzia. Denok ez dugu gauza denetarako balio.

Hala ere, gauza asko ikasten dira plazer hutsetik harago zerbaiti dedikazio profesional edo gertukoa egin behar diozunean, eta hau ez da gutxiago izan. Txapelketitis apur batekin, baina gozatu handiarekin itxiko dut urtea. Horra zorretan geratu zaizkidan hainbat gai.

Zer da, baina, Bertsolari Txapelketa Nagusia?

Uste orokorraren aurka, Bertsolari Txapelketa Nagusia ez da lau urtetik behin bertsolari onena nor den erabakitzeo ekitaldia. Hori ere erabakitzen da, noski, baina hori baino askoz gehiago da. Eta ez naiz emozio eta euskal kulturaren hauspotze eta indartzearenean sartuko, ez. Bertsolari Txapelketa Nagusian, nahi gabe ere, gauza askoz gehiago definitu eta erabakitzen dira, kolektibo zein instituzionaliki.

Kolektiboa mundu bertsozalea izango litzateke, publikoa, entzulea eta, zabaleran, mundu euskal kulturazalea. Instituzioa, aldiz, bertso-mundua. Antolakuntza. Hedabideak. Egitura. Epaileak. Gai-jartzaileak. Bertsolariak. Eta BTN kolektibo eta instituzio horien arteko negoziaketa ere bada.

Hala, *Argia*-rako idatzitako kronikan, halako zerbait esan nuen:

Erabakitzen baitugu, zer den kultura. Erabakitzen baitugu zer den euskaraz egitea edo nola egin behar litzatekeen. Erabakitzen eta finkatzen dugu, zein bertso-joera gailenduko den. Zer den bertsoan egitea. Zer den ederra, eta zer edertasun saiakera. Zein doinu den atsegina, eta beraz, zein doinuk biziraungo duen plazan, eta zeinek ez. Zein mundu ikuskera eskertzen den. Zerk eragiten dion Euskal Herriari eta zerk munduari. Zer moduz datozen neskak aurten. Zein diren egungo gai sozialak. Zer den poli-

tikoa eta zer ez. Zer den umorea eta zeri egin diezaiokegun barre eta zeri ez (nahiz barreak ihes egin). Zein puntutaraino onartuko dugun feminismoaren hau, edo non jarriko diogun muga. Zer den fikzioa eta zer norbere galbahetik kantatzea. Nork ordezkatzun gaituen kulturalki. Zein anitzak (ote) garen. Euskara zenbat maite (eta erabiltzen) dugun (eta behar genukeen). Transmisioan ondo gabiltzan edo ez. Epaileak objektibo izan daitezkeen edo ez. Zer ekarri erdigunera eta zer utzi atzean.

Eta, bide batez, zeinek egin duen hobekien BECen.

Fikzioa / ez fikzioa

Gai batzuen eztabaidek betierekoak bezain betirakoak dirudite sarri. Ordea, fikzio eta ez fikzioaren gaiak eman du zeresana aurten ere. Noiz ari da bertsolaria beretik? Zenbat bereiz daiteke bertsolaria bere jardunean, bertsolaria bere pertsonatik? Zein lizentzia hartu eta onartzen zaizkie?

Eztabaida honek, esango nuke, txapelketatik at ez du halako garrantzi berezirik. Plazan, bertsoaren araua bera auzitan jarri gabe, onartu egiten dugu fikzioa, autofikzioa edo metabertsolaritza. Txapelketan, ordea, beste kontu bat da.

Aurtengo bertsolari txapelketan izan da kasu bat edo beste bereziki gaia mahaigaineratu duena. Esaterako, Agin Laburuk, margolari baten paperetik ari zela, Jon Martinen maitasun deklarazioari «kamiseta horrekin esaten nuen, bai» [elastiko arrosa zeraman Martinek] batekin erantzun izana. Eta hor sortzen da eztabaida. Batetik, ea komentarioa bera homofobia den ala ez, eta, bestetik, hala bada, nor ari ote den kantuan, Laburu bera, ala margolari estereotipatua.

Horri lotuta, hala ere, artikulu interesgarriak plazaratu dira; esaterako, Harkaitz Canok mahaigaineratzen zigun eztabaida edo posibilitate hau:

Alzheimerra lukeen norbaiten larrutik abestuta bertsolariak poto egingo balu, ez duelako azken oinera iristerako lehena berbera erabili duenik oroitzen, zein argumentu luke epaimahaiak penalizaziorako?

Beraz, argi dagoena da ez dela aurtengo txapelketa izango eztabaida argituko duena, baina zeresan ugari utzi duela.

Forma vs edukia

Zer esan ala nola esan, hor omen dago koska. *Argia*-n kronikak egiteaz gain, ikus-entzunezko elkarrizketak egiteko zortea izan dut *Zautela* deitu dugun saioan. Hori gozatua bertsolariekin aurrez aurre eta patxadaz aritzea. Lehena izan zen Miren Artetxe, eta galdetu nion ea nola ikusten zuen orokorrean txapelketa, zein eztabaida nabarmenduko lukeen. Hark atera zuen lehendabizi:

Ikusten dut pugna bat balorazio horretan, ea teknikari huts-hutsean (edo dialektikari), lehengo kanon horri eman balio zentrala, edo diskurtsoari, beti ere teknika ahaztu gabe.

Agin Laburuk ere eutsi zion eztabaidari:

Uste dut ari garela jendea aspertu lezakeen bertso modu bat egiten. Ari gara teknikari garrantzi handia ematen (ziurrenik joko arauak hala diotelako), eta mezuari ez dakit noraino. Zuk mezua eta teknika dituzu, eta garrantzi handiagoa zeri ematen diozun arabera, jar dezakezu teknika mezuaren zerbitzura edo mezua teknikaren zerbitzura. Garai honetan esango nuke arriskua dagoela 'teknikak uzten didanaren arabera esango dut mezu bat edo beste' egitekoa.

Amets Arzallusek hala deskribatu zuen eztabaida:

Hain teknifikatua, bertsoaren inguruko hainbeste aldazio, ezen aldamioen atzekoa nekeza baitzen ikusten –exajeratuki esanda–. Eta nik uste dut pixka bat kontrako joera bai sentitzen dela, aldamioa pixka bat kendu, eta gehiago erakutsi barruan zer esan dezakeen bakoitzak edo gaiekiko ikuspegian, eta hori ildo interesgarria da.

Feminismoa edo genero-gaiak

Feminismoa, oro har, zerbaitek ezaugarritzen badu, bere deserosotasuna da. Feminismoa ez da jendarteratzeko gai erraza,

eta bertso mundua, beste edozein (euskal) kultur adierazpidedetan progresistenetzat daukagun hori ere, ez da salbuespena.

Onartu beharrekoa da gaietan sekulako eraldaketa egin dela genero ikuspegia txertatzeari dagokionez. Baina, norrentzako dira gaiak? Nola heltzea lortu dute? Nola bizi dute feminismoa bertsolariek? Entzuleek?

Esango nuke hainbatetan ikusi ditugula bertsolariak (batez ere gizonak) gaia entzun eta nondik hartu ezin, galduta eta akaso hanka sartzeko beldurrez. Bestalde, ikusi ditugu feminismitik edo genero ikuspegitik hitz egiteko genero-ikuspegia ardatzean zuen gairik behar izan ez dutenak (batez ere, emakumeak).

Hots, dena ez da gaia, baina distantzia abismala dago barneratua duten bertsolari batzuen eta usaindu ere egiten ez duten beste batzuen artean. Eta, noski, tartean, denetik dago.

Finala

Ordezkaritza vs Errepresentazioa

Argazkia. Azken argazkia ez dela apenas aldatu, eta *aibala*, denak zerura begira, ez baita inoren errua, baina hori omen da dagoena. Batzuek lasai egoteko, plazan jada eman dela erreleboa, denbora kontua dela. Beste batzuek, plazako erreleboa bera dudan jartzeaz gain, bi liga bereiztearen horretan jarri indarra.

Eta hemen eztabaida. Ez da inoren kulpaa, ez, baina demoniozko kristalezko sabai hori existitzen dela. Horrekin batera, kristalezko zoru bat ere atzeman da; hots, behin igota, norberak utzi ezean (aurrekoan Iturriagak eta aurten Sarriegi eta Elortzak egin bezala) ez dela inor erortzen. Aurten ere, aurreko finalista guztiak pasa dira BECera.

Beraz, arazoa omen da onenak hain onak direna, ezin dai-tekeela bertan emakume bat emakume izate hutsagatik sartu; eta, beraz, BECa betetzen duen azken argazkia begiratzin

badugu, onartzen diegu ordezkaritza izaera. Horiek ordezkatzan dute bertsolaritzaren onena, euskal kulturaren adierazpide handienetako bat. Ados.

Galdera da: plazak eta txapelketako lehen kanporaketak emakumez josita omen dauden honetan, ordezkatu bai, baina, errepresentatzen al du bertsolaritza eta bertso mundua argazki horrek?

Maialen Lujanbioren bertsokera

Lerro hauek idazten nabilen honetan, badakigu jada Maialen Lujanbio Zugasti dela 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko txapelduna. Ez dago jada ez dakigunik esaterik. Gauza bi botako ditut kolpean eta urtea itxi: sentsazioa dut Lujanbiok bi txapel irabazi behar izan dituela bakarra kontsolidatzeko. Hots, lehena emakume bertsolariarena izan zela, bigarrena, bertsolari onenarena. Eta Uxue Alberdik telebistan ahotsa errekuperatu zuenean esan bezala: «*eske onena da, Aitzol*».

Bestalde, bertsolaritza aroka, garaika eta berrikuntzaka neurtzeko joera dugun honetan, eta, beraz, norbanakoei egozten dizkiegunez *kantaera*, *berrikuntza*, *haustura* eta halako hitzak, gomendio bat oraindik horixe bera onartu ezin edo konturatu ezin dabilzanentzat: Maialen Lujanbioren bertsokera aroan gaude. Beraz, esan ezazue hiru aldiz ispilu aurrean ahots gora, eta zin dagizuet ez zaizuela ezer txarrik pasako, ez zuei, ez bertsolaritzari. 🍷





Ikasi al dituzu dancehall eta trap?

Alberto Irazuren *Rocka puntua!* (Pamiela) irakurtzen eman ditut testu hau idazten hasi aurreko asteak. Ez dira ugari musikari buruz euskaraz irakurtzeko izaten ditugun aukerak, eta are gutxiago euskal musikari buruzko liburuak. Halakoak irrikaz hartzen ditugu zaleok, are gehiago Irazurena bezalako lan mamitsuak direnean. Joxe Mari Iriondo gai-jartzaileak 1964an Uztapideri jarritako puntu batetik abiatuta –«ikasi al dituzu rock and roll eta twist»–, bertsolaritza eta rockaren arteko harremanaren bilakaera aztertu du Irazuk saiakera horretan. Dokumentazio lan handia eginez eta idazkera bizia erabiliz, rockaren eta bertsoaren arteko uztartzearen kronika ederra osatetik harago joan da egilea, hainbat gai zeharkako eta interesgarri ukitu ditu –alderdi performatiboarekin edota hizkuntzaren hautuarekin lotutakoak, besteak beste– eta ondorio bat atera du, liburua irakurtzeko asmoa duenaren gogoaz zapuztu gabe horrela laburbildu daitekeena: bertsoa rock musikan sartu da –guk uste baino lehenago sartu ere, Errobi eta Daniel Landarti aitortzen die Irazuk aitzindari-tza–, kantuak egiteko ohiko langai bihurtu da bertsoa –are, bertsolarien inguruan eratutako rock taldeak sortu dira–, eta, alderantziz ere, herri musikaren zenbait doinu bere egin dituzte bertsolariek bakarkako ariketan; baina, hala ere, Irazuren irudiko, bertsolaritzak ez du «barren-barrenetik» nahikoa esperimentatu rockaren doinu eta melodiekin. Aurrera begira ondo letorkioke bertsolaritzari, diosku kazetariak, «garaian garaiko doinu berriekin ez ezik haien erritmoekin jolasten» jarraitzea. «Artefaktu berriak datoz eta hobe sin-kronizatuta egotea».

Zein dira garaian garaiko doinu eta erritmo horiek? Edo beste era batera esanda, Iriondok Uztapideri jarritako puntua gaurko egunera ekarri beharko bagenu, zein lirateke rock and roll eta twisten 2017ko baliokideak? Zein hitz hauta lezake gai-jartzaileak, Iriondok Uztapide nola, bertsolaria estutasunean jartzeko? *Trap* izango litzateke horietako bat, zalantzarik gabe. 60ko hamarkadan Uztapideri twist bezain arrotz zaigu oraindik gehienoi AEBetako hegoaldean sortutako raparen azpigenero horren izena, baina Mendebaldean sekulako indarra hartu du azken urteetan, eta gurera ere iritsi da elektronika doinu grabaek eta hitz jario geldoa nahasten dituen soinu ilun eta trinko hori. Berori dugu, hain zuzen, euskarak okupatzen hasitako azken lurralde musikala.

Lehen euskarazko trap abestiak entzun ditugu iaz, Nizuri Tazuneri eta Gorpuzkingz taldeen eskutik. Fani eta Norzzone rap abeslariak osatzen dute Nizuri Tazuneri, eta *Musika ala hil* (Taupaka) lehen diskoarekin laudorioak baino ez dituzte jaso: «maisulana», «euskal diskorik modernoena», «azken urteotako euskal diskorik onena» eta horrelakoak irakurri ditugu sare sozialetan. Gorpuzkingz-ek beste estrategia bat du musikaren hedapenari dagokionez: kantuak sortu eta grabatu ahala Youtuben jartzen ditu, bideoklip formatuan. Irudia asko zaintzen du taldeak –kapela, betaurreko ilunak eta ahoa estaltzeko koadrodun zapiak janzten dituzte jendaurreko agerpenetan, anonimotasuna gordetze aldera–, eta ez dio diskoari etorkizunik ikusten. «Gazteek musika begietatik kontsumitzen dute gaur egun. Hemendik 10 urtera ez da diskorik egingo. Kulturalki oso atzeratuta gabilta Euskal Herrian», adierazi zuen taldekideetako batek, Zakil O’Nealek, Durangoko Azokaren barruan antolatutako mahai-inguru batean. Estetikarekin batera, umorea, ironia eta zirrikada dira taldearen izaera zedarritzen duten beste osagaietako batzuk. «Gu gara euskal kulturaren salbatzaileak».

Deigarriena, trap-a euskaraz egiten duten taldeak agertzea baino gehiago akaso, urtebete eskasean batak zein besteak lortu duten oihartzun eta harrera ona izan da. Nekez

imaginatu genezakeen duela ez asko horrelako proposamenak zuzenean ikusteko aukera izango zenik, esaterako, herrietako txosnetan. Zein da aldaketaren giltza?

Publikoa aldatu da

«Aldaketa publikoan gertatu da». Lerroburu hori atera zuen Gorka Erostarbe *Berria*-ko kazetariak Imanol Ubeda musikariarekin, Ion Andoni del Amo EHUko irakasle eta ikerlariarekin eta Leire Lopez Ziluaga kultur eragilearekin egindako mahai-ingurutik. Gizartea aldatzen ari den heinean, bogan dauden musika estiloak ere aldatzen dira eta Euskal Herriko sortzaileak ez daude joera horietatik kanpo. Garai bateko diskurtso eta formulek agortze sintomak erakusten dituzte, eta, mantsoki bada ere, beste estetika batzuk ari dira lekua irabazten zaleen artean. Azkue Fundazioak antolatzen duen Banden Lehiaren aurtengo emaitza izan liteke horren adibide: bederatzi urtean lehen aldiz rap abeslari batek irabazi du saria: Aneguriak. Euskara, emakumea eta rapa. Horra hor, seguruenik, Aneguria eta La Basuri esker besteak beste, gurean gertatzen ari den prozesu eraldatzaile sakonenaren hirukia.

Rockak gaur egungo gazteekin konektatzeko dituen zailtasunei buruzko mezuzak beritu dira iaz. Berri Txarrak taldeak berak –gurean gazteak erakartzeko gainbeheraren sintomarik inondik ere erakusten ez duen salbuespen gutxietako bat– rocka zuen buruan, besteak beste, disko berriari *Infrasoinuak* izenburua jartzerakoan. 60ko hamarkadan bertsolaritzak bizi zuenaren egoerarekiko paralelismoa egiten du Iruzuk bere liburuan:

Orain rockeroak dira kexu dabiltzanak, kontzertuetan ez dela apenas gazterik ikusten eta berrogei urteko jende saldoa dela nagusi. 60ko hamarkadako bertsolarien kexua transferitu da oraingo rock taldeetara, alegia, belaunaldi berriak beste nonbait dabiltzala, beren gauza nabarmenetan.

Juantxo Arakama Glaukoma taldeko abeslariak gordin bota zuen *Badok* atarian, eta bere hitzek azkura eragin zuten zenbait rockzaleren artean:

Nik gazteekin egiten dut lan eta ez dute ezer jakin nahi rock-and-rollarekin. Belaunaldi berriek ez dute rock-and-rolla entzuten ez euskaraz ez ingelesez. Reggaetoia, hip hopa, trapa, reggaea, dancehall-a... entzuten dute. Euren errealitatea gertuago ikusten dute musika horren bidez. Zalegoa badago eta badator, baina oraindik oso hasieran dago. Rock-and-rollak ez du berriz izango orain arte izan duen indarra.

Arakamaren hitzak baieztatzera letozke Leire Lopez Ziluegak aipatu mahai-inguruan esandakoak:

Ni trap kontzertuetan egon naiz azkenaldian, eta helduena neu izan naiz. Izugarria da zer-nolako jarraipena daukan nire ikasleen artean ere. Gauzak pasatzen ari dira gazteen artean, baina gure fokutik kanpo daude. Ez gara enteratzen.

Hainbat zepotatik libre

Egungo euskal musikaren erradiografia bat osatzeko artikulu sorta bat argitaratu zuen *Berria* egunkariak uztailen. Ez zen erraza azken hamarkadan sorkuntzan, produkzioan eta kontsumoan aldaketa nabarmenak ezagutu dituen eta izugarri dibertsifikatu eta atomizatu den sektore baten azterketan ordena jarri eta argitasuna ekartzea. Fokua bereziki sorkuntzan eta sortzaileengan jarri zuen euskarazko kazetak, eta hainbat adituren laguntzaz egungo musika eszena –edo eszenak– hobeto ulertzeko hainbat gako eman zizkigun.

Pare bat ideia nabarmenduko nituzke. Batetik, Ez Dok Amairu taldeak eta RRV mugimenduak gorpuztutakoen ostean, «euskal musika berriaren hirugarren baga» osatzen dute azken hamarkadan plazaratutako sortzaileek, Juan Gorostidi idazle eta musika ikerlearen arabera. Heziketa akademikoa (musika eskoletan, kontserbatorioan...) jaso izana litzateke belaunaldi horren ezaugarrietako bat. Gorostidik dioenez:

Musikariak itzuli dira pop musika egitera. Aurreko belaunaldien kasuan formakuntza faltak kasu gehienetan esan nahi zuena zen hizkuntza musikalaren ikuspuntu oso murrizta. Baga honetakoak musikaren unibertsoaren barnean daude kokatuak.

Horrekin lotuta legoke gaur egungo mundu globalizatuan erreferentzia eta iturri berriak ezagutu eta norbere sorkuntzara eramateko joera. Pantxix Bidart musikariaren hitzetan:

Ez Dok Amairukoek herri kultura eraiki nahi zuten, euskal estetika baten sortzeko. Gaurkoek euskal nortasun horretatik askatzeko beharra sentitu dute, euskal estetika hori herstura bat bezalakoa zaie batzuei, kultura zaharkitu baten isla. Gazteagoek erreferentzia aldaketa behar dute.

Aurrekoen motxilarik gabe, airosoago dabilta egungo sortzaileak. Oso modu grafikoan laburbildu zuen Gorostidik: «Musika hainbat zepotatik atera da, eta libreago dabil orain».

Hiru belaunaldi batera

42 urteko aldea dago Mixel Ducau eta Izaro Andresen artean. Errobirekin hasitako ibilbideari Bidaia taldean ematen ari zaio jarraipena lehenengoa; bigarrena, lehen diskoarekin iaz ahorik aho, eta oholtzarik oholtza, ibili den izenetako bat da. Gero eta handiagoa da Euskal Herriko musikarien arteko adin tartea. Lehen aldiz, hiru belaunaldi ari dira musika egiten, eta hori islatzen da estilo aniztasunean, diskurtsoen eta erreferente estetikoaren eraberritzean... Hori irudikatzen du Bilbo Hiria irratiak 20. urteurrena ospatzeko argitaratu duen disko kolektiboak (*20 urtez euskal taupada*), Anje Duhalderen *Ama Euskal Herria* abestiaren ondoan Hedoi Etxarte eta Maisha MCren *Soluzioa* trap doinu berri-berria entzun baitaiteke.

Inoizko eszenarik askotarikoena dugu gaur egun Euskal Herrian, eta horren ispilu izan da 2017ko disko ekoizpena. 150 lan inguru eta dozenatik gora single eta EP katalogatu

ditugu *Badok* atarian, eta ausartuko nintzateke esatera azken hamarkadako disko bildumarik erakargarriena kaleratu zela iaz. Hauek dira horrela pentsatzera eramán nauten arrazoietakó batzuk, baten bat ahazteko arriskuarekin: Joseba Irazózik eta Axiari aita-seeek Robbie Bashoren inguruan gauzatutako elkarlana (*Bas(h)óan*), Mursegok Oiongo herritarrekin garatutako proiektu soziokulturala (*100% Oion*), Aitor Etxebarriak *Markak* dokumentalerako sortutako musika, Audiencék Kuban grabaturiko *Isla*, Berri Txarrak-en une gozo iraunkorraren lagin berria (*Infrasoinuak*), Rafa Ruedak post-punk doinu dantzagarrietara egindako bira (*Hiri kristalezkoa*), Zazkelen dantza doinuek ekarritako haize freskoa (*Ez entzun*), Kaskezur taldearen 90eko hamarkadako rock eta noise doinuak (*Azpisugeak*), Balerdi Balerdiren sasoiko itzulera (*Galtzen ikasteko metodoa*), MICE, Libe edota Pelax rock bakarlaríen odol berria, *Oihaneko zühainak* Zuberoako kantu tradizionalen moldaketa elektríkoa (ez nahastu *Zuhainpeko soinuak* ikuskizunarekin), Bidehuts zigiluaren 10. urtemugako bilduma (*Mirailak*), Deloreanek Mikel Laboaren obraren gáinean egindako berrikuspen elektríko pertsonala...

Hainbat debut interesgarri ere izan dira –Paxkal Irigoien & Kontsumo Orkestra, Birkít, Eneritz Furyak, Falta, Oso Fan, Nogen, Eraul, Anita Parker, Abereh...–, eta klasíkoek ez dute huts egin. Lehenagotik bide berriak jorratzeko gaitasuna frogatua zuten ibilbide luzeko hainbat musikarik bertan goxo ez geratzeko kemenari eutsi diote. Horregatik ere txalogarriak dira Fermin Muguruzak *The Suicide of Western Culture* bikote elektríkoarekin egindako diskoa (*B-Map 1917+100*), Jabier Muguruzak gitarra elektríkoz eta elektrínikaz jantzitako *Leího bat zabalík*, Xabier Montoiak hari laukote batekin grabatutako *Gorraízea*, edo Joseba Tapiak *Besamotzak* diskoan bere bakarkako ibilbideko hainbat kanturen gáinean egindako rock berrikuspena.

Gure belarriek goxatua hartu dute, baiki. 🍷



Iratxe Retolaza

Hiruzpalau urtetik hona, hainbat molde eta jokamolde literario egonkortzen ari direlako irudipena dut. Literatur mapan berritasun zirenak joera bihurtzeko bidean egon gaitetzke: akaso agerpen iragankorrak dira, literatur maparen zutabeetan inolako pitzadura sakonik eragingo ez dutenak; akaso iraunkor egingo dira, eta, hala bada, logika literario berriak gailenduko dira etorkizunean. Ezbairik gabe, eraldaketarako giroa bada. Joera berri horien artean, izan badira interesgarri zaizkidan abaguneak, izan badira kezkarri zaizkidan gertakariak.

Argitalpen-sareak

Literaturaren kartografia egiterakoan neurgailu garrantzitsu dira argitalpen-plataformak: argitaletxeak, bildumak, aldizkariak... Literatura idatziaren esparruan, lehen urrats batean behinik behin, argitalpen-ekintzak erabakitzen du zer testu den literario. 1990eko hamarkadatik hona, argitaletxe literarioen logika gailendu izan da. Alegia, argitaletxe sendo batzuen politika literarioak izan dira nagusi (besteak beste, Alberdania, Elkar, Erein, Igela, Pamiela, Susa); aldizkako argitalpenek edo bestelako plataformek indar eta eragin txikiago izan dute irizpide literarioak edo joera literarioak zehazterakoan. Argitaletxe literarioen nagusitasun hori kolokan sumatzen dut, horrek ekar ditzakeen aukerekin zein arriskuekin.

Argitalpen-plataformak ugaritu egin dira 2011. urtetik hona, kopuruz zein moldez, eta etenik gabe, urterik urte gune berriak sortzen ari dira: joera nagusietatik at kokaturiko lanak argitaratzeko (Denonartean, 2011); itzulpenerako plaza

berriak (Pasazaite, 2012); korronte estetiko edo adierazpide literario jakinei loturiko ekimenak (EHAZEK sustaturiko bilduma, 2016; Balea zuria argitaletxea, 2017); ekimen politiko eta sozialei loturiko plataformak (Katakarak, 2016); autoekoizpenerako egitasmoek ere gora egin dute (*Lekore* aldizkaria, 2016; Txakur Gorria kolektiboa, 2016); eta abar. Joera horrek ere eragina izan du argitaletxe literarioen politiketan, bilduma berriak sortu dituztelako, logika propioak dituztenak (adibidez, Lisipe, Eskafandra).

Saretze horiek literatur mapan ur-azpiko korronteak sortu dituzte eta zoru literarioa dardarazi. Mapan zehar-lerroak eta trazu berriak marraztu dituzte, mugako espazioek indarra hartu:

Kolektibotasunaren trazua. Plataforma horietako batzuek, gainera, gorpuztu egin dute abian zen uhin literarioen bat edo uhin sozialen bat, izaera kolektiboa bazuena: poesia eta pentsamendua uztartzen dituen kolektiboak sustatu du Balea zuria argitaletxea (Aritz Gorrotxategi, Felipe Juaristi, Juan Ramon Makuso eta Pello Otxoteko); *Lekore* aldizkariak batik bat Itu Bandako kideen sorkuntzak plazaratu ditu; sormen kolektiboa dute oinarri Txakur Gorria kolektiboaren liburuxkek (esaterako, *Hizteria*, 2016; *Xixili*, 2017); antzerkizaleak saretzearen emaitza izan da EHAZEren bilduma; eta abar.

Bazterreko genero literarioen trazua. Kanonaz besteko genero literarioak ikusgarri egin dituzte gune berri horiek guztiek: batik bat poesia, antzerkia eta saiakera. Ez dituzte hainbeste hauspotu, beraz, kanonaren erdiguneko generoak (nobela, narrazioa).

Itzulpengintza literarioaren trazua. Itzulpen-ekimen horiei esker, literatura unibertsaleko obra gogoangarriez gain –Emily Brönte-ren *Gailur Ekaiztsuak* (Erein-Igela, 2017) edo Albert Camus-en *Arrotza* (Erein, 2017)–, baditugu irakurleon eskura ekarpen literario garaikide interesgarri askoak, euskal literaturan egun indar gutxi duten estetikak jorratu dituztenak: adibidez, Hassam Blasim-en *Kristo irakiarra* (Pasazaite, 2017) narrazio-bilduma, gerrako zauriak

eta biolentziak kontatzeko fantasia eta absurdoaren eremura hurbiltzen dena; edo Takiji Kobayashi-ren *Nagusia kanpoan da / 1928ko martxoaren 15a* (Katakarak, 2017), Japoniako literatura proletarioaren ikurretari bat.

Diziplinartekotasunaren trazua. Elkarguneak sortu dira beste diziplina artistiko batzuekin, batik batik ilustrazioaren eremuarekin, eta argitalpen-egitasmo horiei esker gero eta ikusgarriago dira liburu ilustratuak eta komikiak. Esparru horretan, gainera, literatur idatziaren eremu hertsian gutxi garaturiko estetikak eta tonuak jorratu dira: besteak beste, Julen Ribasek eta Eider Rodriguezek *Santa familia* (Xabiroi, 2017) komikian familia-egituren eta familia-harremanen inguruko gogoeta ironiko xehea egin dute; *Xixili* (Txakur Gorria, 2017) ikuskizun eta argitalpenak, histeriaren zirrikituetan barna garamatzana modu poetiko-lirikoan; edo Asisko Urmenetak *Eusklabo alaiak* (Gure Berriak, 2017) komikian herri-zapalkuntzaren inguruko satira politiko zorrotza egin du.

Trazu-korapilo horiek indartzen badira kultur esparrua sendotu daiteke, harreman-sareak ere tinkotuko direlako; baina tentuz ibili beharko dugu literatur esparruaren logika berezituari ere bide ematen segitzeko. Horretarako, funtsezkoa izango da literatur kritikak mugako espazio horiek interpretatzeko tresna berriak sortzea, gaur egun oraindik ere literatur kritikak zutabe nagusi batzuk dituelako oinarri (egilea, liburua, hitz idatzi soila, narratiba).

Pentsamenduaren gorpuzteak

Pentsamenduaren kultura hauspotu da azken urteotan kulturaren (eta oro har, gizartean); eta mugimendu sozial zein politikoetan gogoeta-guneak areagotu dira, ekintza-guneen kalteetan zenbait kasutan. Pentsamendu-giro horri esker saiakerak gora egin du, argitalpen-kopuruan, irakurle kopuruan, oihartzun mediatikoan. Itzulpen-jardunean ere, gero eta saiakera

gehiago euskaratzen dira, batik bat pentsamendu feministaren esparruan: adibidez, Monique Wittig-en *Pentsamendu heterozuzena* (Lisipe-Susa, 2017), eta Silvia Federici-ren *Caliban eta sorgina. Emakumeak, gorputza eta metatze primitiboa* (Eskafandra-Elkar-Jakin, 2017) eta *Soldataren patriarkatua. Marxismoari egindako kritika feministak* (Katakarak, 2017).

Poztekoa da gogoetarako plaza indartu izana. Nolanahi ere, literaturaren ikuspegitik arrisku zenbait ekarri ditu joera horrek, pentsamendu teorikoak hartu baitu aurre, eta, hortaz, saiakera gehienak pentsamendu akademikorantz lerratu dira, eta saiakera literarioak urritu. Hitzaren jolasetik, sormenetik, irudimenetik garaturiko pentsamendu-ildoak gutxiago dira, are hizkuntzaren erretorika errotuak bihurritzen dituztenak. Tere Irastortzaren *Txoriak dira bederatzi* (Pamiela, 2017) bilduma salbuespen erakargarria dugu, aforismoen bidetik heltzen diolako pentsamenduari, poetikotasunetik, hizkuntzaren jolasetik, pieza ttikien arkitekturatik, eta pentsamendu narratiboaz beste egin.

Bestalde, pentsamenduaren kulturak jauzi egin du mundu literarioetara, pertsonaia literarioen jarioan txertatzeraino, bi moldeetan egin ere. Batzuetan, pentsamenduak literatur sormena du iturri nagusi, eta fikzioetan mundu literarioko kezkak bihurtu dira ardatzetariko bat. Anjel Lertxundiren *Horma* (Erein, 2017) nobelan, esaterako, idazketa-prozesua eta itzulpen-ofizioa dira gogoeta-bide nagusi bat, arkitektura narratiboaren zehar-lerro. Joxean Agirrek *Goldsmithen ikaslea* (Elkar, 2017) nobelan idazle-gai baten bizipenak gorpuztu ditu, nobela baten idazketa-prozesuaren ajeak bizi dituena. Badira izan nobela horietan geruza metaliterarioak, literatur sorkuntzaren inguruko pentsamenduak gorpuzten dituztenak.

Bestelako nobeletan ere protagonisten ahotsetan pentsamenduak dira nagusi, diskurtso literarioaren gihar bihurtzeraino. Hausnarketa interesgarri askoak dira batzuetan, baina, erritmo narratiboa moteltzen dute. Jakina, bada neurrikir nobelaz nobela: Alaine Agirreren *Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama* (Elkar, 2017) nobelan hari narratiboa oso ahula

da; Kattalin Minerren *Nola heldu naiz honaino* (Elkar, 2017) nobelan Jezabelen pentsamenduek oihartzun handia hartzen dute, atal batzuetan itzal handia hartzeraino, baina, bada marko narratibo garatuago bat; Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* (Susa, 2017) nobelan Nagoreren nortasuna gorpuzterakoan pentsamenduak ere giltza dira, kutsu teorikoa badutenak, baina, gertaera-kateek eta sinbolo-sareek osatzen dute nobelaren arkitektura nagusia; eta Juanjo Olasagarreren *Poz aldrebasa* (Susa, 2017) nobelan, aldiz, doluaren inguruko pentsamendu-txatalak agertzen dira han-hemenka, pentsamendu teorikoaren arnasari bide emanez; edonola ere, protagonisten nortasunek eta harreman-sare sendoek gain hartzen diote gogoeta-ildoek, oso egitura nobeleskoa osatzeraino.

Narrazio-bildumetan, aldiz, ez dugu atzematen pentsamenduaren halako itzalik, eta osagai narratiboak gailentzen dira: pertsonaien ahotsak, elkarrizketak, gertaera-kateak, eszena narratiboak... 2017ko bilduma gehientsuenetan pertsonen arteko ahots-talkak, inkomunikazioak eta mikrobiolentziak gorpuztu dira, gizarte-gatazkak irudikatzeko bide gisa, oso modu ezberdinean egin badute ere –Garazi Arrularen *Gu orduko hauek* (Txalaparta, 2017); Aingeru Epaltzaren *Mendi-joak* (Elkar, 2017); Arantxa Iturberen *Honetara ezker* (Susa, 2017); Eider Rodriguezen *Bihotz handiegia* (Susa, 2017)–. Bilduma horien artean, interes berezia piztu dit *Gu orduko hauek* bildumak, geure joera makurrenetara hurbiltzen gaituelako, baina egungo joerez beste egiten du, eta ahots ziniko zein ironikotik urrunago kokatzen da, giza makurkeriez malenkoniatsu eta zaugarri aritzen baita.

Memoria-ariketak eta ahots zaurituak

2017ko sorkuntzan, bestalde, gaitegian erpin jakin batzuk dira ageriko: memoriaren marmarra eta oinazearen doinuak. Berriro ere, azken urteetan gertatu bezala, memoria hauspotzen duten literatura-lanak ugari izan dira: belaunaldi jakin

baten erretratua eta erradiografia egiteko (*Jenisjoplin; Poz aldrebesa*), memoria-galeraren zauriak xehatzeko (*Horma*), iraganeko bizipen biografiko baten gorpuzte literarioa egiteko (Martin Bidaurren *Itzulera; Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama*). Lan horietariko askotan, gainera, nortasun-krisiak dira kontagai, kezka existentzialen oihartzunak dira non-nahi. Barne-bidaia dira gehientsuenak.

Barne-bidaia horietariko askok gaixotasun bat dute akuilu: memoria-galera (*Horma; Poz aldrebesa*); hiesa (*Jenisjoplin; Poz aldrebesa*); buru-gaixotasuna (*Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama*); histeria (*Xixili*); eta abar. Gaixotasuna, zaurgarritasuna irudikatzen bide; gaixotasuna, gizarte-erakundearen zirrikituak arakatzeko bide. Izan ere, osasun-sistema eta farmakologia omen egungo zapalkuntza-sistema indartsuetariko bat, gorputzak arautzeko mekanismo, beldurrak sortzeko bide, gizartearen arauak transmititzeko erakunde... Literatur lanen ekarpenetan, bada, sumatzen dira osasun-erakunde horiek sorturiko itzalak eta izuak; nolahi ere, batik bat zaurgarritasunari aurre egiteko laztanak dira nagusi, guztiek ere zaintzaren gaiari heltzen baitiote, hain zuzen ere, egungo gizarte-egituren erronka nagusietariko bati. Narrazio-bildumetan ere, zaintza-sareez jarduten da sarri. Hortaz, literatur lan askok egungo gizarte-egituren erronka nagusietariko bati heldu diote, zaintza-sareak birpentsatzeko premiari.

Gai horiek guztiak errealismo psikologikora edo intimismora hurbilduriko estetiken bidez jorratu dira. Hori du erronka euskal narratibak hurrengo urteetan, bestelako estetika literarioak jorrotzea; fantasiaren, absurdoaren, abangoardiaren edo errealismo sozialaren bideak berrartzea. Badu horretarako harrobirik mugako espazioetan, bazterreko genero literarioetan, itzulpen-lanetan, diziplinarteko ekarpenetan. Geroak esango du mugako espazioek sorturiko abagunea behar beste ustiatzen asmatuko dugun. 🍷

HAURRAK!
GAUR PATRIA DUZUE
ATSASKARIRAKO!

OH EZ...
BERRIRO EZ!



ADUR

ARTELANAK BI
KATEGORIATAN
SAILKATZEN DITUT:
GUSTATZEN ZAIZKIDANAK
ETA GUSTATZEN EZ
ZAIZKIDANAK.



Igerikariaren indarraz

Marx I love you, will U marry me diote letra urdin eta gorri handiek pankarta zuriaren gainean. Txolarreak baino ohikoagoa zaigun plastiko pintatua erabiltzen du Juan Perez Agirregoikoak bere lanean uztartzen diren elementuak soiltasun zuzenez elkartzeko: filosofia, ideologia, kapitalismoa, gizarte protestak eta espektakulua. Euskal arte ekoizpenaren laburpena ere badirudi hitz zerrendatzeak.

Artiumen izan da erakusgai Perez Agirregoikoaren lana, Liliana Porterren mostrarekin batera. Halako bisiton ostean senti dezake batek gure inguruko artista eta instituzioen potentziala. Organismo Bizidunen Agentziarekin ireki zigan urtea Tabakalerak; Artiumek aipatutako bi erakusketekin udaberria loratu; udazkena epeldu digu Anni Albersen mostrak Guggenheimen, eta, urtea kontziente eta borrokalari buka dezagun, indarrez itxi Azkuna Zentroan Margaret Harrisonek.

Lehen begiradan, badirudi osasun ona dela nagusi; hurbi-lagotik begiratzea besterik ez dago ahultasunak nabaritzen hasteko. Aipatutakoen artean, urteak daramatza Artiumek krisiari aurre egiteko kemenetan, eta halako erakusketen ordaina bilduma aberastu ezin izatean datza. Tabakalerak setatsu eta irmo babestu behar du sorkuntza esperimentalak ekonomiaren motortzat ikusten diren industria kulturalen aurrean, aniztasunari alergiaz dion gure eredu kultural honetan. Ez aipatutakoak ere baditugu: Koldo Mitxelenaen programa interesgarria difuminatuz joan da, Rekalde Aretoarekin gertatu zen moduan. Bertako artista gazteentzako, euren lana ikusaraziz aritzen diren BilboArte edo Basauriko Arizdorrea itzaletan geratzen dira, artista espezializatuentzako

ghetto modura aurkeztuak eta instituzio aberats eta erraldoien argi-esferetatik (Guggenheim, San Telmo eta Azkuna Zentroa, oinarrian) erbesteratuak.

Ez da arte sorkuntza, ezta kritika- edo komisariotza-gogeta ere, falta zaiguna. Baina itsasoan igeri dabilta horiek, olatuen kontra; eta kultur politikek, ilabe bat eskaini beharrean, adabakiz beteriko flotagailu puzgarria da eskaintzen dieten bakarra.

Biharamuna

Gogorra izaten da biharamuna. Batez ere, jaiaren poztasunean gaua amaitu eta hurrengo egun bat etorriko dela ahaztu zaigunean; *club* hipster berri horretan bukatu eta gasik gabeko garagardoak xanpain botilen prezioetan kobratzen hasi zaizkigunean; bueltako bidean diru-zorroa galdu zaigula ohartu eta txartela desaktibatzeke egunsentira arte telefonotik zintzilik egon garenean, 902 batera deituz, gainera.

Gogorra izaten ari da DSS2016 kultur hiriburutzaren biharamuna ere. Gogorra, azken lau zapabost urteetan euren denbora, ahalmen eta prestakuntza guztia gertakizun handiari eskaini eta gero, zombien moduan instituzioz instituzio lan bila dabilzan kulturaren profesionalentzat. Gogorra, baita ere, urte hori salbuespenekoa izan dela onartu eta euren aurrekontuak erdira ekarrita ikusten dituzten kultur instituzioentzat. Gogorra, noski, egileentzat, besarkatu ezin beste erresidentzia, proiektu eta aukera izatetik, ezeren truke eta etorkizun hurbileko erakusketaren ametsik gabe lanean egotera pasa direlako.

DSS2016ren hasierako proiektua aurkeztu zenean, jarraitutasuna eta jasangarritasuna ziren helburu nagusietakoak. Artistentzako estruktura eta plataforma berri eta iraunkorrak sortzea, 2016a gaitutako zutenak; eta kulturarentzako publiko berriak sortzea, esparru hori turismoaren edo ostalari-tzaren sustatzaile izatetik, balio propioak zituen aberastasuna bilakatzera eramanez.

Horregatik izan da gogorragoa biharamuna. Kultur instituzioetan ez da publiko jarioaren igoera nabarmenik izan, eskolek ez dituzte arte eta sorkuntzarekin lotutako irakasgai gehiago, 2016an sortzen saiatu ziren hainbat lankidetzak (Donostiako Museoen Sarea, esate baterako) ezin izan dira mantendu. Ez da kultura arloko lan berririk sortu; kontrakoa, DSS2016rekin lotuak zeudenak desagertu dira. Eta gehien larritu behar gaituena, erabilitako jakintza eta lan guztiak ez du politikariengan inolako aztarnarik utzi: oraindik ez dira kulturaren arloetako espezializazio eta profesionalizazioaren beharraz ohartzen, eta behin eta berriz gutxiesten dituzte esparru horietako adituen iritziak.

Horren azken ereduak Koldo Mitxelena Kulturunean ikus dezakegu. Urte askotako lanaren ostean, hamabi hilabeteren epean jubilatuta dira Frantxis Lopez eta Ana Salaberria, bakoitzak eraikineko areto bateko arduradun. Oraingoz ez da euren ordezkorik izendatu, baina erakusketen programak martxan jarraitzen du. Zein ari da programatzen? Zein ari da kalitatean eta interesean oinarritutako erabakiak hartzen? Bada, arduradun politikoak; hots, Jardunbide Egokien edozein eskuliburutan gorriz eta debeku seinale batez agertzen den egoera dugu geurean. Eta DSS2016k, hori ekiditera eraman beharrean, egoera hori bultzatzera eta zalaparta publikorik gabe onartzera eraman badu, jaia eskuetatik joan zitzaigun guztiz.

Ikusi eta ikasi

La manada autoizendatutako taldeak gauzatutako (ustezko) bortxaketaren harira, hainbat izan dira sare sozialetan banatu diren irudiak eta iritziak. Horien artean, bereziki beharrezkoa iruditu zitzaidan María Acaso arte hezitzaileak egindako ekarpena. Bere webguneko post baten irudi nagusia Dolce & Gabbanaren iragarki bati dagokio: horretan, lau gazte eder, lasai eta erdi biluziak emakume gazte, eder, pasibo eta arropa gutxiko baten inguru eta gainean agertzen

dira. Antzeztutako eszena dela jakingo ez bagenu, aise identifikatuko genukeen talde-bortxaketa konposizioan, baina publizitate kapitalistaren *glamour*-ak itsutzen gaitu; naturalizatzen dugu bortizkeria, eder planta badu. *La manada*-ren ekintzak eta gero, harrigarria zaigu aurretik halako irudiak normaltasunez hartu direla onartzea.

María Acasok zuzenean lotzen ditu irudia, gertakizuna eta arte hezkuntza. Nola liteke, irudiz inguratua hazten den gizarte batean, irudiaren inguruko hezkuntzarik ez egotea? Ideien eta balioen transmisioa, egun, inoiz baino gehiago egiten da irudiaren bitartez, eta hala ere ez gara ari garatzen irudi horiek aztertu, arakatu eta ikuspegi kritikoz ulertzeko inolako ahalmenik. Kontrakoa, gero eta gehiago gara irudi horien gatibu, eta horren erakusle da hainbat iragarritako konposizio bortitz eta gogorren aurreko gizartearen axolagabekeria.

Baina hezkuntza sistemak nahiago du PISA txosteneko matematiketan hoberenak izatea, enpresetako irabaziak zenbatu ahal izateko, enpresa horiek ekoizten dituzten irudiak irakurri eta sortzen ikastea baino. Nahiago du bizitzaren aurrean arrazoimen soilaz hornituta kokatzea gizabanakoa, inteligentzia mota desberdinak (emozionala, fisikoa, ikusizkoa) garatzen laguntzea baino. Gizarte analfabetoaz hitz egiten bagenuen lehen, gizarte anikonikoaz hitz egin behar-ko genuke orain; eta idazten ez jakiteagatik manipulatzeko errazak ziren koitadu horien antzera, gu ere artaldea gara pantailen aurrean.

Hori ekiditeko lanik bikainena, egun, arte zentroei lotutako hezkuntza proposamenetatik gauzatzen ari da. Tabakalerako taldea, Artiumeko langileak, erreferentzia dira zentzu horretan. Isiltasunean, ikusgarritasun urriz eta zentro askotan prekaritate osoan (gogoan ditugu Bilboko Arte Ederretako hezkuntzako langileen grebak, eta Guggenheimeko enkaleratzea), jarraiki ari dira kolektibo desberdinekin lanean, irudiaren eta diskurtsoaren gaineko galderak planteatuz eta pentsatzeko aukerak eskainiz. Artearen eta ikusleen arteko

harremana zainduz. Horiek dira arte sistema espektakular honetan liluren lorategia, altxor ezkutua.

Memoriarik gabeko beste urte bat

Ez da aurtengoa lehen aldia, baina 2017an emakumezkoak izan dira Gure Artea saria jaso duten guztiak. Argi eta zuzen heldu zion gaiari *El Diario Vasco*-k, 'Las mujeres se llevan los premios Gure Artea' goiburukoa hautatzean; beste generoarekin pentsaezina litekeen izenburua, alegia. Antzeko hurbilketa izan zuten komunikabideek Garbiñe Ortega Iruñako Punto de Vista zinema festibalaren eta Vanesa Fernandez Zinebi bilbotarraren zuzendari izendatu zituztenean.

Eskizofreniak jota bizi dira komunikabide gehienak emakume sortzaileei dagokienean: berdintasunera iritsi garelaz azpimarratzen saiatzen dira, emakume horien lorpenak salbuespentzat hartzen dituzten aldi berean. Gizonezkoen aitorpenak naturalizatuak daudenez, memoria kolektibotik aise ezabatzen dira, ez baitute berezitasunaren marka. Emakumezkoenak direnean, aldiz, horrenbeste azpimarratzen da generoa, ezen berdintasunaren ilusioa biderkatzen den; eta badirudi gu garelaz sariak jaso, erakusketak ireki eta liburuak idazten ditugun bakarrak. Guztiz itxuragabetutako irudi publiko horren aurrean, ez da harritzekoa, beraz, instituzioen pribatutasunean eta batzordeen intimitatean, emakume artisten ikusgarritasuna lobby ezkutuekin lotzen duenik egotea, 'gehiegizko' saritze eta erakustea, berdintasunerako bidetzat beharrean, inposiziotzat aurkezten duena.

Bakoitzaren esperientzia subjektiboetan oinarritutako iritzi zalapartariak nagusi diren honetan, zuhurtziaz argitaratu dira Eusko Jaurlaritzaren aginduz Kulturaren Behatokiak jasotako emakume sortzaile eta instituzioen harremanen inguruko datuak, eta horiek interpretatzen neuk idatzitako artikulua. Instituzioei galdeketa eginez zein erakusketen eta sarien historia aztertuz jaso dira batez ere 2013 eta 2016 arteko datuok.

Horien arabera, emakume artistek kristalezko sabai lazgarria pairatzen dute, are gogorragoa eta apurtezinagoa izan dena urteetan atzera egin bezain laster. Hogei urte daramatzate emakumeek Arte Ederretako Fakultateko lizentziatuen %65 inguru izaten; azken bi edo hiru urteetan soilik lortu dute artista gazteentzako lehiaketetan kopuru hori erdiestea. Oso urruti daude, ordea, maila altuagoko sarietan halako presentzia lortzetik, hala nola museoetako erakusketa garrantzitsu eta bildumetan modu berean ordezkatuak izatetik. Gure Artea bera hartuta, ez da oso atzera jo behar sarien hiru laurdenak gizonezkoei banatu zaizkien emanaldiak topatzeko. Eta ez urte salbuespeneko batean, urtez urte baizik.

Egoera jarraitu horrek hainbat ondorio izan ditu, esaterako, emakume sortzaileen belaunaldi osoak galdu ditugula. Baziren emakume artistak 60ko, 70eko eta 80ko hamarkadetan; baina euren lana ez dago gure bildumetan, ez zaizkie heldutasuneko erakusketak sekula iritsi, ez zai Haizea Barcenilla zkie katalogo arrazoituak dedikatu. Memoriaz etengabe aritzen den lurralde honetan, ez da iritzirik behar, datuak besterik ez, emakume artisten memoria alzheimerrek oso jota dagoela ulertzeko. Eta halako datuei instituziotik eman zaien oihartzun txikia ikusterakoan, argi dago 2017a ez dela memoriaren urtea izan, eta bide berdinetik datorkigula 2018a. 🍷

2017ko euskarazko antzerkigintzaren partida ederra izan da. Azken boladan ikusitako antzezlanen sarrerak eskutan, mus partida antzezteko prest gaude; sarrera-kartak mahai gainean jarri eta partidatxoa egingo dugu. Askotan, euskal antzerkiak, ordea, ez du paperezko sarrera fisikorik izaten –gure anomalien erakusgarri, gure apustuak bezala, beharbada–, eta, hala ere, jolasean aritzeko prest gaude beti. Karta jolasaz eta antzerkiaz ari garela, gogoan izan dezagun Gabriel Arestik ere musaren joko sinbolikoa erabili zuela *Euskal Tragedia* kontatzeko. Teatroa bera jolasa izan bada, artistikoa jakina, baina jolasa beti. Musa bera oso teatrala da, begiekin, keinuekin eta gezur bidez ia dena esaten baita, antzerkian bezalaxe; bietan jokalaria dira bai mahaiaren bueltan eskuetan kartekin daudenak eta baita taula gainean gorputz oso eta arimarekin jokatzen duten antzezleak ere. Eta ikuslegoa, noski, ezinbesteko jokalaria.

Handira ala handiputza

Partida azkar jolastu eta, batez ere, jokia irabazi nahi duenak, handira hordagoa bota ohi du. Baina askotan jokatzeke modu hori farol hutsa baino ez da. Urte honetan izan den antzerki estreinaldi entzutetsuenak horretaz zerbait, edo askotxo, baduela uste dut. Atxagaren liburua oinarri hartuta, *Obabakoak* sortu zuen Calixto Bieitok, Arriagarentzat egingdako bere lehenengo ekoizpena. Opera munduan aritua da zuzendaria eta haren osagarriekin eraman du taulara gure literatura garaikidearen klasikoa. Zuzendariak berak aitortu zuenez, «testu txatalez eta irudi txatalez osatutako ispilua»

egitea zuen helburu eta, guk gehituko diogu, arrisku. Izan ere, bere hitzak osatuz, petatxo betetako ikuskizuna ikus- tearen penaz eta amorruz atera ginen antzezlan ikusi genuen lagun asko. Eleberria eszenatokian –koma eta puntuen artean– egon bazegoen ere, nobela batean ezinbesteko diren hitzak zaindu gabe eta adabaki lez agertu ziren handinahi- keriaz jantzitako taula erraldoi bezain hutsean. Soinekorik ederrena izan behar zuen horrek, ez zeukan bere tamainara- ko sortutako patroirik; alegia, inora heltzeko dramaturgiarik ez genuen ikusi, entzun, jaso. Balizkoa da antzerkian irudiez eta hitz solteez sortutako lana sortzea, zalantzarik gabe. Bai- na gure kulturen hain errotua eta goraiatua den eleberria ardatz harturik, liburua atzematetik urrunegi geratu ginen, baliabide errepikakorren gaindosia hartuta eta eria bailitzan artatu gabeko bakarrizketa sorta irentsita. Azken bost ur- teetan Atxagaren testuak hiru alditan igo dira eszenatokira. Patxo Telleriak asmatu zuen *Soinujolearen semea* eleberritik teatrorera eramateko testuaren moldaketarekin. Atxagak ber- rak, iaz, *Lu eta Le* lanarekin teatrorako idazteko saiakera egin zuen. Oraingoan, ordea, mus partida honetan, esku bakarrak lau errege bazituen ere, gure etsipenerako, hordagoarekin ka- le egin zuen. Beharbada zortzi erregerekin jokatu nahi zuen berak, Nafarroan lau erregerekin jokatzen dela jakin gabe.

Handira jolastu duen beste eleberririk ere izan da arte es- zenikoen estreinaldien artean. Juan Antonio Urbeltzek Pio Barojaren *Zalakain abenturazalea* oinarri hartuta, dantza, musika eta antzerkia uztartzen dituen lana estreinatu zuen. Kasu honetan, herriaren eta tradizioaren karta-sortaren abe- rastasunaz, urte askotako jakinduriaz eta arteaz baliatuta, es- kutik helduta eramán gintuzten koreografia ezin ederragoek osatutako abenturan. Dantzariak, musikariak eta aktoreak betetzen zuten taula, bestelako artifiziorik gabe. Harkaitz Canok ere hitzekin asmatu zuen, halako nobela bat taulara eramateko behar dituen pasarteak moldaketa aproposare- kin. Herria ikusi genuen dantzan. Euskal Herri osoko 80 dantzari baino gehiagok agertokiari bizia eman eta kendu

zioten. Abentura batek eskatzen duen bezala, karta-sortako kopak, ezpatak eta bastoiak lagun izan ziren. Horrek hunkitu gintuen, dantzariak osatutako irudiek, tradizionalak eta berritzaileak, herritik sortutakoak. Beharbada, euskarazko arte eszenikoetan handira jokatu nahi duen ikuskizun bat aurrera ateratzeko modua, oraindik ere, hori da, herritarren sormen jakituriatik sortutakoa, maitasunetik eta konpromisotik eraiki eta ereinez, ondoren herriari bueltatzeko. Eta taula gainean haien burua profeteurtzat duten horiek aritzen dira. Handira jokatzea, beraz, elkarlana da.

Txikira beti hordago

Gure antzerki sorkuntzak bizi duen egoera oparoaren gaineko berba asko entzuten da, forma zein edukietan. Baina badirudi euskarazko antzerkia txikira hordagoak egitera kondentatuta dagoela. Ez da zertan beti handira jokatu behar emaitza ederrak lortzeko, jakina. Txikira jolasten duenak ere badaki emaitza handia ematen. Han eta hemen sortzen ari dira azken boladan txikirako apustuak. Gainera, txikitik ezinbesteko erreferenteak sortzen ari dira; benetakoak eta gertukoak. Bakarka aritzen diren emakumeak aipatzekoak dira. Batetik, Eneritz Artetxe, gure antzerkiaren bufoi erreferenteak, *Karramarroa* eskaini digu, atzera ibiltzen den animalia. *Konpota* lanarekin egin bezala, clownetik eta bufoitik lan eginez, emakumea lanaren erdigunean jarri du. Emakumetasunetik ere ateratako eta sortutako lana da *Aitte hil aurretik*. Maika Etxekopar eta Miren Tirapu aktoreak dira Beheko Larraine taldearen sortzaileak, Bidasoako alde biak lotu dituen proiektua. Horretan ere, antzerkia bada gure kulturgintzan erreferentea; mugetatik harago lan egiterako orduan, gero eta ohikoagoa, nahi baino gutxiago agian, baina gero eta naturalagoa da euskararen lurraldeen arteko elkarlana.

Txikira jolasteaz ari garela, hain beharrezkoak diren konpainia berriak sortzeko modua ere bada txikitasuna. Horren

adibide izan ditugu Anodino Teatroyen lan berria, *Erbeste, edo saihets baten aldarrikapenak* –feminismoa taularen erdian berriz ere– eta tarteko Getari Etxegarai ere baduen Xake Konpainiaren *Mami Lebrun*, obra goxo bezain hunkigarri eta komikoa.

Txikitasunak ez luke konplexua sortzeko zio izan behar. Aitzitik, harrotasuna eta aniztasuna ematen digu. Txikitasunak, handi sentitzeko aukera eskaintzeaz gain, antzerkigintzan haziz joateko bidea zabaltzen du, txikitasunetik handitasunera. Handira hordagoa botatzeak ez luke sekula helburu izan behar. Beharbada, hain justu, horixe bera da konplexua edukitzea, handia izan nahi hori.

Bizitzaren pareko

Partidarekin jarraituz, pareetako jolas oparoa parez pare agertzen zaigu gure antzerkigintzan. Aktoreak binaka, ala bikoteka, lan egitearen apustua –hordagoa botako nuke– gure artean formarik ohikoena da. Patxo Telleriak eta Mikel Martinezek aspalditik osatzen dute taula gaineko bikote artistikoa. Urtez urte antzerki lengoia propioa, ikusle zaletu pila eta plazarik plaza gure hizkuntzaren gaineko gogoeta komikoak eginez jendea barrez lehertzea lortu dute. Beti ere, Telleriaren luma fin eta argia lagun, biek taulan duten komediarako gaitasun, oreka eta konplizitatea ezinbesteko osagai dutela. Oraingoan hiru musikarirekin agertzen dira, *Ez dok hiru, euskal musikaren benetako istorioa* eskaintzeko. Eszenatokian bost lagun badira ere, pareak, aktore biek osatutako bikoteen komeriak, alegia, eusten dio lanaren partiturari. Orain arte egin duten bezalaxe, euskal unibertsoa gaitzat harturik, adin eta kolore guztietako ikusleak erakartzeko dituzte. Oraingoan musika eta gure kantutegia izan dira apustua. Taldea handituta handiagora jokatzeko aukera egin badute ere, ez diote txikitasunari sekula uko egin. Izan ere, gure hiriburuetakoa antzoki handietan gaur agertu bezala,

periferian dagoen gaztetxe batean antzezten egon baitaitezke bihar. Pareak aipatuta, eta bikote bilbotarra hizpide, Mikel Martinezek Dario Fo eta Franca Rameren testuak taulara eramán ditu. Eta parean egin ere, Irati Agirreazkuenagarekin batera *Biba Voi* izeneko lanean.

Pareetako jolas horretara ere Huts Teatroa gehitu da. Unai Iturriagaren testuarekin, Ander Lipus eta Patricia Urrutia elkartzén ditu *Hozkailua* lanak. Formatu txikian eskaintzen dute obra, ikusleengandik gertu, laguntasunaren minak eta laztanak, punkyago ginen garaiak ikusleagoarentzako ziztada bihurturik. Taula gainean zeresan handia emango duen pareko berria Miren Gaztañagak eta Eneko Sagardoyk osatu dutena da. *Heriotza bikoitza* lana aurkeztu berri dute, sormen kolektiboaren ondorioz. Berriz ere, aurrekoan bezala, zer eta heriotza. Heriotzak jotzen digu bihotza. Hainbestetan ikusi izan ditugu heriotzaren gaineko lanak; baina kontatzeko forma berriak daude beti, ezinbestez. Heriotza, berriz ere. Pairen atala ixteko, zer eta heriotza. Heriotza da bizitzaren parekoa.

Jolasaren garaipena

Partidaren bukaeran jokora iritsi gara. Berdin da hogeita hamaika zein hamahiru izan, musak jokoarekin bukatzen bada ere, guk jolasarekin itxi nahi dugulako partida. Musaren mugak gainditu eta araurik gabe, tranpa eginez beharbada, arte eszenikoen jolas etengabea murgiltzen jarraitzeko hamaika, hamahiru eta hogeita hamaika aukera irekitzen dira.

Metrokoadroka Kolektiboa bere jolas propioan sakonki sakontzen dabil azken urte sakon hauetan. Oier Guillanek aurretik *Mr Señora* liburua Txalaparta argitaletxearekin aurkeztu zuen –zenbait antzerki testu bildurik–, eta, aurtén, Gasteizko Pez Limborekin bat eginez, *Miss Karaoke* taularatu dute. Metrokoadrokari jolasak berak eta horrek ikusleengan sor ditzakeen barne mugimendu jostariak axola zaizkio. Oreretako kolektiboak antzerki jolasean hegan egiten du, arauak

apurtu eta berregiten ditu, mugetatik harago jokatzea maite du. Mahaiaren bueltan geratu beharrean, beste edonon jokatzen ditu partidak. Horrek guztiak ikuslea plazerez beterik toki berrietara garraiatzea lortzen du, batzuetan eroso, bestetan amets batean bezala, identitatea galdurik. Hori da ikuslegoari gerta dakioken gauzarik ederrenetakoa, nor eta zer garen ez dakigun tokietara iristea, zer eta antzerkiaren jolasarekin iritsita.

Aurtengo partida bihotza jo zigun beste teatro jolas performatibo eder batekin bukatzera doa. *Strip Tease* ikuskizun kolektiboa osatzen zuen piezetako bat da Telmo Iruretaren *Zutaz blai*. Mireia Gabilondok zuzendutako hori ustezko jendarte baten arauak hausten laguntzen duen ezinbesteko lana da. Ikus-entzunezkoak antzerkian ederki txertatuz, emozioak puri-purian jarri eta konbentzionalismoak hautsirik, komedia, erotika eta politika begien aurrean jartzen dizkio ikuslegoari. Funtzionalitate bereziko pertsonak sexualitatea badute, bizi eta sentitu egiten dute, baita praktikatu ere. Eta, zergatik ez, aurrean dituzten ikusle batzuk sutan jartzen ere badakite; batzuk erotikoki berotu eta beste batzuk giza hipokrisiak jota sutu. Berriz atera da antzerkiaren arma handienetako bat, eserita dagoen ikuslea sumendiaren ezta jata bezala mugiaraztea; izan hona, izan hara, baina bihotzak eta tripa mugimenduan jarri. Hau da, karta partida sinple batetik oso urrun.

Karta partidetarako mus zaleak ohiko tabernan arratsalde-
ro bildu bitartean, antzerki konpainiek lan egiteko espazio
bila jarraituko dute. Artedramak aurten Leioan egoiliar iza-
teari utzi dio, antza denez, arrazoi politikoak direla medio.
Sortzaileak ezinbestekoa du sormenerako aterpea, sorlekua.
Zorionez, salbuespen gutxi batzuk izan badira, Durango-
koa esate baterako. Jose Martin Urrutia *Txotxe*-k gidatzen
duen Karrika taldea aspalditik San Agustin antzokian bizi
da. *Deshakespeareazioa* izena du taldeak eskainitako azken
lanak. Txotxek, gazteak zaletu eta formatzeaz gain, emaitza

artistiko berritzailea egitea posible dela erakusten du etengabe. Ikuslea astintzen duten horietakoak dira bere lanak, begietatik eta bihotzetik pizten gaituztenak. Arestian esan bezala, berriz ere herritik herrira, horretan baikaude gu eta horixe baikara.

Mahai gainean jarritako karta horiei guztiei so eginez, ez dirudi karta onak iristeko zain egon behar dugunik. Sormena ezin da karten zoriaren zain bizi. Ikusleek sortzaileekin batera jokatzeko dute partida, elkarlanean eta modu kolektiboan. Iritsiko dira, inoiz baldin badatoz, normalean kartak banatzera berandu etorri ohi diren erakunde publikoak. Orduan, beharbada, hordagoetara jokatu beharrean, senetik eta bihotzetik jolastu eta sortzeko aukera izango luke euskarazko antzerkigintzak. Orain egiten ari den bezalaxe, bada. Baina orduan tapiza eta guzti edukitzeko aukera izango luke. Betiko ehun berde tradizionala beharrean, moreagoa, edo arrosagoa, jarriko genuke ziurrenik. Baina, aspaldi jakin badakigunez, kartak banatzen dituenak ez dio beharrari ala herriari entzuten, apustuen ondorioz sosak emango dizkionari baizik. Bitartean, hortaz, handi egiten gaituzten farolik gabeko txikira hordagoak sortzen jarraituko dugu. Tranparik gabe, etengabeko keinuak eginez eta egia diruditen gezurrak kontatzen jarrai dezagun. 🍷



Handia eta Errementari

Nork esango zuen Jon Garañoren eta Aitor Arregiren *Handia* filma azken 30 urteetako euskarazko film ikusiena bilakatuko zela, *Aupa Etxebeste!* (Asier Altuna eta Telmo Esnal, 2005) arrakastatsuari aurrea hartuta? Edo hobeto esanda, nork ez? Garañok berak argi azaldu zuen Donostia Zinemaldian hedabideen aurrean egin zuten prentsaurrekoan: «Ez dugu ahaztu behar *Loreak* (2014) filmari esker egin dugula *Handia*». Eta *80 egunean* (2010) filmari esker *Loreak*, jarraituko nuke. Eta 2000ko hamarkadatik Moriarti ekoizpen etxean errodatu dituzten dozena bat film laburri esker *80 egunean*. Ekoizpen etxeak eta horren atzean dagoen giza taldeak egingako ibilbidearen emaitza baita bizi duten une gozoa, baita industria oso baten bilakaeraren isla ere. Izan ere, azken urteetako euskarazko filmen ikusle-datuen bilakaera aztertzen badugu, salbuespenak salbuespen, goranzko joera nabaritutako dugu, euskal ikusleria egonkor eta konprometitua sortzen ari den seinale (militantziagatik?, filmen kalitateagatik?, jaialdiek eta hedabideek sortutako harrabotsagatik? Guztiak izan du eragina, ziurrenik). Eta, pixkanaka, euskal ekoizpenek nazioartean izan duten arrakasta ikusita, bertako zinemagintza atzerrikoaren mailan dagoela sinesten hasi gara (halakoak gara euskaldunak).

Talde berezia osatu dute, inondik inora, moriartitarrek. Irusoinekin *tandem* perfektuan jarduten dute, elkarki babsa emanez, eta, era berean, lanpostu bakar bat izan ordez, film bakoitzean kide bakoitzari kargu ezberdin bat hartzeko aukera ematen dion prozedura ezohiko eta harrigarria egonkortzea lortu dute. Jeniala, benetan! Oso perfekzionistak dira,

gidoia aurreprodukzio fasean ez ezik, produkzioan bertan eta postprodukzioan ere berridazteko gai direlako.

Bada, dena den, filmak izandako arrakastaren atzean aurkituko dugun datu objektibo eta kuantitatibo bat: filma 92 kopiarekin estreinatu da zinemetan. Alegia, lehen asteburuan, Hego Euskal Herriko eta estatu espainiarreko 92 zinema aretotan izan zen ikusgai. Erreferentziarik ez duzuenontzat, Asier Altunaren eta Telmo Esnalen *Aupa Etxebeste!* 25 kopiarekin estreinatu zuten, *Loreak* (Jon Garaño eta Jose Mari Goenaga) 33 kopiarekin, eta *Ocho apellidos vascos* (Emilio Martínez-Lázaro) maitatu bezain gorrotatua, berriz, 348ekin. Horregatik, ikusle-datuak kopia-kopuruak kontuan hartu gabe aztertzeak ez du zentzu gehiegirik...

Oraindik zinema aretoetara heldu ez den arren, urteko ezustekoa Paul Urkijo gasteiztarraren *Errementari* opera primak eman du. Proiektuaren ausardia (film fantastiko bat euskaraz?) azpimarratu nahi izan dute filmaren aurkezpenaren harira hitz batzuk esateko abagunea izan duten agintariak. Baina, balentriaren neurriaz jabetzeko, Urkijok eta lantaldeak sei urte luzez inbertitutako denbora eta dirua, proiektuan jarritako ilusioa eta indarra, eta hura bururaino eramateko erakutsitako burugogorkeria (zentzurik positiboenean) behar bezala balioestea ezinbestekoa iruditzen zait kasu honetan. Lorpena ez baita amaitutako filma, hura osatzeko egindako bidea baizik, eta aingeru guardakoak heldu aurretik proiektua hutsetik altxatu duten horiek ekarri behar dira lehen planora.

Elías Querejeta Zine Eskola

2016ko lehen hiletan ezagutu genuen Gipuzkoako Foru Aldundiaren asmoa: Donostiako Tabakalera Kultura Garai-kidearen Nazioarteko Zentroan zinema-eskola bat jartzea, Denis Itxaso Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol diputatuak sustatutako egitasmoa. «Sormen

industriari eta ekoizpen-sare garrantzitsuari erantzuna emango liekeen zinema-eskola» zuen buruan, eta 2017 urtea amaitu aurretik zabaltzeko lan egingo zutela adierazi zuen.

Esan eta egin: 2016ko uztaileko Diputatuen Kontseiluan 300.000 euroko partida bideratzeko erabakia onartu zuten, Tabakalerako lehen solairuan 500 metro koadroko zinema-eskolaren aretoak egokitu eta materialez hornitzeko, eta proiektuaren inguruko xehetasunak aditzera eman zituzten: unibertsitateekin elkarlanean aritu beharrian, eraikinean bertan egoitza zuten hiru eragile indartsurekin jardungo zuen eskolak (Donostia Zinemaldia, Euskadiko Filmategia eta Tabakalera bera), eta bi ildo nagusi landuko zituen: industriarentzako baliabideak eskainiko zituen proiektu-eskola izango zen, batetik, eta ikasturteko 25 lagunentzako lekua izango zuen zinema-eskola, bestetik.

Jarraian etorri ziren eskolaren zuzendaria aukeratzeko deialdi publikoa eta irekitze-data, 2017ko urria, eskolaren izena oraindik zehazteke zegoenean. *La hipótesis del cine* proiektuaren egile Carlos Mugiro baztandarra aukeratu zuten apirilean zinema-eskolako zuzendari izateko; une hartan, Madrilgo ECAM Zinema Eskolan irakasle lanetan ari zen, Zinema Dokumentalaren alorreko burua baitzen, eta Iruñeko Punto de Vista Zinema Dokumentalaren Jaialdiaren sortzaileetako bat izan zen, baita zuzendari artistikoa ere, 2009ra arte. Irakaslea, programatzailea, ikertzailea eta zinemagilea, langintza asko dira! Hiru entitatearen arteko «transmisio-uhala» gisa aurkeztu zuen zentroa, «pentsatzeko, gogoeta egiteko eta ideiak sortzeko» topagunea, eta ikasleek hiru espezialitate lantzeko aukera izango zutela gaineratu zuen, horietako bakoitza entitate batekin lotutakoa: Artxiboa Euskadiko Filmategiarekin; Komisariotza Donostia Zinemaldiarekin; eta Sorkuntza Tabakalerarekin.

Aldaketaren gakoak, baina, ikasleen profilak iradoki zigun:

Zinemagintzaren inguruko bizipena eta azterketa intelektuala egin nahi duten eta lanbide berriak esploratu nahi dituztenentzako leku aproposa da. [...] Egin nahi den espezializazioarekin

lotutako unibertsitate titulu bat izatea beharrezkoa da. [...] Ikasleak eta irakasleak mundu guztikoak izan daitezke.

Hau da, Elías Querejeta Zine Eskola (halaxe jarri baitiote izena, «XX. mendearen amaierako Europako ekoizle eta sortzaile handienetakoa zenari omenaldia egiteko») graduondoko ikasketak eskaintzen dituen zentroa da, ikuspegi akademiko/teoriko batetik eta kalean ezagutzen dugun zinemagintza-jardunetik nahiko aldentuta ariko dena, bestelako alderdiak jorratuz: materialen zaharberritzea, jaialdietako filmen aukeraketa, sorkuntza esperimentalak... Eta horrek, nolabait, eskolaren jatorrizko espiritua transformatu du.

Noranzkoak ez du zertan okerrekoa izan, beharbada horixe da ikuspegi akademiko batetik Euskal Herriko ikus-entzunezko ikasketak eskaintzen dituzten unibertsitate, eskola eta bestelako zentroyen hutsunea. Baina lehen paragrafoa itzulita, «sormen-industriari eta ekoizpen-sare garrantzitsuari erantzuna emango liokeen zinema-eskola» horretatik zertxobait aldentu garela esango nuke. Eskolaren irekiera modu gradualean egingo dutenez, eta lehen ikasleak 2018ko urrian hasiko direnez, ordura arte itxaron beharko dugu lehen belaunaldiaren ezaugarriak eta martxa ezagutzeko.

Aldaketak Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza sisteman

Aspaldiko eskaera zen: Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika sailaren zinemagintzarako diru-laguntzen egitura berrikusi eta egokitu beharra zegoen. Nola, ordea? Zein alderdiri eman lehentasuna? Zein eredu jarraitu? Nola handitu partidak? Izan ere, ikuspegi orokor batetik aztertuta, bi dira laguntza horien onura zuzenak jasotzen dituzten industriako profesionalak: gidoigileak eta ekoizleak.

Ibaia Euskal Ekoizle Burujabeen Elkarteak euskal ikus-entzunezko produkzioaren etorkizun beltza salatu zuen iaz, eta

diru-laguntzen murrizketak pizgarri fiskalekin orekatzeko beharra aldarrikatu zuen. Izan ere, EAEko ikus-entzunezko industria, txikia bada ere, pisua hartzen ari da pixkanaka: urtean, batez beste, 11 film luze ekoizten dira; urteko ekoizpen orokorra 62 milioi eurokoa da; 700dik gora lanpostu sortzen ditu urtean; eta estatu espainiarreko autonomia-erkidegoen zerrendan, laugarren indartsuena da, Madrilen, Kataluniaren eta Andaluziaren atzetik (nabarmen jendetsuagoak diren erkidegoak denak). Eta, hala ere, erakundeen babesaren murriztuak joan da azken urteetan.

Gidoigileen eta ekoizleen eskaerei erantzunez, diru-laguntzen egitura berria aurkeztu zuen Jaurlaritzak ekainean. Al-daketa guztiak ezagutzeko oinarriak zehatz-mehatz irakurri beharra dagoen arren, ondorengoak dira, nagusiki, deialdi berria ezaugarritzen duten alderdiak:

- Aurrekontu orokorra %35 handitu dute, 2.660.000 euro, orotara.
- Gidoien sorkuntzara bideratutako laguntzak 141.000 eurotik 100.000 eurora jaitsi dituzte.
- Filmen garapenerako partida 200.000 euro hazi da, baina jasotako kopuruaren %45 gidoia lantzerako soilik bideratu behar dute ekoizleek.
- Filmen ekoizpenari dagokion atalean, 800.000 eurotik beherako aurrekontua duten proiektuentzako partida berezi bat sortu dute, 500.000 eurokoa.
- Emakumezkoen parte-hartzea duten lanak lehen unetik sarituko dituzte, prozesuan aurrera egiteko puntuak emanez.

Horrenbestez, aldaketen helburua, batetik, diruz lagundutako gidoiak, kosta ahala kosta, amaitutako film bilakatzea dela ondorioztatuko dugu. Horretarako murriztu dituzte zuzenean gidoigileei emandako laguntzak, ekoizleek gidoiaren garapenera bideratu beharrekoen mesedetan. Neurriak positiboak dirudien arren, gidoigileekiko konfiantza falta islatzen du, beren lana suspertzeko funtsezkoa zen beka murrizteak gidoigile berrien agerpena kaltetuko duelako eta ekoizleak

ohiko gidoigileekin jardutera bultzatuko dituelako, egun jada orokortuta dagoen jarrera baita. Bestetik, ordea, proiektu esperimental eta arriskutsuagoak izan ohi direnak, zuzendarien lehen obrak, abentura berriak, emakumezkoek gidatutako proiektuak... babestu nahi izan dituzte aurrekontu txikiko proiektuentzako partida bereziaren bidez. Lehen begiratuan, ez dirudi aldaketa horri traba handiegirik aurkituko diogunik.

Industriak harrera epela egin die aldaketei, neurriak apalegiak direlakoan. Horregatik, sektoreko profesionalekin hizketan jarraitzeko asmoa berretsi du Jaurlaritzak.

Juanba Berasategiren heriotza

Apirileko azken egunetan zendu zen euskarazko animazio-gintzan aitzindari izandako Juanba Berasategi (Pasaia, 1951) zinemagilea. 1985ean aurkeztu zuen *Kalabaza tripontzia* euskarazko animaziozko lehen film luzeagatik oroituko dugu gehienok, baina sektoreko lankideek eta lagunek Berasategiren ekintzailetzaren eta izaera nekaezinaren hutsunea sumatu dute jada. Animaziozko film bat osatzea ero gutxi batzuen ametsa baino ez zen garaian, zeru-lurrak astindu zituen, *sasi guztien azpitik, hodei guztien gainetik*, fantasiak errealitate bihurtzeko.

Bolantez eta erregelaz beteriko eskuz egindako zurezko mahaia izan zen marrazki bizidunen atelierra osatzeko jarri zuen lehen pieza, eta, tonaka liburu zein film irentsi ahala, autobuseko txartela eta ogitartekoa beste soldatarik ez zuten 30 kideren laguntzarekin, eta eskuz eta banan-banan osatutako marrazkiei bizia emanaz hasi zen pixkanaka urteetako lanaren emaitzak ikusten. *Ekialdeko izarra* (1977) izan zen habiatik irten zen lehen txorikumea, *Fernando Amezketa-rra* (1979) hamar minutuko film laburra izan zen bigarrena (urte batzuk geroago etorriko zen bertsolariari eskainitako telesaila), eta hirugarrenarekin hegoak guztiz zabaltzea eta garai hegan egitea lortu zuen, *Kalabaza tripontzia* filmak

Donostia Zinemaldiko Ohorezko Aipamena eta Espainiako Kultura Ministerioaren kalitate bereziko film izaera erdietsi baitzituen. Lanok, zein ondoren etorriko ziren *Kukubiltxo* (1986) laburrak, *Ipar haizearen erronka* (1991) luzeak eta *Lazkao Txiki* (1997) telesailak, tartean, Berasategik sekula zalantzan jarri ez zituen bi osagarri garrantzitsu zituzten: euskal gaiei buruzkoak ziren, eta euskarazkoak.

Baina Berasategiren jarduna ez zen marrazketa mahaira mugatu: Lotura Films ekoizpen etxea sortu zuen, animazioaz gain dokumentalak ere ekoizteko; muntatzaile lanetan jardun zuen, eta marrazki bizidunen egile ugariaren maisu izan zen; aldizkari eta literatur lanetarako ilustrazio ugari osatu zituen, baita euskal gaiekin lotutako proiektuentzako logoak ere; eta ikus-entzunezkoen egile eskubideak kudeatzen dituen EGEDA erakundearen, ASIFA Animaziozko Filmen Nazioarteko Elkartearen eta Ibaia Ikus-entzunezkoen Euskal Ekoizle Burujabeen Elkartearen sortzailea izan zen, azken honetan baita lehendakaria ere. Industriaren parte ez ezik, eragile izateko beharraz jabetu zen lehen unetik, eta haren ekarpena eskertzeko ez dira nahikoak Gipuzkoako Foru Aldundiak 2006an eman zion Anton Abbadia saria, ezta Donostia Zinemaldiaren eskutik 2013an jasotako Ohorezko Zinemira garaikurra ere. Ez zen sarizalea; horiek jasotzeko merezimenduak, ostera, barra-barra egin zituen.

Kanaldude, zerbitzu publikoa

Oharkabean igaro da, ostera, ondorengo albistea. Frantziako Akitania Berria eskualdeak telebista-zerbitzu publikoa eskaintzeko 2018-2020ko kontratuak izenpetu zituen urrian, eta onetsitako lau telebisten artean, Bidarrain (Nafarroa Beherea) egoitza duen Kanaldude herri-telebista dago. Hiru urtez, urtean 243.000 euro jasoko ditu zerbitzu publikoa eskaintzeko, euskararen presentzia eskualdeko ikus-entzunezkoan bermatzeko eta tokiko ekoizpena sustatzeko.

Kanaldude Aldudarrak Bideo Interes Kolektiboko Koope-
ratibatik eratorritako proiektua da. 1997an Ipar Euskal He-
rriko tokiko hedabideetan euskararen erabilera sustatzeko
asmoz sortu zuten telebista parte-hartzailea, eta hogeitau urteko
ibilbidearen ondoren, tokiko ikus-entzunezko sektorea dina-
mizatzen duen enpresa bilakatu da. Bertako bizimoduaren,
ekonomiaren, kulturaren, gizartearen... inguruko saioak,
erreportajeak eta elkarrizketak egiten dituzte, eta edukiok
on line kontsumitu daitezke, nahiz eta ohiko telebista apa-
ratura ere iraul daitezkeen. Akitania Berriarekin sinatutako
hitzarmenaren ostean, baina, ekoizpen erritmoa bizkortu
beharko dute, eguneroko programazio finkoa eskaini beharko
dutelako, eta egoera berrira egokitzeko kide berriak kontra-
tatuko dituzte.

Albiste pozgarria da sektorea indartzen duelako, eginda-
ko lanaren aitortza delako eta euskarazko hedabideen izaera
estrategikoa agerian jartzen duelako. Baina bada kontuan
hartu beharreko bigarren alderdi garrantzitsu bat: euskal
ikus-entzunezkoen ekoizpenean inbertitzeko aukera izango
duen telebista publikoa izango da aurrerantzean Kanaldu-
de (aldeak alde, EiTBren mailan), eta mugaren bi aldeetako
proiektuak sustatzeko eragile ezin hobea bilakatu da. Kanal-
duderen zuzendari Ximun Carrerek adierazi zuenez:

ekoizleentzako deialdiak egingo ditugu, baita Hego Euskal He-
rriko enpresei bideratuta ere, eta horrek mugaz gaindiko proiektu
handiak sustatzeko aukera emango digu. Frantzian eta Eu-
ropan ere oihartzuna izan dezaketen dokumentalak, fikzioak...
egin ahal izango ditugu, EiTBrekin elkarlanean.

Joko-zelai berriak eskainiko dituen aukerak maneiatzen as-
matu beharko du orain sektoreak. 🍷



Inguru(r)a moldatzea: ohiturazko ugaztunak gara

Bernardo Atxagari entzun nion behin, Bilboko Santutxu auzoko eliza batean eman zuen hitzaldian, Infernua Elizak kontatu digun bezala ezin daitekeela existitu, arinago edo beranduago bertara ohitu egingo ginatekeelako. Infernuko garrak hasieran mingarri izango litzaizkiguke, noski; baina egunen, urteen eta mendeen joanarekin kiskaltzera ere ohitu egingo ginateke, eta, are, normaltzat eta berezkotzat hartu. Beraz, Infernua eta Zerua, amaigabeko zigor edo sari bezala, ezinezkoak dira.

Burutazioaz sarri gogoratu ohi naiz gure planetan gizakiak bizi dituen egoera muturreko, miragarri eta bidegabeenez oroitzean. Ia edozein egoera eta errealitate normaltzat, onargarrizat eta, are, emantzat hartzeko gaitasun existentzial harrigarria daukagu (giza) ugaztunok.

Giza komunikazioari dagokionez ere, iruditzen zait ugaztunon errealitate(r)a moldatzeko eta errealitatea onartzeko gaitasun bikoitz hori ezinbestekoa dela egungo komunikabideen ekosistema eta bertan ditugun hartu-emanak ulertu, irudikatu eta eraldatu ahal izateko. Zehatzago esanda, giza komunikazioaren baitan gertatzen ari diren aldaketa sakoneko eta azeleratuetara moldatu eta ohitzeko gaitasuna da, agian, (euskal) komunikazioaren ekosistema garaikidearen ezaugarri nabarmen eta harrigarrienetakoa.

Nola ulertu bestela zein erraz zein azkar ohitu garen eskuko telefonoetara, zein natural esaten dugun «Internetera sartu», nola aldatu diren guk geuk sortu edo besteengandik hartutako informazioa 'fisikoki' jaso, gorde eta berreskuratzeko moduak (pentsa bestela gure pantailen tamaina eta

kopuruetan, gure USB eta microSD gailuetan, *hodeian*, *online* zerbitzuetan...).

2017ko Bertsolari Txapelketaren saio gehienak streaming bidez jarraitu ahal izan ditugu zuzenean Youtuben, eta bertso horietatik asko eta asko gordeta daude, berriro entzun eta ikusi nahi dituenarentzat. Bat-bateko jarduna zuzenean jarraitu eta auskalo nora *deslokalizatutako* disko gogorretan artxibatze gaitasun teknikoa eskura daukagunez, oso modu naturalean hartu dugu. Bertso batzuk (bakanen bat) telebistatik, irratiari, egunkarietako webguneetan, Twitterren, Facebooken, Whatsappen... zabaldu dira. Burrunbatxo mediatiakoa eragin dute eta bertsozale ez direnen begi-belarrietara ere heldu dira, futbola jarraitzen ez dugunon begi-belarrietara emaitzak eta kokapenak heltzen diren modu antzeratsuan.

Pentsa. Korporazio transnazional erraldoien zerbitzuak eta esklabotzazko baldintzetan mihizatutako gailuak erabiltzen ari gara zer eta gure hitzaren kirol nazionalari oihartzun sozial berriak aurkitzeko (noski, inguruko hizkuntza, kultura eta herri hegemonikoekin alderatuta burrunbatxo entzunezinak baino ez direnak).

Egin dugu jauzia, baina oharkabean egin dugu. Izan ere, giza ugaztunak gara, eta hori egiten dugu: inguru(r)a moldatu, eta ohartu orduko ohitu gara egoera berrira.

Bide ondoko afixak: paisaiatik eta ekosistemara

Leonardo Boff teologo brasildarrak ekologia honela definitu zuen iragan mendean: «ekologia harreman, elkarri lotze, elkarrekiko menpekotasun eta elkartrukeen inguruko ezagutzada, puntu guztietan eta une guztietan»¹ (Boff 1996: 16). Badago zer edo zer ekosistema hitzean elkarrekintzaren ideia burura dakarrena: elkarri lotu, elkarren menpe egon, elkar trukatu. Independentzia posible ez omen den garai eta lekuotan, agian merezi digu gure dependentzia eta interdependentzia egiturei erreparatzea, eta egun publizitatea ikusten

dut nik elkarmenpekotasun horien muinean. Ez naiz hain zaharra, eta halere garbi samar gogoratzen dut Interneten publizitaterik apenas zegoen garaia. Webguneak zurrinak, soilak eta aspergarriak ziren, edo kolore min eta letra mota xelebreekin osatutako margolan kitsch sinestezinak bestela, baina apenas zegoen publizitaterik.

Egun «Interneten sartzea»² errepide ondoan bi metrotik bi metrora publizitate horma-irudi erraldoi bat dagoen autopista hartzea bezalakoa da. Zoazen lekura zoazela, publizitatea aurkituko duzu. Publizitate sinestezina, absurdoa, behar ez duzula argi duzun gauzak eskaintzen dizkizuna, baina zure ibilbideetatik ikasiz doana, zure arretari erreparatzen diona, zugandik ikasten ari dena.

Zientzia-fikzioko distopia lirudike, baina oso gurea, oso oraingoa da egoera: gure sakelako 'telefonoek', laneko ordenagailuek, egongelako 'telebistek'... gure egunaren tarte guztietako (eta tarte horien tarte guztietako) elkartruke digitaletatik edaten dute errepide alboetako afixa erraldoiek, eta gure ohitura eta zaletasun, gure aztura eta errutinetatik ikasten ari dira. Azkar, gainera.

XX. mendean gure ardura kartel horiek ez diren bidaiaren hondoko paisaia erabat aldatzeaz gainera gidarien arretak desbideratu eta istripuak eragin zitzaketela bazen, XXI. mendearen hirugarren hamarkadara hurbiltzen ari garen honetan gugandik zenbat ikasten ari diren izan daiteke ardura. Bestela esanda, publizitatea ez da gure leihotik ikusten den paisaia, gure ekosistemaren parte baina. Gure bizi-mundua goitik behera bustitzen duen materialtasuna bera osatzen du egun.

«Ez zaude trafikoa harrapatuta, trafikoa zara»³ baldin bazioen mende hasierako *meme* batek, egun gauza bera esan genezake informazioaz: ez zaude informazio salerosketan harrapatuta, zu zara informazioa. Hori horrela zen lehenago ere, noski: prentsatik hasi eta zinemaraino; baina teknologiak gure ibilera digitalen (eta analogikoen) berri izatea ahalbidetu duenean, sakonean zerbait aldatu da, komunikazio eta informazioarekin lotutako ia jarduera oro (irakurtzen ditugun

artikuluetatik erretzen ditugun kaloria kopuruetera) neurtu eta merkatu balio sinboliko eta ekonomikoak eransteko gai bihurtu garenetik.

Harpidetza militante minorizatu, publizitate instituzional eta *mainstream* kultur produktuen Big Data ahaltsuaren artean, euskal komunikabideak (denak, esango nuke) benetakotako krisi finantzari-existenzial batean murgilduta daudela iruditzen zait. Paisaia ez ezik ekosistema osoa aldatu egin zaigu, eta horrek erantzunak bakarrik ez, galderak eurak birplanteatzera behartzen gaituela uste dut.

Egia da eragile batzuek, hegemonikoek, erosoago diruditela ekaitz digitalari aurre egiteko. Baina esango nuke digitalizazioaren ekaitzak denok erasan(go) gaituela, eta babestuko gaituen azken portua non dagoen inork ere ez duela asmatu oraindik, normaltasun egoera baten plantak egiten jarraitzen dugun arren.

Edukia errege: hizkuntza, bizitza eta heriotza digitala

Dagoeneko badakigu edukia sortu, banatu, gorde eta kontsumitzeko erak sakon aldatu direla eta sakon aldatzen jarraitzen dutela bai mundu osoan, bai Euskal Herrian ere. Euskararentzat ere zeharo aldatzen ari dira edukiak sortu, banatu, gorde eta kontsumitzeko erak, hiriburuetan (eta herrietan) hitz egiten ditugun beste dozenaka hizkuntzentzat ere aldatzen ari diren bezala.

Jokoaren (giza komunikazioaren) arauak ez eze, jokoaren izaera bera aldatzera arteko aldaketak gertatzen ari dira; baina horrek ez du esan nahi Lur planeta eta gure hiru zonalde politiko-administratiboetan, euskararentzat eta beste hizkuntza hegemoniko eta gutxituetan gauzak modu edo norabide (are gutxiago noranzko) berean aldatzen ari direnik. Komunikazio eta informazioaren teknologiak, gizarte teknologiak diren heinean, gizarteetan baitan garatzen, moldatzen

eta gertatzen dira, bata bestearengandik bereiztea ezinezko bihurtzeraino. Horrek IKTen digitalizazioaren eta bateratze multimediaren fenomenoak gure ardura eta azturetatik ulertera behartzen gaitu ezinbestean.

2017ak erakutsi digu bizitasun (edo heriotza) digitalarena (Kornai 2013, Gibson 2016) ez zela moda iragankor bat izan, eta indarra hartuz joango den ardura bat bihurtuko dela hemendik aurrera. Geroz eta ohikoagoa izango da hizkuntzen osasunaz hitz egiterakoan adierazle digitalak erabiltzea: euskararen erabileraren kale neurketei sare neurketak gehituko zaizkie, arnagune fisiko tradizionalen nozioaren krisiari analogiko/digitalaren arteko uztarketaren konplikazioa gehituko zaio...

Zaila da euskal komunikabideek (eta beroriek eta beste batzuk darabiltzagun erabiltzaileok) aurretik dugun etorkizuna asmatzea, baina, eraldaketa prozesu desorekatu, dinamiko eta zentzu askotan agoniko honetan, edukia izango da zalantzarik gabe gakoetariko bat. Edukia, berori kontsumituko den zeinu sistemaren baitarako pentsatuta.

Lerro hauetan 2017ko adibide azpimarragarrien antologia bat saihesten saiatu naiz; baina, euskal komunikabideen etorkizuneko jardunaz pentsatzen jarritakoan, inprobisazioa oinarri duen hitzezko lehia irudi eta soinu-zuko web-telebista formatura eraman duen *Txapelpekoak* esperimentu multimediaz akordatu naiz (Txakur Gorria / BerriaTB 2017).

Xume, bazterreko, anekdotiko izango da posizio hegemonikoago batzuetatik begiratzen duenarentzat, baina guztiz alde-rantzizko adibidea iruditzen zait: garrantzitsua, zentrala, eta paradigmatikoa. Haren inguruan gertatuko diren kontsumo eta geureganatze jokoetan parte hartzeko eta elkarlanerako aukera berriak zabaltzeko prest egongo den ikus-entzunezko produktu xume bezain anbizioz betea iruditu zait, eta etorkizunean ikusiko ditugun saiakera multimedia berrien, etorriko diren gauza eder asko askoren adibidetxo bat.

Gure inguru analogikoaz eta digitalaz autokontzienteagoak izango diren eduki/ontzi modu berriagoak etorriko dira, komunikabideak, bide guztiak, eta komunikazioa gure zio propioagoetatik ulertuko dituzten kimu berriak.

Winter is coming, bai, baina ez nau izutzen negu hurbilak. 🍂

Oharrak

1. «... la ecología es un saber acerca de las relaciones, interconexiones, interdependencias e intercambios, en todos los puntos y en todos los momentos».
2. Kanpoan egotea hemen eta orain posible balitz bezala; baina, tira, hori beste baterako utziko dugu.
3. You are not struck in traffic, you are traffic.

Bibliografia

- Boff, Leonardo (1996): *Ecología: grito de la tierra, grito de los pobres*, Madril, Trotta.
- Gibson, Maik (2016): 'Assessing Digital Vitality: Analytical and Activist Approaches', in Claudia Soria et al. (argk.): *LREC 2016 Workshop. CCURL 2016. Collaboration and Computing for Under-Resourced Languages: Towards an Alliance for Digital Language Diversity. Proceedings*, 46-51.
- Kornai, Andrés (2013): 'Digital Language Death', *PLoS ONE* 8(10) (doi: 10.1371/journal.pone.0077056).
- Txakur Gorria / BerriaTB (2017): *Txapelpekoak*, 1. saioa, 2017-10-25 (www.youtube.com/watch?v=BvtFd4-qhhQ; 2017-12-03an eskuratua)

GAIAK

105 Euskal hedabideak, etorkizun bila
Alberto Barandiaran

Euskal hedabideak, etorkizun bila

Alberto Barandiaran
Hekimeneko zuzendaria

Itun hitza Euskaltzaindiaren Hiztegi Orotarikoan bilatu eta *elkar hartze* edo *hitzarmen* hitzak ageri dira, azalpen gisa.¹ *Akordio* hitzaren baliokidea ere izan daiteke *itun* hitza. Alegia, adostasuna eskatzen duen zerbait da, biren arteko gutxieneko bat etortze ezinbestekoa eskatzen duen harreman arautu bat.

Ituna deitu diogu Hekimen elkarteko euskal hedabideok administrazioarekin bilatu nahi dugun lankidetza berriari. Zergatik ituna bilatu, alegia, akordioa, horrek dakarren neke eta, batzuetan, ezintasunarekin, eta ez, esaterako, diru laguntza publiko gehiago eskatu, besterik gabe? Zergatik ez eutsi orain arteko harreman ia burokratikoari, non leihatila batera joan, gure erreziboa aurkeztu eta bueltan txeke bat jasotzen dugun, beti espero baino txikiagoa? Zergatik ez jarraitu orain arte bezala? Horretxegatik, lankidetza bilatu eta sustatu nahi dugula erabaki dugulako. Aldaketa handia da.

Hizkuntzen normalizaziorako hedabideek egiten duten lanaren garrantziaz zalantza gutxi dago gaur egun. Zalantza gutxi, arrazoiak hainbat aldiz irakurri ditugulako soziolinguisten testuetan, hamaika aldiz entzun dugulako ardura-dun politikoen diskurtsoetan, eta etengabe azpimarratzen dituztelako hedabideetako ordezkariak. Konbentzimendu orokor samarra da.

Duela hogeita hamabost urte, Euskal Telebista sortzera abiatu zirenean, esaldi batek laburbildu zuen gogo: «Zalantzak daude telebistarekin euskarak iraungo ote duen, baina telebistarik gabe ez duela iraungo, seguru». Gaur egun erraz samar ordezkaturiko genuke honekin: «Zalantzak daude hedabideak Interneten egonda euskarak iraungo ote duen, baina hedabiderik gabe (edo Interneten egon gabe) ez duela iraungo, seguru». Hedabide sendoak, eraginkorrak, iraunkorrak eta orekatuak behar ditugu, indartsuak. Esparru berri asko konkistatu behar dira, eta horretarako egonkortasuna behar da.

Aitortza eta konpromisoa dira hitz klabeak. Egindako lana aitortu egin behar zaio sektoreari. Eta sektorea osatzen duten enpresa eta antolamenduek konpromisoak hartu behar dituzte aurrera begira. Norbere proiektuarekin lehendabizi. Sektorearekin ondoren. Erakunde publikoekin eta euskalgintzarekin azkenik.

Baldin eta onartzen badugu, behin eta berriro errepikatzen ari garen bezala, hedabideak kultur sorkuntzaren zabaltzaile nagusiak direla, sentiberak baitira sormenarekiko, eta eragin handia izan dutela, eta badutela, kulturaren eredu integratzailea sustatzen eta zabaltzen; eta baldin eta onartzen badugu hizkuntzaren estandarizazioan egindako lana, hizkuntzari estatus jaso eman baitiote, eta horrek prestigioa dakarrelako, eta prestigioa denez hizkuntza batek Txepetxek aldarrikatzen zituen esparru funtzional horiek konkistatzeko bidea, orduan esaten ari gara eguneroko prentsak, tokiko hedabideek, euskal telebistek, irratiek, hitzunen komunitatea elikatu eta ongarritu egiten dutela.

Beti izan da horrela. Gure Mendebaldeko izkina honetan, idatzizko hedabideek bete dute, nagusiki, paper hori; beste inguruetan, ahozko komunikazioak egin du hori; gaur egun, gero eta gehiago, sareak toki orotan. Komunitateak eta komunikabidea *komun* hitzetik datoz biak. Zerbait partekatzea dago bi hitzen oinarrian. Eta hain zuzen ere dena komunikatzea denez gaur egungo gure gizarte hau ardazten duen jarduna, gero eta zentzu handiagoa baitu elkarren berri izan

eta elkarri komunikatzeak, horregatik da gero eta zeregin ezinbestekoagoa hedabideena.

Funtzio publikoaren aitortza

Euskal komunikabideek komunitatea jarri dute euren izatearen erdian. Hari esker sortu, garatu eta iraun dute. Horregatik dituzte, hedabide hitzaren aurrean ezinbesteko osagarri gisa, bi hitz horiek paratuta: *herri ekimenekoak*. Herria eta ekimena. Aditu askok azpimarratu dute nazio kontzientzia sortzeko izan duten garrantzia. Leiho bat dira: hortik zabalitzen du nazio batek bere berri, eta hortik jasotzen du munduaren notizia. Horregatik izan daitezke arnasguneak: arnasgune funtzionalak nahi bada, baina arnasguneak. Itzuliko gara horretara.

Orain azpimarratu nahi dugu bakoitzak bere funtzioa daukala oreka-desoreka honetan: orokorrek mota guztietako notiziak jasotzeko aukera ematen dute, eta gurea bezalako hizkuntza gutxiagotu batean, ezinbesteko lana egiten dute normalizazioari begira. Tokikoek hurbiltasuna ziurtatzen dute, komunitatetik gertuen daudenak direlako. Tematikoek, berriz, espezializazioa, teknifikazioa eta kolorea ematen diote hizkuntzari. Denen artean bermatzen dute, EITB-ko hedabide publikoekin batera, euskaraz informazioa jasotzeko EAEko Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko 10/1982 Legeak aitortzen duen eskubidea, alegia:

Euskal komunikabideek komunitatea jarri dute euren izatearen erdian. Horregatik dituzte, hedabide hitzaren aurrean ezinbesteko osagarri gisa, bi hitz horiek paratuta: *herri ekimenekoak*

5. *artikuhua*. Euskal Herriko herritarrei aldizkariak eta irrati-telebista eta beste hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea aitortze zaie.

22. *artikulua*. Herritar guztiei aitortzen zaie gizarte-hedabideen aldetik euskaraz zein gaztelaniaz informatuak izateko esku-bidea. Horretarako, hedabideetan euskararen presentzia areagotzera bideratutako neurriak hartuko ditu Jaurlaritzak, hizkuntza ofizial bien erabilera arian-arian berdintzeraino.

23. *artikulua*. Jaurlaritzak, aurreko artikuluan agindutako bi hizkuntzen arteko berdintasuna ziurtatze aldera, Autonomia Erkidegoko hedabideetan euskara lehentasunez erabili dadin bultzatuko du.

25. *artikulua*. Jaurlaritzak, 22. artikuluan aitortutako eskubidea arian-arian bermatzeko, euskararen erabilera bultzatu eta babesteko neurriak hartuko ditu eta, nolana ere, honako hauetan hedatu eta benetan erabiltzea ahalbidetuz: irratian, egunkari eta aldizkarietan, zineman, antzerki eta ikuskizunetan, irudiaren eta soinuaren grabazioetan.

Horretarako, gaiok ukitu eta arautu ditzaten *legeetan titulu apropos bana garatuko da*.

Esan behar da, halaber, EAEko autonomia estatutuak berak aitortzen diola EAEko administrazioari gizarte komunikabideen inguruan legezatzeko eskumena, 19. artikuluan zehaztuta dagoen bezala:

19.1. Euskal Herriari dagokio giza komunikabideei dagozkienetan Estatuko oinarrizko legeria aurrera eramatea, Konstituzioaren 20. artikuluan agintzen dena beti ere errespetatuko delarik (aniztasunaren bermea, zentsurarik ez...).

19.2. Titulartasun estatala duten komunikabideei aplikatu behar zaien arautegi bereziari dagokionez, goiko parrafoan aipatu diren gaien bururapena Estatutuarenarekin koordinatuko da.

19.3. Artikulu honetako lehen parrafoan esaten den bezala, Euskal Herriak erregula, sor eta atxiki ditzake bere telebista, irrati eta prentsa propioa, eta, oro har, bere helburuak lortzeko behar dituen giza komunikabide guztiak.

Euskal hedabideek denen artean osatzen dute, beraz, eta norbere esparruan, administrazioak ziurtatu beharko lukeen eskaintza. Funtzio publikoa betetzen dute, hiztun komunitateak detektatu duen behar bati erantzuten diotelako. Denak dira, horregatik, arrakastatsuak. Aintzat hartu eta prestigiatu behar dira. Aitortza eta babes behar dute.

ETB duela hogeita hamabost urte sortu zuteneko helburu bera ez dutela garbi dago, hala ere. Orduan, norabide bakarrekoa zen komunikazioa: hartzailea pasiboa zen. Hedabide bakoitzak norbere publikoa zeukan, bere esparrua, bere zeregina. Maiz konpartimentu isolatuak ziren: goizean, irratia; eguerdian edo arratsaldean, egunkaria; gauean, telebista. Telebista bat; egunkari bat; irrati bat. Gaur egun, dena irauli da. Paradigma aldatu da, eta hartzaileak erabakitzen du, orain, norabidea. Hartzaileak agintzen du zer kontsumitu nahi duen, noiz, nola. Bera da bere hedabidearen zuzendaria, eta hedabide hori hedabide askoren batuketa da askotan. Horrek ezinbesteko egiten du elkarlana euskarazko hedabideen artean, estrategiak pentsatzeko, proiektuak partekatze-ko, erronkei elkarrekin aurre egiteko. Elkarlana elkarrekin, eta elkarlana botere publikoekin. Elkarlana hartzaileekin. Proiektuak irekiak izan behar dira, norabide askotakoak, batzuetan aldakorrak. Tximeletaren irudia erabili izan da kontsumitzaileen ohitura definitzeko: plataforma batetik bestera hegan saltoka dabilen hartzailea da gaur egungoa.

Erronka horri erantzuteko, babes publiko nahikorik ez dute euskal hedabideek. Itota daude enpresa gehienak, urteroko martxari erantzuteko arazoekin, inbertsioak egiteko ezintasun handiarekin. Eta garbi dago desfioei aurre egin nahi baldin bazaie, erredakzio guztietan egunero presente dauden galderei erantzun nahi baldin bazaie –Nola iritsi jende gehiagorengana? Nola egin produktu erakargarriagoak? Nola limurtu kontsumitzaile gazteak? Nola lortu, azken finean, hedabideak hegemonikoak izatea euskaldunen artean, alegia, nola lortu euskal hedabideak euskal irakurle, entzule eta ikusleen lehen aukera izatea?–, orduan beste babes bat behar dutela.

Egon den planifikazio falta arazo handia da. ETB sortu eta gainerako esparruak ukitu gabe utzi zituen Eusko Jaurlaritzak, hedabideen arloan zerbait egitera ausartu zen administrazio publiko bakarra, eta lehenago, ondoren eta inguruan sortutako hedabideak ekimen isolatuak izan dira gehienetan, sektorea garatzeko bisiorik gabe. Baina ahulezia hori ere bada, era

berean, sektorearen indargune handienetako bat. Norbanako eta talde askoren ahalegin kolektiboari esker sortu da gaur egun dugun hedabide sarea. Iaz Hekimen elkarteak bildu

Mila boluntario baino gehiago ari dira euskal hedabideen inguruan. Kolaboratzaileak ere, 600 baino gehiago. Sektore askok nahiko luketen inplikazioa esan nahi du

zituen datuei esker ondorioztatu ahal izan genuen oharkabean igaro beharko ez lukeen datu bat: mila boluntario baino gehiago ari dira euskal hedabideen inguruan. Mila baino gehiago. Kolaboratzaileak ere, 600 baino gehiago. Sektore askok nahiko luketen inplikazioa esan nahi du. Balio bat da bere horretan, nahiz eta zenbakie-

tan islarik ez duen errealitatea izan.

Errelebo etengabea da beste ezaugarrietako bat. Onerako zein txarrerako, beti izerdi berria. Onerako, gazte jendea erakartzeko gaitasuna erakusten duelako; txarrerako, kosta egiten zaiolako sektoreari profesionalei eustea. Trebatu ondoren eskarmentua lortzen dutenean, baldintza hobeen bila alde egin behar izaten dute askotan. Edozein sektore produktiboren kezka nagusietako bat litzateke, eta bada, euskal hedabideen sektorean.

Jakina administrazio publikoek emandako diru laguntzek osatu dutela ahalegin militante hori. Urteetan iraun duten diru sailak dira, Jaurlearitzaren Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzarenak zein Diputazioenak, Nafarroako Gobernua-renak, Euskal Erakunde Publikoarenak, hainbat eta hainbat udal eta mankomunitaterenak. Eta, hala ere, gainditu beharreko langa handiak daude oraindik. Gune ilun asko daude, geografikoki zein eskaintzari dagokionez. Eskualde guztietako euskaldunek ez dute euskaraz kontsumitzeko aukera bera.

Gune ilun geografiko zein tematiko horiek betetzeak izan behar luke ahalegin partekatua helburu nagusia. Eta horrek gogoeta eskatzen du. Eta babes legal berria. Babes iraunkorra eta adostua.

Zertarako babes legal berria, beraz?:

- Euskararen sustapen eta erabileraren inguruan gaur egungo EAEko legedian jasota dauden eskubideak (informazioa zein hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea, hizkuntzen arteko berdintasuna, erabilera) eta planak (euskara sustatzera zuzendutakoak) bermatu ahal izateko, komunikazioaren eremua helburu horretara jarriz.
- Gaur egungo komunikazio ohiturek eta beharrek paradigma berria sortu dutelako, non hartzailea den, gero eta gehiago, komunikazioaren norabidea agintzen duena. Desafio itzela da hedabideentzat, elkarlanaren beharra are nabarmenagoa egiten duena: estrategiak pentsatzeko, proiektuak partekatzeke, erronkei elkarrekin aurre egiteko. Euskal hedabideen kasuan, begi-bistakoa ez ezik, ezinbestekoa da elkarlan hori.
- Erronka digitalak eztabaida eta adostasuna eskatzen duelako.
- Jende gehiagorengana iristeko, produktu erakargarriagoak eta eraginkorragoak egiteko, eta hedabide hegemonikoak lortzeko euskaldunen artean.

Posible da?

Esan dugu lehenago gutxienez EAEko egitura administratibo eta juridikoak aukera ematen duela euskal hedabideen esparrua antolatu eta egonkortzeko. Ez gara eskatzen ari ezinezkoa den ezer. Eskatzen ari gara da gure egoerara egokitutako berme bat. Antolamendu administratibo eta politikoak baditugu horretarako: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernu, Ipar Euskal Herriko erakundeak, hiru diputazioak, hainbat udal. Denek dituzte politikak euskararen sustapenerako. Beharbada halako harmonizazio bat eskatu beharko da, halako irizpide bateratze bat?

Baina gurean posible dena, bitxikeria ote da? Hemendik kanpo arrotza den sostengu politika eskatzen ari gara? Anakronismoa ote da hedabideentzat sostengu publiko bat eskatzea?

Edorta Arana, Marijo Deogracias eta Gorka Salces irakasleek 2015ean egindako ikerketa baten arabera, Europar ugari dira hedabideentzako diru laguntzak, eta haien oinarrietako bat da komunikabideen pluraltasunaren defentsa, eta prentsa askatasunaren bermea. Eta gure inguruan ezaguna dugun hedabideen jabetzaren kontzentrazioa «arriskutzat» hartu ohi du Europak, pluraltasunaren eta aniztasun kulturalaren mehatxutzat, hain zuzen ere. «Merkatu-lehia hutsean oinarritutako sistemak ezin du bermatu, bere horretan, komunikabideen pluraltasuna», dio 2008ko Europako Parlamentuaren ebazpen batek. Hau da, merkatuak berak sortzen dituen desorekak arintzeko eta orekatzeko modu bat dira diru laguntzak.

Ebazpen horrek berak honela dio beste pasarte batean:

Komunikazioaren enpresa erraldoiek berebiziko indarra lortu dute, eta sarritan nagusi izatera heldu dira partaide diren hainbat Estatutan [...].

[...] komunikabideen sistemaren baitako jabetzaren kontzentrazioak sortzen du ingurune bat non publizitatearen merkatua monopolizatzen laguntzen duen, merkatuan eragile berrien sarrierari langak sartzen dizkion eta, modu berean, komunikabideetako edukien uniformetasunera eramaten duen.

Europako Parlamentuak Batzordeari eta partaide diren Estatuak eskatzen die komunikabideetako pluraltasuna babestu dezatela eta Europar Batasuneko hiritar guztiek komunikabide libre eta anitzak izan ditzaten ardurak hartu ditzatela (Europako Parlamentua, P6_TA (2008)0459).

Egia da Europar modu askotara erabakitzen direla diru laguntzak, eta bi jarrera kontrajarri atzeman dituzte artikuluen egileek: alde batetik, komunikabideen sektorean estatuak paper arautzailea izan dezala eskatu dutenak; bestetik, eskaintza eta eskaeraren legea defenditzen dutenak. Jarrera horren atzean, bi laguntza mota identifikatu daitezke Europako estatuetan: zuzenak (ez hain ohikoak) eta zeharkakoak (lehentasunezko BEZa, posta eta telefonia salneurri baxuak edo zerga arinak ahalbidetzen dituztenak).

Esan behar da publizitatea ere, batzuetan, erakundeek egunkarien fakturazioa handitzeko erabiltzen duten mekanismoa

dela. Publizitatea baldin bada administrazioek mezu publikoak zabaltzeko erabiltzen duten kanaletako bat, zentzuzkoa dirudi kanal horiek hedabideetan banatzeak, are gehiago bi hizkuntza dituen administrazio elebiduna baldin bada. Zentzuzkoa dirudi, beraz, mezu publikoak ez bakarrik bi hizkuntzetan modu egokian banatzeak, baizik eta hedabideen pluraltasuna errespetatzeak, hain zuzen ere Europak salatzen duen jabetza kontzentrazio horren aurka neurriak jartzearen.

Oro har, beraz, hiru komunikazio politika eredu atzeman zituzten EHUko ikerlariak Europan:

- Eredu mediterraneo polarizatua (Frantzia, Italia, Espainia), non zuzeneko zein zeharkako laguntza sare konplexua dagoen, aniztasun eta aukera zabala ziurtatzearen.
- Eredu korporatibista demokratikoa (herrialde nordikoak, Europa erdialdea), non diru laguntza handiak dauden pluraltasuna sostengatzeko, kontzentrazioari eta egunkarien desagertzeari aurre egiteko eta hizkuntza gutxietako egunkariak babesteko.
- Eredu liberala (Erresuma Batua eta Alemania), non diru laguntza zuzenik ez egon arren, zeharkako diru laguntza oparoak ematen diren.

Badirudi Europan, oro har, prozedura aldatu beharraren aldeko jarrera dagoela, sektoreak egiturazko aldaketak jasan dituelako, eta informazio askatasun eta pluraltasunaren kontzeptuak arriskuan ikusten direlako.

Nolanahi ere, badirudi arazoak daudela laguntza deialdiak aldatzeko: alde batetik, gobernuen eta klase politikoen interes faltagatik; bestetik, Europa mailako legedirik ez dagoelako; hartzaileen beraien susmoagatik azkenean, edozein erreforma kalterako izango delakoan.

Aztertutako txostenen arabera, beraz, agente publikoen eta pribatuen jarrera baikorragoa eta proaktiboagoa behar da etorkizunari begira eta, bestetik:

- Komunikabideen laguntza publikoak diseinatzeko, oinarrikoak dira informazioaren transmisioa eta gizartearen

eztabaida publikoa ahalbidetzen duen medio sistema bat laguntzea eta pluraltasun informatiboa bultzatzea, kultura eta hizkuntza aniztasuna sustatzea eta prentsaren kalitatea bermatzea.

- Idatzizko prentsaren diru-laguntza politikak ohikoak dira Mendebaldeko herrialdeetan eta berriaz egindako plangintzetan zehazten dira, herrialde eta une historiko bakoitzaren beharrezan erantzunez.
- Hasieratik, prentsarako zeharkako laguntzak gastu esanguratsua izan dira erakunde publikoentzako. Laguntza zuzenak ematen diren herrialdeetan, berriz, selektiboak eta mugatuagoak ohi dira aurrekontu eta helburuetan, eta horien helburua da: merkatuaren desbideratzeen orekatzea; aintzat hartu ez diren arlo sozial, kultural eta linguistikoak babestea; aniztasun informatiboari atek irekitzea; medio txikiaren jarduerak bultzatzea eta teknologia eta profesionalen berrikuntza sustatzea.
- Suedia, Frantzia, Flandria eta Estatu espainiarreko hainbat erkidego autonomotan eguneroko prentsa diruz laguntzeko sistemak erabiltzen dituzte, aniztasuna, enpresen bideragarritasuna, hizkuntza gutxituen sustatzea eta komunikabide handiek aintzat hartzen ez dituzten gizarte sektoreei buruz informazioa ziurtatzearen. Gainera, ereduak eta inguru digitalean eta multimedien egon diren esperientzia arrakastatsuen bilaketa ere herrialde horiek diruz laguntzen dituzten jarduerak dira.

Baina benetan beharrezkoak dira?

Hedabideek badute, oraindik gaur egun, beti aitortu zaien ezinbestekotasun hori, hizkuntz komunitatea egituratzeari begira? Galdera horren bueltan aritu ginen joan den uztailan, UEUK antolatutako *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktikarako aukera berriak birpentsatzen* izeneko ikastaroan, eta han botatako ideia batzuk berreskuratu nahi genituzke orain.

Ez dugu hemen azalduko arnasgunearen kontzeptua. Azpimarratu nahi genukeen ideia da gotorleku txiki horietatik atera behar dugula hizkuntza, espazio berriak konkistatzeak berebiziko garrantzia daukela. Berebiziko garrantzia dauka arnasguneen ideia soziolinguistikatik atera eta esparru komunikatibora ere zabaltzeak. Ezen, ez dezagun gure burua engaina: gune trinko gotorrak, euskara bizi-bizi dabilen esparru geografiko eta soziodemografiko zabalak non daude gaur egun? Ze ingurutan bizi daiteke, gaur egun, erabat euskaraz? Zenbat hirik, hoge mila biztanle ingurukoak, ziurta dezakete euskaraz normaltasunez esparru guztietan bizitzeko aukera? Azken datu soziolinguistikoek frogatu dute toki euskaldunenetan ere erdarak gero eta presentzia handiagoa duela, eta alderantziz: nagusiki erdaldunak diren inguruetan euskararen presentzia igotzen ari dela apurka. Berdintzen ari da, beraz, mapa soziolinguistikoa. Koloreak galtzen ari da: bizienak eta motelenak. Ahaztu ditzagun horrek sor ditzakeen kezkak, hizkuntzaren kalitate eta bizi indarrari dagokienez, eta itzul dezagun begirada komunikabideetara.

Arnasguneen inguruan dakigunagatik, beraz, gero eta esanahi gutxiago daukate Bonaparteren eta, are, Zuazoren beraren mapa koloretsu horiek. Ez dago kolore bakar batez marraztu daitekeen gune linguistikorik gurean. Euskaldunen portzentajeen inguruko datuak zirkuluen bidez ez ote dira adierazi behar? Zirkulu txikiak, handiak, kontzentrazio maila desberdinetakoak, lurralde osoan barreiatuta. Ez genituzke, beraz, arnasgune geografikoak pixka bat ahaztu eta arnasgune kontzeptualak bilatu behar? Espazio ez fisikoak, baizik

Ez genituzke arnasgune geografikoak pixka bat ahaztu eta arnasgune kontzeptualak bilatu behar? Espazio ez fisikoak, baizik mentalak? Ez genituzke bilatu eta indartu behar 'D eredu' gisa funtzionatzeko moduko espazioak?

mentalak? Ez genituzke bilatu eta indartu behar 'D eredu' gisa funtzionatzeko moduko espazioak?

Nafarroako Gobernuak duela gutxi onartu du euskararen lehen plan estrategikoa. Bai, lehena. Hizkuntza politikak lurralde horretan hogeita hamar urte inguru baditu ere, orain arteko ibilbidea honako fase hauen bidez laburbildu daiteke: lehen fase batean, oinarriak jartzeko ahaleginak egin ziren, PSNren babes epelean; bigarren fase batean, lehen urrats txiki horiek egonkortzera jo zuten, UPNren jarrera ezaxolati arduragabearekin; hirugarren fase batean, dena eraitsi nahi izan zuten UPNren gorrotoak eta PSNren konplizitateak; laugarren fase batean, orain bizi duguna, berriro hasierako oinarriak berreskuratzen ahalegintzen ari da gobernua, ekaitz giroaren erdian. Esan daiteke aukera iritsi denean urratsak aurrera egiteko, inoizko girorik eskasaren erdian iritsi dela aukera hori: euskararen aurkako jarrera politiko zein sozial gotor kezagarria lagun; ahuldade diskurtsiboa galga; ezintasun kroniko konponezina ezaugarri. Baina, nolahi ere, lehen aldiz, plan estrategiko bat dago Nafarroan.

Plan estrategiko hori aurkezten ari zirela, datu bat benetan zirrargarria eman zuten ezagutzera. Ez da berria, 2011ko Inkesta Soziolinguistikotik ateratako datua da; baina, bere horretan, oso gogorra da lehen aipatutako guneko soziolinguistikoko mentalak bilatu nahi baldin baditugu: Nafarroan, biztanleriaren %5,5ek osatzen du guneko trinkoa dei dezakeguna, alegia, euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen duena. Kopuru hori %20 da EAEn; %9,5 Ipar Euskal Herrian. Euskara erabili bai baino erdara baino gutxiago erabiltzen dutenak %7,3 dira EAEn, %7,1 Iparraldean eta %1,9 Nafarroan. Horrek esan nahi du Euskal Herri osoan benetan euskaraz bizi den jendea, alegia, hizkuntza etxean, lantokian eta kalean erabiltzen duena %16 inguru dela.

Hori da bihotza, hortik dator uhinak zabalduko dituen ponparen indarra.

Kontsumoa aldatzen ari da

Joan den udaberrian, oso jardunaldi interesgarria izan genuen Martin Ugalde Kultur Parkean. Han elkartu ziren Euskal Herri osoko 30 hedabidetako 60 lagun inguru. Euskara hutsean egunero beharrean ari diren kazetariak ziren gehienak, gehi kudeatzaile batzuk, eta baita hainbat teknikari edo komertzial ere. Jardunaldiaren helburua zen Facebook sare soziala euskal hedabideek nola erabiltzen duten aztertu eta aurrera begira izan ditzakeen aukerez hitz egitea. CodeSyntax enpresako kideek propio Hekimen elkartearentzat egindako azterketa baten berri eman ziguten; hiru euskal hedabidek norbere esperientzia azaldu ziguten (haien porrotak, haien arrakastak); Libe Mimenza Euskal Hedabideen Behategiko koordinatzaileak berak, azkenik, sare sozialak erabiltzeko hainbat aholku eta pista eman zizkigun.

«Facebook?», esango duzue. «Hori ote da euskal hedabideen kezka gaur egun?». Bai, Facebook. Sare sozial horretatik iristen dira euskal hedabideetara Interneten bidez iristen diren bost lagunetatik bat. Tokiko hedabideen kasuan, are handiagoa da portzentaje hori. Hiru urtean bikoiztu egin da kontsumoa. Badirudi gora egingo duela hurrengo urteetan ere. Argi dago hor egon beharra dagoela. Kontua da hortik etortzen diren hartzaileak ez direla iristen zuzenean hedabideen orrietara. Partekatu egiten dute kontsumoa, elkarri iradokitzen diete han eta hemen irakurri, entzun edo ikusitakoa; komentatu egiten dituzte interesgarri iruditu zaizkien edukiak, baina, zorioneko audientziei begira, nolabait galdu egiten den kontsumoa da: ez du arrastorik uzten inkestetan. Askotan, hedabideen webgunean sartu ere ez dira egiten. Gero eta gehiago gertatzen den fenomeno da: «irakurri/entzun/ikus duzu hau eta hau?». «Bai». «Non?». «Ez dakit».

Bitxia da: 2015ean lortu genuen aspaldian sektorea eskatzen ari zen neurketa sendo bat, HPSk berak enkargatua, baina datuak inoiz baino gehiago lortu dituenean sektoreak, badirudi gero eta garrantzi txikiagoa izango dutela neurketa horiek

aurrerantzean, gero eta zailagoa izango delako kontsumo tradizionalaz hitz egitea. Jendeak gero eta gehiago kontsumitzen ditu euskal hedabideak, iaz %10eko igoera izan zuen kontsumo horrek Interneten, baina neurketa klasikoek ezin atzeman dezaketen joan-etorrietan galduta bizi da hartzailea.

Jendeak gero eta gehiago kontsumitzen ditu euskal hedabideak, iaz %10eko igoera izan zuen kontsumo horrek Interneten. Gero eta hedabide eta hartzaile gehiago ditugu, baina inkestetan txiki izaten jarraitzen dugu

Gero eta hedabide gehiago ditugu, gero eta hartzaile gehiago, baina inkestetan txikiak izaten jarraitzen dugu.

Eta, hala ere, datuak esanguratsuak dira, kualitatiboki hartuz gero. Aipatu inkestan ateratako ondorio nabarmenetako bat da prentsa idatzia- ren kasuan, euskaraz irakurtzen hobekien moldatzen diren euskaldunen artean, *Berria* dela egunkaririk irakurriena. Ia bostetik batek aukeratzen du egunkari nazionala. Astean

zeharreko irakurleak zenbaturik, 117.000 kontsumitzaile baino gehiago dauzka *Berria*-k. Zatirik handiena egunero-eguneroko irakurleak dira: 62.000 lagun.

Tokiko prentsak, berriz, 200.000 irakurle baino gehiago dauzka Euskal Herri osoan, azterketaren unibertsoztat jo den hiru irakurletako bat, alegia. Tokiko prentsa erreferentziazko prentsa da Debagoiengan, Durangaldean edo Bidasoaldean, esaterako, hau da, kalitatezko proiektuek, tokiko administrazioekin elkarlanak eta ingurune soziolinguistiko egokiek bat egin duten inguruneetan. Adibide horietatik jaio dira beste hamaika proiektu, eskaintza ugarituz eta aberastuz.

Aldizkari tematikoen eragina ere ez da makala. Espainian Naukas eta SINC dira erreferentziazko webguneak zientziaren eta teknologiaren dibulgazioan, eta Naukasek 2015ean 15 urtetik gorako biztanleria alfabetatuaren %14,9 izan zuen bisitari; SINC webguneak, aldiz, biztanleen %11. Euskal

Herrian zientziaren eta teknologiaren berri emateko erreferentziazko webguneak zientzia.eus eta aldizkaria.elhuyar.eus dira, batez ere. Zientzia.eus-ek bere publiko potentzialaren %17ren bisitak lortu zituen urte berean.

Ez dira besterik gabe harrotzeko datuak, baina erakusten dute euskal hedabideek txukun betetzen dutela beren zeregina, arduraz eta profesionaltasunez.

Josu Amezagak eta Gorka Salcesek *2015eko Euskal Hedabideen Urtekaria* izeneko argitalpenerako egindako artikulu batean azaldu zuten, euskarazko komunikabide tradizionalak euskaldunen erdiarengana iristen dira. Kontsumo hori txikiagoa da gazteen artean, eta produktu bakarrera mugatu ohi da. Hauskorra da, beraz. Nolanahi ere, azken urteotan igo egin dela ondorioztatu zuten egileek. Duela zortzi urte, Hego Euskal Herriko 14 urtetik gorako populazioaren %15ek kontsumitzen zuen, egunero, euskarazko komunikabideren bat. Iaz, %19k. Datu horiek Hizkuntzen Kale Erabilerak eta Inkesta Soziolinguistikoak ematen dituzten erabilera orokorraren datuak gainditzen zituztela ondorioztatu zuten Amezagak eta Salcesek. «Zentzu honetan esan daiteke oraindik irabazi beharreko eremu ugari dagoen arren, komunikabide horiek lan handia egiten ari direla euskaldunak euskarazko eremu publikoan integratzeko».

Baina eraginkorragoak izan behar dira hedabideak; hegonia bilatzeko asmoz, elkarlanean aritzea edo elkarrekin proiektuak sortzea eskatu behar zaie, kalitatean exijentzia handiagoa ere bai. Aztertu egin behar dira orain arteko mugen eta ezintasunen arrazoiak, eta helburu izan beharko lukete orain arte jaso duten sostenguaren adina eraginkortasun itzultzea. Gutxienez. Eta, horretarako, une honetan, erakunde publikoak ondoan behar dituzte.

Bai, egia da komunikabideez ari garela, eta komunikabideek, bai behintzat gure Mendebalde honen izkina honetan, bai behintzat esparru nazionalari zor zaion informazio orokorrekoei, askeak, independenteak, kritikoak izan behar dute. Kazetariak, kazetaritza klasikoan bederen, kontrola ezarri behar

dio botereari, eta horretarako morrontza zenbat eta gutxiago sumatu inguruan, hobe. Egoera ideala litzateke autofinantza-keta maila altua duten hedabide zentratuak, loturarik gabeak.

Hori bezain egia da gure merkatuak ezartzen dituen baldintzak direla-eta, etengabeko desabantailan dagoela euskara hutsean funtzionatu nahi duen hedabidea. Euskal hedabideak ez dira euskal hedabideekin lehian sartzen, erdal hedabideekin baizik. Kioskoan, euskal eguneroko batek hamar erdal egunerokorekin egin behar du borroka egunkari saltzaileak goizero txukun-txukun jartzen duen ale metaren gainean egon dadin. Azpian geratu ohi baita. Eta desoreka hori zuzentzea administrazioari dagokio neurri batean.

Horretan ados baldin bagaude, beraz, elkarrekin landu beharreko esparrua dute aurrean, hedabideek eta administrazioek. Une egokia izan daiteke hau.

Orain izan daiteke

Aldeko giroa dago. Azken bi urteotan aldaketa nabarmena sumatu da botere publikoetan. Elkarlanerako eskaintzak ez ezik, ekintzak ere badaude. Hor dago Euskarabildua, hor dago Gipuzkoako Foru Aldundia bultzatzen ari den Putzuberri dinamika, hor dago Nafarroako Gobernuaren plan estrategiko berria. Asmatu edo ez, ekintza zehatzen norabidea eztabaidatu edo ez, diskurtsoa dago euskalgintzan ari diren eragileekin bide bat egiteko. Duela ez asko, ezinezkoa zen horrelako diskurtsoak entzutea, beste motatako jarrera zelako nagusi: lidergoa erakustearena, elkarlana sustatzearena baino. Giro hori aprobetxatu beharra dago, baina giroarekin bakarrik ez da bidea egiten. Elkarlana aldarrikatzen baldin bada, paretak botatzea da eginkizuna, eta, paretak botatzeko, konfiantza behar da. Konfiantza bidearen amaieran zerbait egongo dela, ez dela izango iritsi eta buelta emateko tentazioa.

Eta horretarako ausardia behar da.

Hekimenen biltzen diren euskal hedabideek lanketa oso interesgarria egin dute 2017an zehar GFArekin eta HPSrekin.

Datorren urtea izango da orain arte egindako bidea errematatzekoa. Bide osoan, begien aurrean izan dugu, itsasargi gisa, hainbeste aipatu ditugun bi hitz horiek: aitortza eta konpromisoa.

Aitortzak esan nahi du itun baterako lehen urratsa izan behar duela euskal hedabideek egin duten ibilbide horren onarpena, mapa minimoa baita gaur egun dagoen hedabide sarea. Aitortzak esan nahi du konpromisoa hartu behar dela ezinbesteko lan hori ziurtatzeko baldintza minimoak adosteko: produkziarako gutxienekoak; lan baldintzak hobetzeko urratsak; proiektu berriak abiatzeko estrategiak.

Marko berrian, diru ekarpenez gain, helburuak eta egitekoak zehaztu beharko dira elkarrekin. Laguntza ekonomikotik harago, laguntza logistikoa beharko da, promozioa eta zabal-kundea egiteko, kioskoetako salmenta errazteko, informazio iturrietan betorik ez gertatzeko, publizitate instituzionalaren egoera iraultzeko. Plangintzaz hitz egin behar da. Horretarako, elkarlanean aritzeko borondatea behar da. Soilik horrela adostu ahal izango dira kalitatea irabazteko neurriak, irismena areagotzeko estrategiak eta hedapen handiagoa lortzeko bide orriak. Eta emaitzak neurtu beharko dira gero. Euskal Hedabideen Behategia izan daiteke tresna egokia. Sektoreak eta Euskal Herriko hiru unibertsitatek (EHU, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea) bat egin dute proiektu horren inguruan. Aurten UEU ere batu zaigu.

Administrazioa falta zaigu. Behategiak, emaitzak aztertu ez ezik, adostutako proposamenak egin beharko litzuzke, bide berriak marraztu litzake. Autoritatea izan liteke.

Baina konpromisoa ere behar da. Konpromisoa eskatu behar zaie hedabideei norbere proiektutik harago begiratu eta

Hekimenen biltzen diren euskal hedabideek lanketa oso interesgarria egin dute 2017an zehar GFArekin eta HPSrekin. Datorren urtea izango da orain arte egindako bidea errematatzekoa

sektoreari begiratzeko. Konpromisoa, ez norbere proiektua kolokan jarri edo kamustuta uzteko, ezpada elkarren artean eraiki daitezkeen esparru komunak bisualizatzen hasteko. Konpromisoa lankidetzan posibleen alde lan egiteko.

Hekimen elkarteak proposamena egin zuen joan den urtean horretarako, eta lortu genuen berehala GFaren konplizitatea. 2017aren hasierarekin, Jaurlaritza berriarekin, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza ere batu zaigu lan taldera, eta unibertsitateen konpromisoa dugu, bidean laguntzeko. Hasi besterik ez dugu egin, baina bidea bera, mahai baten bueltan zintzo egotea, urrats handia da, jarrera berri bat adierazten duelako. 🙌

Oharrak

1. Artikulu hau 2017ko otsailaren 22an Euskaltzaindiak eta Hekimenek Bilbon antolatutako *Euskal hedabideak, itun bila* jardunaldian irakurritako hitzaldian oinarrituta dago.

Gaia: Euskal Kultura 2017

Izena: JAUZI KUALITATIBOA



zugaz/
art

Jakin ^{•eus}
herria kultura hizkuntza

Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea, 29
20140 ANDOAIN
Tel. 943 21 80 92
jakin@jakin.eus
www.jakin.eus

